

gakoak



**Ruper Ordorikarekin,
hautsi den anphoraz**

22

**“Gure zilborretik
begiratzen dugu mundua,
prisma oso txikitik”**

ARANTXA ORBEGOZO TXITXI

70

**Bost ideia
autosufizientziarako**

BARATZE-OIHANAK

95

**Esklabotzaren
arrastoak
Euskal Herrian**

IBILBIDE DEKOLONIALAK



Erabiliz gero,
ate berriak
zabalduko dituzu

ZER DA?

E _ _ S K A _ _ _



Bilbao

Ez da interes falta

Pub bat, Ingalaterran. Giro lasaia egoten da arratsaldero, bezero batzuk mahaietan eserita, beste batzuk barran, garagardo pintak hustu ahala betetzen ditu zerbitzariak. Tipo jatorra da, nahi duena berarekin aritu daiteke hitz aspertuan. Telebista edukitzen du piztuta, beti kate pribatu bera. Bazkalostean, lau telesail botatzen dituzte bata bestearen atzetik. Horien ostean, albistegia hasten da, eta orduan, tabernariak, sistematikoki, itzali egiten du telebista.

Albisteez paso egiten omen du geroz eta jende gehiagok. Ondorio hori atera du aurtengo *Digital News Report* txostenak, 46 herrialdetan egindako 93.000 elkarrizketatan oinarrituta. Milaka pertsonak erantzun dute, albisteak batez ere sare sozialetan kontsumitzen dituztela, bideo formatua dela nagusi eta askok propio saihesten dituztela albisteak. Arrazoiak: hedabideak “aspergarriak” iruditzen zaizkiela edo informazioek “antsietatea” eta “inpotentzia” eragiten dizkietela. Jende askok ere esan du informazioek egiazkoak ala gezurrezkoak diren jakiteko zailtasunak dituztela plataformetan.

“Badirudi informatzea bihurtu dela abian den historia bat erakustea edo, zuzenean, ikus-entzuleok gertaeraren parte egitea”, idatzi zuen *Le Monde Diplomatique*-ko zuzendari Ignacio Ramonetek, Noam Chomskyrekin batera... 1995ean. Ez dira gauza bera, baina, ikus-tea eta ulertzea. Guk eguzkia gure inguruan bueltaka ikusi arren, Lurra da bere birundan dabilena, Galileok frogatu zenez. Whatsappetik zabaldu den azken argazkia ikusi edo zurrumurrua entzutea ez da informatuta egotea. Ilusio guztien artean arriskutsuena, errealtate bat eta bakarra existitzen dela pentsatzea da. Hori ondorioztatu zuen giza komunikazioaren teoria landu zuen Paul Watzlawick filosofo eta psikologoak. Kontua da, askotan, bide horietatik jasotako beldurrak eta pertzepzioak pixkanaka gorpuztu egiten direla, errealtate eta arazo ukigarri bihurtzeraino, azkenaldian gure auzoetan eskuin muturrarekin eta arrazakeriarekin ikusten ari garen bezala.

Aldi berean, algoritmo opakuek filtratutako 30 segundoko bideoen kontsumoak elikatzen du ahaleginik gabe informatuta egon daitekeenaren ameskeria. Hori falazia hutsa da. Informaturik bizitzeak beti eskatuko du ahalegina, baina saria ere handia du: “Bizitza demokratikoan modu inteligentean parte hartzeko esku-bidea lortzea”, Ramoneten arabera.

“Hedabide handiek sortu eta beraien agendarekin maneiatzen duten iskanbilaren erdian... zerbait ezberdina eman behar zaie zerbait ezberdina nahi dutenei”, zioen gure lankide Pello Zubiriak duela hilabete batzuk ARGIAN bertan egindako elkarrizketan. Bere hitzetan, herritarrek kazetariak behar ditu, munduan abian dauden alternatibak ezagutzeko eta gure inguruan gertatzen ari dena ulertzeko. Horretarako, baina, gaokoak eman behar dira: Nork egin du zer? Nola? Non? Zergatik? Zein testuingurutan? Zein dira kausak? Eta ondorioak? Kazetariak galdera horiei erantzun behar die, zintzotasunez. Herritarrekiko errespetuz.

Galdera horiek aztertuta frogatzen da, ordea, hedabideak ez gairela erakunde neutralak, noski. Bakoitzak bere ideologia eta interesak dauzka. Eta jabeak, batez ere. *Digital News Report* txostena bera ere Reuters Institutuak egin du, erakunde askoren babesarekin, besteren artean Google –edo Nafarroako Unibertsitatea!-. Baina ikus dezagun Reuters zer den: munduko hirugarren albiste agentziarik handiena, 2.500 kazetari eta 600 fotokazetarirekin, eta 2008an munduko 25 pertsona aberatsenetako batek erosi zuen. Eta beraz, galdera hauxe da: esaten digutenean beraiek sortzen lagundu duten panorama mediatikoa ez zaiola interesatzen jendeari, nora iritsi nahi dute? Zer ari dira prestatzen beren pribilegioei eusteko? *Fake news*-en aurrean beren burua egiaren mezulari gisa zilegiztatze-ko enegarren saiakera agian? Nork eta Reuters eta enparauek, Gazako ospitale-rik handienaren azpian Hamasen egoitza nagusia zegoenaren tamainako gezurra esan, eta ehunka pertsonaren hilketari zuri ondoren sekula barkamenik eskatu ez duten horiek guztiak.

Artikulu hasierako telebista itzaltzen duen zerbitzariaren eszena, *V for Vendetta* komikiaren hitzaurrean deskribatu zuen 1998an Alan Moore gidoilariak. Egun batean, ordea, albisteak zergatik kentzen zituen galdetu zion, eta tabernariak erantzun zion ez zekiela, besterik gabe egiten zuela. Oihu isil batekin amaitzen du artikulua: “Albistegiak itzaltzen ez dituzten horientzat da komiki hau”.

25 urte ez dira alferrik pasa ordutik, eta guk ez dugu esango ulertzen ez ditugunik albistegiakin saturatuta egon daitezkeenak. Gain-informazioa eta desinformazioa eskutik joan ohi dira. Hala ere, ausartuko gara esaten aipatu txostenak dioenaren kontrara, jende gehiena ez dela albisteekin aspertu bere horretan –jendea musikarekin aspertu dela esatea bezala litzateke–, gai direla beren bizitzari ekarpena egiten dioten albisteak eta zaborra bereizteko. Azken hamarkadan botere mediatikoak bizi duen sinesgarritasun krisiaren beste adierazle bat besterik ez da. Eta hortik ikusita, zentzua ere badute jendearen erantzunek: nola ez du jendeak paso egingo edo inpotentzia sentituko, lau bahitu askatzean Israelek 270 palestinar hiltzea “ekintza arrakastatsutzat” saldu badute Mendebaldeko medioek? Nola ez dute antsietatea eragingo albisteek, guda nuklearra arduragabeki hauspotzen ari direla edo klima larrialdia *greenwashing* kapa batez estali nahi dutela ikusiten denean? Nola ez du esango jendeak medioak aspergarriak direla, soldata minimoa igotzea gastu onartezina bada eta *lagunei* emandako diruak beti inbertsioak? Nola ez da jendea haserretuko hedabideekin Bangladeshko Rana Plazako sarraskiaren urteurrenatan beti ezkututzen badute Inditex, El Corte Inglés, Mango, Alcampo, Primark, Wal-Mart, GAP edo Benetton multinazionalen ardura izan zutela 1.127 pertsona horien heriotzean?

Ez, ez da interes falta. Kontua da jendeari ez zaiola gustatzen tenteltzat hartua izatea. Eta hor, kazetaritza independenteak aukera ederra du erakusteko, baduela herritarrei eskaintzeko zerbait ezberdina. ●

Aktualitatea

6 / Mundua argazkitan

Igor Altuna Azkargorta

14 / Hara, turista bat!

Adur Larrea

16 / Amaierak zerumugan

Iñigo Martínez Peña

17 / Desoreka

Uxue Apaolaza Larrea

18-21 / Mundua datutan

Erredakzioa

Sakonean

30 / Gurasobakarrak hautuz

“Txarra eta ona, dena intentsitate handiagoz bizi dugu”

Mikel Garcia Ildiakez

38 / Migrazio-dolua

Herrimina trauma bihurtzen da

June Fernandez

54 / Geopolitika

Israel, Iran eta bi elefanteak

Mikel Aramendi

62 / Pakistan

Indusen ibaibideak

Igone Mariezkurrena

70 / Baratze-oihana

Bizitzaren ederra lantzen buruaskitasunerantz

Estitxu Eizagirre Kerejeta

77 / Historia

Pardina eta makien arrastoan

Xabi laben



gakoak

Azaleko ilustrazioa:

Adur Larrea

Elkarrizketak

22 / Arantxa Orbegozo

“Niretzako bidairik politenak mantso doazenak dira”

Ainhoa Mariezkurrena Etxabe

46 / Ruper Ordorika

“Musikak erroreari zor dio ondo emandako notari bezainbat”

Gorka Peñagarikano Goikoetxea

Kultur gomendioak

90 / Liburuak

92 / Ikus-entzunezkoak

94 / Diskoak

Ibilbide dekolonialak

95 / Bilurren itzal luzea gure geografian

Urko Apaolaza Avila

Ipuina

101 / Hutsunearen soinuak berba egin zuenekoak

Testua: Ainhoa Urien Telletxe

Ilustrazioak: Shu Otero

GAKOAK 2024

INPRIMAKETA: ANTZA KOMUNIKAZIO GRAFIKOA DISEINUA: MAITANE GARTZIANDIA AZALA: ADUR LARREA

KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L., 2024 ISBN: 978-84-09-54415-8 LEGE GORDAILUA: LG D 00615-2024



Ekoedizioaren Institutuko
bazkide da ARGIA



DOAN ETA LIBRE: ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Lizentzia hau baliagarria da testuentzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.



22
Arantxa Orbegozo
'Txitxi'



30 Gurasobakarrak



63 Pakistan




101 Ipuina



70 Baratze-oihanak



 IGOR ALTUNA AZKARGORTA


Bidaiari eta argazkilari porrokatua da arrasatearra.
Bere begiradaren bidez, munduko hamaika txoko
eta animalia-aren une paregabeak bildu ditu eta
nazioarteko hainbat hedabidetan eskaini.
Bere ibilbide luzean egindako lan oparoaren lau
argazki bildu ditugu hurrengo orriotan.

Babuino txiki bat leopardoak hil berri duen amari besarkatuta.
Zambia, South Luangwa.





Hong Kong.

 IGOR ALTUNA AZKARGORTA






Vietnam, arrantza sarea konpontzen.

© IGOR ALTUNA AZKARGORTA



Malaysako haur batzuk
jolasean, zeinek itzulipurdi
gehien egingo.


 IGOR ALTUNA AZKARGORTA





“ERAIKIN HONETAN EZ DA EGONGO HOSTELIK, EZ LUXUZKO HOTELIK, EZTA INGURUKO AUZOKIDEEK ORDAINDU EZINGO LUKETEN ETXEBIZITZARIK ERE”

KATAKRAK ETA KOOP57 / Iruñeko Alde Zaharrean 1.500 metro koadroko eraikina erosi dute, egun liburu-denda dagoen ondoan. “higiezinaren gaineko espekulazioa saihestu eta hiriko lurra askatzeko”.



“GURE ESTATUTUEK ESPEKULAZIO MERKATUTIK KANPO EZARRI DUTE GURE ETXEBIZITZA KOOPERATIBA”

IÑAKI ETXELEKU / Bizitegi molde kooperatiboak zabalduz doaz Ipar Euskal Herrian. Hiriguneetan ez ezik, orain landa eremuan ere badira halako egitasmoak eta Etxeleku da horietako baten parte. Jabetza kolektiboarekin, etxebizitza eta inguruko lurra turismoaren eta merkatuaren espekulaziotik kanpo uztea lortzen da.

25 Lagunetara murriztu dute turista taldeetako gehieneko pertsona kopurua Donostian, pasa den apiriletik. Bisita gidatu turistikoek ezin izango dute kopuru hori gaingitu, bestela gidariak isuna jasoko du. Hondarribian ere antzekoa egiteko proposamena jaso dute hango udalean, herritarrak “kaleetatik ezin pasa” dabiltzalako.



Mundakan atea itxi diete etxebizitza turistikoari urtebetez.

Hala, etxebizitza turistikoak erregistratzeko baimenak ez ematea erabaki du udal gobernu taldeak eta Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorrean behar diren aldaketak egingo ditu horretarako. Aldaketa horiek, gainera, “eragile eta herritarrekin batera” egingo ditu.



☎ | 944 557 027 · 944 557 009
✉ | udala@larrabetzu.eus



www.larrabetzu.eus



Amaierak zerumugan

 IÑIGO MARTINEZ PEÑA



Edozeren amaiera aurreikustea modan jarri da. Gizakiaren amaiera, ideologia, komunitatearena, autoritatearena, filosofia-arena, edota demokraziarena. Sentsazionalismoz beteriko etiketak dira?

Agian Francis Fukuyama izan zen amaieraren moda hori hasi zuena. Berlingo harreria jausi ondoren, *Historiaren amaiera* deituriko saikera idatzi zuen: gertaera haren ostean betiko nagusituko ziren merkatu ekonomia askea eta askatasun indibiduala, pentsamendu homogeneo eta sistema bakarrean. Agur, historia!

Fukuyamaren liburuaren izenburuak izugarritzko arrakasta izan zuen. Ez al da sintomatikoa? Orogen amaiera pentsatzen duen garaia bizi dugu. Badirudi “post” aurrizkia, edo “ostea” atzizkia, ohiko bilakatu zaigula, mundua pentsatzeko ezinbesteko kontzeptua dela: *post-humanismoa, postmodernitatea, egia-ostea...* Zer pentsa ematen du.

Baliteke, dena den, *amaiera* ulertzeko hainbat adiera izatea buruan egungo pentsalariak: tragedia gisa, aukera berri gisa edo aurrekoa kritikatzeko modu gisa. Edozein modutan, amaieraren ideologia dugu nagusi, bukaera bultzatzen da.

Nire ustez, berrikuntza etengabearen paradigmak bultzatzen du bereziki joera hori, denari iraugitze data jarrita. *Amaiera-berrikuntza* binomioa, *jarraipena* edo *errepikapena* baino askoz gehiago erabiltzen eta goraiatzen da egungo diskurtsoetan. Errepikapena erabat gutxietsita dago, lotsagarria dirudi etengabe eraberritze lanetan dabilen mundu honetan.

Denboratik errepikapena ezabatzeara al da gakoa? Hala dirudi denboraren ikuspegi neoliberala kontuan hartuta. Prentsa onik ez badu ere, errepikapenaren aldeko argudio batzuk eman nahi ditut: politikoak, existentzialak.

Dantzan aritzeko pauso batzuk errepikatzen ditugu, abesterakoan estrofak. Poema zaharrak ikasteko oso lagungarria da rapsoden metrika, bertsoen kadentzia errepikakorra. Eta haurrek behin eta berriz entzun nahi izaten dute ipuin berbera. Errituak komunitateak errepikatzen dituen elkarguneak dira: denboraren etxeak, Byung Chul Hanen arabera.

Eta gure gorputzek? Bizitzaren garaiak errepikatzen dituzte: haurtzarora, helduarora, zahartzarora. Gure gorputzetan islatzen dira, belaunaldiz belaunaldi, gure aitona-amonen markak. Horra hor bizitzaren udaberria, uda, udazkena, negua. Aurre-rapenaren eta amaieraren haustura soila azpimarratu beharrean, beselako denbora bizi daiteke: jarraipenarena eta metamorfosi txikiena. Izan ere, errepikapena ez da sekula berdin-berdin gauzatzen, ez da aurrekoaren kopia garbi bat. Jarraipena eta aldaketa barneratu ditzake. Hori-xe dugu errepikapenaren paradoxa: buelta bakoitzean berdin eta desberdin dago, aldi berean.

Errepikapena, beraz, ez da modu burokratiko eta aspergarrian ulertu behar. Joan-etorrien mugimendu bizia ere izan daiteke! Horregatik bueltatzen gara, gogotsu, noizbait gustuko izan ditugun idazle, kantu, paisaia, pertsona, lagun eta maitasun horietara. Berberak eta beste batzuk izatera, gudan utzitako oroitzapenaren marka berreskuratzerara. ●

Oreka

 UXUE APAOLAZA LARREA



Ile-apaindegira joan behar dut” pentsatu nuen ikasturte hasieran, eta ez nintzen joan. Ile luzearekin hasi nintzen, eta berdin bukatu (bide erdian mototsa egin nuen buruz behera jarrita, eta zati bat moztu nion. Inor ez zen konturatu. Ezta ni ere). Ezkutatzen nau keinua falta badut, eta, batez ere, ez dut kezkatu beharrik zer kentzen didan, zer ematen didan, beraz, zer galduko nukeen moztuz gero. Ez naiz erakargarriagoa, baina ezta gutxiago ere, ileak erakargarri, edo kontrakoa, egiten zaituen fronte guztietan. Izango ziren nahikoa erronka bestela ere orekari eusteko, beste aldaketa bati neurria hartzen ibili beharrik gabe.

Dutxako hustubidea buxatzen zait bi egunetan behin; gero, ura pilatzen da, eta atearen azpitik komun osoa putzutzen du. Ile bustiarekin ibili naiz negu betean, ondo lehortzea ezinezkoa delako norabait garaiz iritsi nahi baduzu, eta zeure burua atontzeaz gain haur batek bere burua presta dezan lortu behar baduzu, eta ez baduzu ordu txikiegitan jaiki nahi (hala oheratu zarenez). Lehorgailuak otsailean utzi zion ahalegintzeari. Berri bat frustratzen hasi behar izan nuen. Horretan hasi aurretik, burua toaila batean bilduta jantzen naiz, askatzen dut ilea, eta bustitzen dut guztiz soineratutako arropa. Janarian sartzen zait. Jertsea kentzen dudanetan iletik tiratzen dit. Halako erabaki orekatuak hartzetik eratorritako bizitzak kalbak eragin zizkidan, eta ile-apaindegira joan ez naizenez orain ile-xerlo motzagoak dauzkat soilguneen lekuan, gris-grisak, puntan kizkurtoak (hobeto ikusteko), filmetako sorginen itxura ematen dida-

tenak. Katuen ile bolak diruditenak azaltzen zaizkit garbigailuan maindreak garbitzen ditudanean. Nireak.

Zorriak lehen aldiz sumatu nituenean grazia egin zidan, eta barre egin nien guraso kezkatuei. Gero eta azkarrago azaltzen ziren baina; eta azkenik, ez ziren desagertzen. Astean behin egiten dut tratamendua, intsektizidadura. Lehen egunetan berean sumatzen ditut lehen azkura puntu urrunak, eta hazka eta hazka, detergente usaineko pozoia mina egiten hasi zitzaidan, zauriak nituen. Asteroko minaren arindua irrikatzen dut orain: nahiago dut mina. Granoak ere sumatzen hasi nintzen. Interneten begiratu nuen ea zorriak nahikoa denbora edukita azal azpian arrautzak jartzeko errezeptakuluak egiten dituzten; edo Goibi biltegiak, nik, *trapi* jainkotiar honek, asteroko hornidura ekarri arte intsektizida dosiekin espekulatu ahal izateko. Orain, azkura daukat ez buruan bakarrik, baizik eta gorputz osoan, eta hazka egin eta granoak ateratzen zaizkit (Interneten begiratu dut ea zorriak gorputz osora heda daitezkeen). Ez dut inoiz zomorro bakar bat ikusi.

Orain, ile-xerlo batzuk motzago, beste batzuk irregular moztuta, zorriak, zorrien arrautzak, granoak eta odola... lotsa ematen dit ile-apaindegira joateak. Galdetuko didatelako han, leku guztietan galdetzen didatena: “Baina, maitea, nola ez zinen lehenago...”. Lehenago. Ba bai, ez?, maita nazatela beste zerbaitegatik. Baina non. Zer konpentsatu beharko dut orekari eusteko. Edo ez nazatela maite. Hiru hilabeteko uda aurrean. Beroa. Ile-apaindegira joateko. Eta ez nazaten... ●







LED PANTAILA ERRALDOIAK
MULTIKAMERA EKITALDIAK
BIDEOGINTZA
STREAMINGNA
3D ANIMAZIOA
AIREKO IRUDIAK
BIDEO PROIEKTOREAK

info@pixel.eus

Benetako mehatxuak... eta benetako aukerak

Ondoko infografia Kataluniako Delàs Bakearen Aldeko Ikerketa Zentroak 2022ko urrian argitaraturiko 55. txostenean dago oinarrituta. Txosten horretan Xavier Bohigas, Pere Brunet, Teresa de Fortuny, Anna Montull Garcia eta Pere Ortega, enpresa transnazionalen, belizismoaren eta klima larrialdiaren arteko loturak aztertu zituzten sakon. Eta hamasei hilabete geroago, lotura horiek areagotu baino ez direla egin esan dezakegu.

Ondorioen artean, egileek diote klima larrialdiaren eta migrazio krisiaren abaroen, interesen eta botere globalen sare handi bat sortu dela munduan, herrialdeetatik harago doazen aktore pribatu gutxi batzuek zuzendua. Mundu mailako sare horrek militarren negozioak lotzen ditu lehengai fosilen negozioekin, eta zuzenean eragiten die ingurumen krisialdiei, batez ere Hegoalde Globalean.

Aurrera begira, gastu militarra igotzea aurreikusten dute, baita potentzien arteko gero eta gatazka gehiago egotea ere, potentzia horien ekonomiek jasango dituzten "mehatxuei" aurre egiteko.

Baina infografiak ondo azaltzen duen bezala, mehatxuak ez dira esaten dizkigutenak, baizik eta "karrera armamentistikoa eta gatazka armatuak sustatzen dituzten eliteek" sorturikoak. Hori horrela, beste lehentasun batzuk eta beste geopolitika bat beharrezko ikusten dituzte, eta horretarako "gizarte zibilaren mobilizazioa da esperantza bakarra, irtenbide ekofeministak eta ekintza kolektiboak aurrera eramateko".

ELKARRI LOTUTA DAUDEN ARAZO GLOBALAK



ERANTZULEAK: INTERESEN SARE GLOBALA



IRTENBIDEAK



Irurako udala

San Migel plaza 1, 20271
udala@irura.eus
www.irura.eus



◉ BALIABIDEEN HARRAPAKETA

◉ SISTEMA MILITAR ETA ESTRAKTIBISTAREN ISURIAK

◉ HARRAPAKETEI BABES MILITARRA

◉ MUGAK MILITARIZATU ETA GOTORTZE

◉ INGURUMENA SUNTSITZEA ◉ BIOLENTZIA PERTSONEN KONTRA

Mehatxuak ez dira esaten dizkigutenak; orain globalak eta mugaz gaindikoak dira, eta etorkizuneko belaunaldiei eragingo diete



◉ LOBBIEK KOOPTATURIKO ESTATUAK

ENERGIA LOBBYA: FOSILEN NEGOZIOAN OINARRITURIKO GEOPOLITIKA

◉ LOBBY MILITARRA: GERREN NEGOZIOA

SEGURTASUN EREDU HEGEMONIKOA: ◉ GASTU MILITARRA HANDITZEA ◉ SEGURTASUN ESTRATEGIA BERRIAK (NATO, EB...)

Premiazkoa da lehenetasunak errotik lehengoratzea; negoziotik eta biolentziatik, igaro behar da ekofeminismora, armagabetzera eta gastu militarren murrizketara



◉ MATXINADA EKOFEMINISTA

HERRIEN MATXINADA: ◉ "EZIN GAITUZUE BAZTERTU"

PERTSONEN KONTRAKO BIOLENTZIARI UKO EGITEA ◉ PERTSONA GUZTIEN, BIOSFERAREN ETA PLANETAREN ZAINTZA
ERAK MURRIZTEA ◉ GEOPOLITIKA FEMINISTA ETA DEMOKRATIKO BERRIA

Gastu militarren dirua berehala behar dugu, pertsonen beharretara bideratuko den segurtasuna eraikitzeko

Euskaraz?

Pozik gainera!

Euskara: bide desberdinak, helmuga bera

943 73 71 91 · euskara@legazpi.eus
www.legazpi.eus



LEGAZPI
ESKOLA



LEGAZPIKO UDALA

GAZAN DESPLAZATUTAKOEN
%85a RAFAH-N ZEGOELA

KOMUN-ONTZI 1 850 PERTSONAKO

Estandar humanitarioa: **komun bat 20 pertsonako**

GENOZIDIO BALDINTZAK

Israelen desplazamendu aginduek, azpiegitura suntsitzeak eta laguntza eta osasun arretaren aurkako erasoek, baldintza genozidak eragin dituzte Gazan . Baldintza horiekin gaixotasuna genozidio-arma bihurtu dute.

IKERTURIKO BEHERAKO KASU

345.768 BEHERAKO KASU

5 URTE BAINO GUTXIAGOKOEN ART

DESIDRATAZIOA MALNUTRIZIOA

Ur litro bat baino gutxiago egunean pertsonako

1.1 milioi pertsona goseak jota

Deshidratazioa eta desnutrizioa azkartzen ditu beherakoak

GENOZIDIO BALDINTZAK

Gosea eta gaixotasunak genozidiorako armak dira

VISUALIZING PALESTINE

ITURRIAK bit.ly/vp-genocidal-conditions
WWW.VISUALIZINGPALESTINE.ORG

@visualizingpal
/visualizing_palestine
fb.me/visualizingpalestine

APR 2024



Alamartxoaren sua
eta
Euskararen garra
dira
gure amasak.

zaldibia.eus

ZALDIBIAKO
UDALA

UeMA
EUSKAL
HERRIA
UDALSILTZA

UAK
KASU

GAN %31



GAINPOPULAZIOA

Genozidioa hasi aurretik baino
5 aldiz pertsona gehiago Rafahn

Gazako ospitaleetako oheen
%323 beteta daude

SANEAMENDURIK ETA HIGIENERIK GABE

Instalazioen beharra
areagotzen du
beherakoak

Komun 1 850 pertsonako
Dutxa 1 3.600 pertsonako



Nazioarteak ohartarazi digu
hondamendi humanitarioa
eta epidemia larriak
egongo direla. **Ez dugu hori
saihestu behar... Gaza
hegoaldeko epidemia larriek
garaipena ekarriko digute.**

— **GIORA EILAND**

Israelgo Armadaren Plangintza eta
Operazio Dibisioko eta Segurtasun
Nazionaleko Kontseiluko buru ohia,
2023ko azaroa



Elorrioko udala

Euskara

gehiago, gehiagogaz, gehiagotan

Herriko Plaza, 48230 Elorrio (Bizkaia) | 946 58 27 12 | euskara@elorrio.eus | www.elorrio.eus



ARANTXA ORBEGOZO *TXITXI*

“Niretzako bidaiarik
politenak mantso
doazenak dira”

Zirrara eta pasioaren eroale da Arantxa Orbegozo *Txitxi* (Tolosa, 1962). Bitzta darama eskuetan eta hura eskaintzen dio zuzentzen zaion edonori. Atleta izan da, txirrindularia, eta bere buruari proposatu dizkion beste hainbat diziplinatan aritua. Hala eta guztiz ere, benetan mugitu duena bidaiatzea izan da. Naturaren parte sentitu da beti, arriskuak pairatzeraino. Ikuspegi behatzaile hori margolaritzara ere eraman du eta bere arrastoa uzten dabil orain Euskal Herriko zenbait paretatan. Bere izaera abenturazaleak amesten jarraitzea bermatzen dio. Orbegozo entzutea, norberaren bitzta eskuetan hartzea bezalakoa da.

 AINHOA MARIEZKURENA  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Nondik hasiko zinateke zure bidaiak kontatzen?

Nik indiar-ijito bat daukat barruan, eguratsa behar duena, hortaz, naturara jo dut beti. 12 urterekin Tolosan zegoen Scout Nesken taldean hasi nintzen, horrek mundu bat ireki zidan. Enkofratzeko bost burdin ematen zizkiguten eta horrekin sukaldea egiten genuen, lurreen zulo bat tximinia gisa. Egurren bila joaten ginen sua ondo pizteko, egurra lortzen ez bagenuen makarroiak egin gabe geratzen ziren eta. Izorrai! Denda gaizki muntatuz gero, bustita. Gauza oso politak bizi izan genituen. Hainbeste gustatzen zitzaidan ezen nire seme-alabak ere kanpalekura joatea nahi nuen. Baina ezetz, ez zutela joan nahi eta, beraz, kanpalekua ekarri nuen etxera. Araitz bailara azpian bizi ginen, ehun bat biztanleko herri txiki batean. Seme-alabak kale-zuloan baino zertxobait basatiago hezi nahi nituen. Beraz, Scout kanpamentuen erreplika perfektua egin nuen: euskal kirolen eguna, piraten eguna, piragua eguna... Erreka dugu etxe ondoan eta han pasatzen genituen eguna

“Niri ez zait inoiz lehiatzea gustatu, bidaiak ziren nire interesik handiena”



eta gaua, etxera kaka egitera soilik sar zitekeen. Ibilbide bat ere egin genuen goiko herrira, eta bertako elizan lo egin. Kristoren eguraldi txarra egin zigun [barrez]. Ederra.

Horrela hasi zinen zure bizitzarekiko ikuspegia eraikitzen?


Asko daukat hortik bai. Ziurgabetasuna gustatzen zait, ziurgabetasuna eguratsen. Naturarekin kontaktua oso inportantea da niretzat. Beharrezkoa ikusten dut *gitaneo* pixka bat egotea guztion bizitzan, gazte zein heldu, eta eguratsean egotea gehiago. Hori bilatu izan dut eta hori ekarri didate egindako bidaiak ere.

Nondik datorkizu bidaiatzeko grina?

Okinen familatik nator, igandea ere lan-eguna zen eta, beraz, gurasoekin ez dut sekula bidaiatu. Niretzako bidaiatzea garrantzitsua zen, leku gehiago ikusi nahi nituen. Izeba bat daukagu moja joan zena Ameriketara. Ingelesa ikastera iloba guztiak eramango zituela bururatu zitzaion. Beti izan dugu Amerika buruan, hemendik kanpo mundu zabala goa zegoenaren kontu hori. 16 urterekin joan nintzen eta buruak 360 graduko buelta eman zidan. Francoren Euskadi sakonetik Amerikako Estatu Batuetara? Ikaragarria.


Kirolak ere zabaldu dizkizu munduratzeko ateak?

Bai. Gaztetan hasi nintzen, 12 urterekin. Oso mugitua nintzen eta nire amak ezin zuen nirekin. Nola nekatuko dut hau? Medikiak kirolen batean izena emateko aholkatu zion eta atletismoan apuntatu nintzen. 19 urte arte lehiatu nuen. Espainiako hiru domina dauzkat, errekorra ere egin nuen pisu eta xabalina jaurtiketan. Mendingian asko ibiltzen nintzen, udan zein neguan, eta eskalatzen ere bai. Atletismoa utzitakoan bizikletan hasi nintzen. Garai hartan oso emakume gutxi egiten zuten kirola, Francoren garaitik gendoen. Batzuk ikusten genituen saskibaloian, igeriketan edo bizikletan, baina ezer gutxi. Orduan Orbeako emakume txirrindularien taldea sortu zen hemen. Ni euskara ikastera bizikletan joaten nintzen nire txoritxoak atzean nuela eta eguneroko ikusten nindutenez, taldean sartzea proposatu zidaten. Proposamena arraunean aritzea izan balitz arraunlari egingo ginatkeke ziurrenik. Espainiako aurreneko nesken taldea sortu genuen orduan. Txirrindulari ginela Triatloia sortu zen. Eta nor hasiko da, ba, hor ere? Lehenengoak izan ginen, beraz,




Ezagutu Zestoa esperientzien bidez


www.zestoa.net




ZALDI IRTEERAK




IZARRAITZEKO BIRA ZESTOTATIK



EKAN BERRI MUSEOA



ERDI AROKO LILI JAUREGIA



EZAGUTU PAISAIA eta ONDAREA



Triatloian ere. Gero, mendiko txirrindularitzara pasa ginen.

Aitzindaria zara emakumeen kirolean.

Kuriosoa da. Elkarrizketak egiten zizkigutenean eta nola egiten genuen galdetzen zigutenean, ez genekien erantzuten. Nola egingo dugu ba? Haiek (gizonak) bezala. Guk ez genuen inoiz pentsatu desberdintasunean, ez genuen hori bizi. Haiek ahal badute inoiz ez zitzaigun bururatu guk ezetz. Ezta bururatu ere. Kuadrilla hartan ez zegoen genero desberdintasunik, dena zen berdina: arropa berdina, neke berdina, gose berdina, susto berdina. Naturak ez du desberdintasunik egiten. Orain ari naiz konturatzen bide bat zabaldu genuela. Aurreko batean omenaldi bat egin ziguten, aitzindari izateagatik. Inongo asmorik gabe izan gara, ordea, inoiz pentsatu gabe. Kanpokoak konturatu dira eta gu harrituta geratu gara. Guri omenaldia? Garai hartan arraroak ginen, desberdin egiten zuten horiek.

Ez zenuten jarraitzen gainontzekoon bizitza eredia.

*Dina Bilbaori galdetzen zioten: ez duzu seme-alabarik izango? Eta hark "37 urterekin" erantzuten zuen. Eta etxe bat erosi? 37rekin. Eta lan finko bat? 37rekin. Dena 37 urterekin egingo zuela esaten zuen gure bizitza gure erara egiten utz ziezaguten.

Deskubritzeko zirrara zen zuen bizitzaren ardatza?

Bizikletak ate pila bat ireki dizkigu: lagunak egiteko eta kirolean ikasteko aukera eman digu, besteak beste. Baina, batez ere, mundua ezagutzeko aukera handitu zidan. Kanadan munduko txapelketa baldin bageneukan, bide batez bizikletak eraman eta han geratzen ginen. Hala ere, niri ez zait inoiz lehiatzea gustatu, bidaiak ziren nire interesik handiena. Lortu nuen errekorra ere bidaiatzen jarraitzeko nahiak ekarri zuen. Baina bidaiak guztietara joateko eta lekua erreserbatzeko asko entrenatu behar zen. Nik ez nuen hori nahi. Orduan masajista izateko bi urteko goi-mailako ikastaro bat egitea bururatu zitzaidan eta horrela Orbeako zein Espainiako Selektzioako lehenengo emakume masajista gisa bidaiatzen hasi nintzen. Beti joaten nintzen.

Turista eta bidaiaria ez da gauza bera. Niretzako bidaiarik politenak mantso



ARANTXA ORBEGOZOK UTZIA

TXIKITAN Azkar hasi zen kirolean Orbegozo: atlestimoan, bizikletan, mendian, eskalaten... "Garai hartan oso emakume gutxi egiten zuten kirola, Francoren garaitik gentozen".

doazenak dira. Batzuetan helmuga finkoa da, baina beste askotan furgoneta-ekin hasi eta leku batetik bestera mugitu gara. Dena planeatua badaramazu ez diozu uzten lekurik sorpresari. *Nairobitarren bidaiatzeko moduak hasieratik harrapatu ninduen. Bidaia zirrara-gariak bururatzen zitzaizkien, furgonetan edo bestela. Dina Bilbao, Amaia Elosegi, Josune Gorostidi eta Nekane Urkia ere ondoan nituen eta lagun kuadrilla polit bat bildu ginen. Bakoitza berean baina, abentura, kirola eta bidaien zirrara konpartitzen. Autokarabana ez zen orduan existitzen ia eta autobus handi bat eramaten genuen piraguekin. Land Rover batean nire lehen bidaia Marokora izan zen. Andaman uhartera joan ginen gero, piraguako trabesia egiteko asmoz. Kuba zeharkatu dugu bizikletan, Ipar Lurmuturra eskian eta bizikletan... Garai hartan ez zegoen baliabiderik, ez genekien ziur zer gertatuko zen. Ertzean

ere jarri gara batzuetan, arriskuan; gosea, gaixotasuna, nekea edo sustoren bat edo beste. Hortik ateratzeko lagunen arteko konplizitate handia behar da, eta tresnak bereganatu. Zortea izan genuen Nairobiarrak ondoan izatearekin, nik bakarrik ez nituzke halakoak biziko. Nire burua ondo ezagutzeko ere balio izan dit, mugak non ditudan jakiteko. Horrela ikasten da, kirol lehiaketetan baino gehiago.

Kirola izan da bizitza irabazteko modua ere?

Kiroldegirik ez zegoen apenas eta 21 urterekin Amaia Elosegik, Dina Bilbaok eta hirurok Kaxkardi piraguismo elkarte sortu genuen. Udan ematen genituen klaseak, kostarik ez zuten herrietara joaten ginen piraguekin. Ataunen, Lazkaon, Tolosan, Zaldibian, Beasaingo igerilekuan... egon gara. Furgonetan bizi ginen eta herritik herrira jolasten aritu ginen. Egunero lanera ez joatea zen helburua, gu izatea gure denboraren jabe. Bakoitzak jakin behar du arrakasta zer den beretzat eta non jarri indarra. Niretzat nahi dudan eran bizitzeko denbora libre izatea izan da arrakasta. "Zerekin geratuko naiz pozik, nola egin dut ondo nire erara?", pentsatzen nuen. Guk emandako klaseetatik lortutako diruarekin eta genuen denborarekin bidaiak egiten genituen gero.

Zer dakar bidaiatzeak?

Batez ere gauzak erlatibizatzea. Leku bakoitzean hain dira desberdinak gauzak... eta beti funtzionatzen dute! Inportanteena hori da. Hemen bazkaltzerakoan eskuak mahai azpian jartzea gaizki ikusita dago eta Estatu Batuetan gainean jartzea. Eraman hori bizitzako edozein arlotara. Kultura guztieratik ikasten duzu zerbait. Bidaiatzeak, era berean,



Bertsozale Elkartearen egoitzan, Villabonako Subijana etxearen fatxadan, murala margotzen aritu da Txitxi Orbegozo, Izaro Lizarragarekin batera. Oihal lantegi zaharreko emakumeen eta bertsoaren arteko haria irudikatu nahi izan dute. Bertan izan gara berarekin elkarrizketan.

“Gure zilborretik begiratzen dugu mundua, prisma oso txikitik”



erresilienteago egin nau. Ez dugu beti eroso bidaiatu, gu ez gara inoiz txartelarekin joan. Askotan ez dugu B planik izan, ingurunera egokitu gara kexa gutxirekin. Eta bertan duguna apreziatzen

ikasi dut. Hemen oso ongi bizi gara, zorte onekoak gara beste leku batzuekin konparatuz gero. Uste dut gomendagarria dela zurea ez den azalean bizitzea hiru hilabetez, hain eroso ez den horretan. Bizitzari balioa emateko, enpatia garatzeko, bestea gehiago ulertzeko eta mundua ezagutzeko. Gure zilborretik begiratzen baitugu mundua, prisma oso txikitik.

Ama izan zinenean kirola eta bidaiak alboratu zenituen.

agurainen euskaraz

bizi nahi dugu



20 urtez egon naiz etxeokandere eta amaxo. Mundutik jaitsi nintzen. Niretzat egin dudana ederrena eta garrantzitsuenak izan da. Une bakoitzak berea dauka. Orduan amatxo izan nahi nuen eta horretara nengoan. Oso ondo pasa nuen, asko jolastu dut haurrekin. Nire erara hezten saiatu naiz. Aholku gehiegi ematen dira haurren hezkuntzari buruz eta justu gutxien eman behar den arloa dela iruditzen zait: nola hezi zure seme-alabak. Horrekin oso kontentua eta harro nago. Seme-alaba oso jatorrak ditut eta orain amona ere banaiz.

Hogei urte ondoren, baina, berriro hartu du lekua zure bizitzan kirolak?

Haurrekin ez nuen horretarako gogorik eta, beraz, ez nuen egin. Bizitza aktiboa bai, baina kirola zero. Bat-batean egun batean, zertxobait urruti zegoen zerbaithartzera hurbildu nintzen eta jaikitze-ko arazoak izan nituen. 51 urte beteko nituen eta 100 urteak pasatzeko asmoa dut. Gorputz honen barruan 50 urte geratzen zaizkit? Bai zera. Orduan nire buruari bizitzako oparirik onena egin nion: berkonektatzea eta berraurkitzea fisikoki zein ilusioetan. Zer egin nahi dudana galdetzen hasi nintzen eta 100 eguneko erronka jarri nuen, gauzak ondo egiteko promesa eginda: inoiz baino kontzientzia gehiagorekin elikatzen hasi eta ariketa fisikoa berrartu. Galdera eta hausnarke-ten koaderno luze bat ere asmatu nuen: zer pentsatzen dut, zein ohitura ditut, norekin nabil, nora naramate... Eta tortillari buelta eman nion 100 egunetan.

Erronka eta proposamen hori beste emakume batzuei zabaltzea erabaki zenuen.

Aldaketa hain erraza bada zergatik gorde niretzat? Bi talde sortu nituen, proba gisa. 22 pertsona animatu ziren eta tor-



ARANTXA ORBEGOZOK UTZIA

GAZTETAN Ezker-eskuin: Carolina Sagarmendi, Dina Bilbao, Josune Gorostidi, Txitxi Orbegozo eta Amaia Elosegi, Donostiako Belodromoan *Euskadiko 6 orduak* jaialdian, 1980ko hamarkadan. Aitzindariak izan ziren emakumeen kirolean.

tillari buelta ematea lortu zuten guztiek, bakoitzak bere errealitatekin. Hortik aurrera online eskaintzen dut programa eta ikasten jarraitzen dugu. 700 bat pertsona pasa dira jada. *Y si yo decido* (Eta nik erabakitzen badut) deitu diot Instagrameko orrialdeari, hartzailea gorputzaren, elikaduraren eta egin nahi duenaren kontzientzia hartzerantz bultzatu nahian, batik bat 50 urtetik gorako emakumeak. Bizitza honetan geratzen zaigun bakarra denbora da eta aprobe-txatu behar dugu.

Esango zenuke guzti hau kolokan jartzeko duela zahartzaroak?

Istripurik ez badaukazu edo gaixotzen ez bazara, asko dago zure esku. Irits daiteke helduarora egoera fisiko onean. Lehen ez genuen erreferentziarik, baina orain ikusten ditut 80 urterekin eta

eredu izaten. Nik 20 urte banitu ni bezala egon nahiko nuke orain, fisikoki zein mentalki. Nire gorputzarekin ezingo banu ez nituzke orain ditudan ilusioak eta ametsak izango. Baina mugatua sentitzen ez naizenez, nahi dudana egiten diot lekua.

60tik gora duten asko etsi egin dira, baina aukera dute eta erraza da. Animatu nahi ditut bizitza nola bizi nahi duten galdetzerantz, hau ez baita infinitua. Emakumeei bereziki, ilaran azkenak izaten erakutsi diguteno, maitasun propioaz, garapenaz eta hazkuntzaz aritzeraz. Ez konformatu, ez amore eman. "Menopausiak 25 kilo utzi dizkit". Ezetz, eman dakiokela buelta. Gelditzen diren urteak izan daitezela ilusioarenak, konpartitzearenak, ondo pasatzearenak. Askok eman dugu, jada. Etorkizuna pentsatu eta planeatu behar dugu, koherentzia

errenteria.eus



Errenteria
ARN
kreatiboa
Izan herriaren eraldaketaren parte

HERRI BIZIA
etorkizunaren bidean

ERRETERIA
UDALA

eta jarrera izan, egin eta ondo pasa. Horretarako etorri gara. Ez banaiz nire buruaren lagun mina egiten, jai daukat. Gogo jarri behar zaio, nahi duzun bezala egoteko ohitura osasuntsu batzuk eraiki. Eta horretan baldintza fisikoa beharrezkoa da, bizitza aktiboa izateko, bakoitzak nahi duena egiteko. Nik, adibidez, aldamera igotzeko behar dut fisikoki ongi egon, edo bilobarekin txiribueltek emateko.

Zertarako nahi duzu aldamera igo?

Muralak margotzen ibiltzen naizelako aldameraoetan. Bestela ezingo nuke gehien gustatzen zaidana egin eta katuak bezala hor gainean ibili nire adinarekin. Oreak, indarra eta koordinazioa izan behar ditut hor lasai pintatzen egoteko.

“Aldamera igotzeko behar dut fisikoki ongi egon, edo bilobarekin txiribueltek emateko”



Margotzea da zure beste pasioetako bat.

Kasualitatez hasi nintzen margotzen. Betelun gimnasia klaseak ematen nituenean lokaleko giltza ahaztu zitzaidan. Margolari baten etxera joateko esan zidaten giltza eskatzera. 28 nituen orduan. Deabrua bezain itsusiak ziren koadro pila erakutsi zizkidan, begietan mina ematen zutenak, berak margotutakoak. Baina hainbesteko pasioz hitz egiten zidan... "Hain gaizki margotuta hainbeste goza badaiteke ederra izango da", pentsatu nuen. Orduantxe hazi bat landatu nuen: eserita eta bakardadean aritzeko *hobby* berri bat. Betidanik hartu izan dut kolpe mordoa, larraldietan historial luzea nuen, eta helduek behin eta berriz esaten zidaten adinean gora eginda denak emango zidala mina, aprobeztatzeko. Ez nekien margotzen nekienik.

Horretarako, bada, eskua izan behar da...

Ez. Ez du trebeziarekin zerikusirik, behatzeko gaitasunarekin baizik. Informazio gehiago jaso eta gauzak angelu



desberdinetatik begiratzearekin. Marrazten edo margotzen ez dakiena kuriosoago izaten erakutsi ez diotelako da. Niri Roberto Canicasek lagundu zidan horretan. Oihukatzen ez zidan lehen pertsona izan zen. Kontzientzia korporal handia izaten lagundu zidan, nire atletismoko entrenatzailea zen. Bideoak grabatzen zizkidan entrenatzen eta gero, nire gorputza, posturak, behatzen genituen. Argazkilaritzan ere zalea zen eta irudiak bilatzen aritzen ginen. Asko zor diot.

Muralik egin duzu munduan zehar?

Marokon bat, baina ez asko. Koadroak badauzkat munduko leku desberdinetan, baina muralik ez. Nire buruari ere ez diot aukerarik eman. Egiteko dudan ametsetako bat da muralak eginez mundutik bidaiatzea. Leku batean geratu eta margotzea, bitartean furgonetan bizitzea eta bertako jendearekin etxean bezala sentitzea, edonon. Horretarako *Bizikidetzarako muralak* proiektua elikatu nahi dut. Komunitate batera iritsi eta haiei galdetu ea zer nahi duten kontatu, ea nola nahi duten ikusleak erreakzionatzea.

Berriro hasiko zarela esan dezakegu?

Asko erakutsi dit eraman dudan bizimoduak. Gauza onekin badakit disfrutatzen baina ezer gutxiarekin ondo nago. Dinaren *hobby* handiena bazkalondoa edo afalondoa zen. Kafe beroa hartu eta bi ordutara kafe berarekin jarraitzen zuen. Zer dago jendearekin konpartitzea baino gauza hoberik? Nik orain, etxekoekin egon nahi dut, baiian muralak eta erretratuak egin, ariketa fisiko eta margogintzako ikastaroak eman eta furgoneta hartu eta bidaiatu ere bai, ahal bada, motorra duen bizikleta ba-



ORAIN "Asko erakutsi dit eraman dudan bizimoduak. Gauza onekin badakit disfrutatzen baina ezer gutxiarekin ondo nago".



rruan dudala. Nomadagoa izan. Lehen kirolak ematen zidana orain muralak ekar dezatela. Hori da nire plana. ●

***Dina Bilbao.** Eliteko kirolaria eta abenturazalea izan zen, Kariberako

bidai batean desagertu zen.

***Nairobitarra.** 1980. urtean Tolosan sortutako kultur elkarte. Josu Iztueta, Angel Ortiz eta Manuel Mokoroak bultzatu zuten, bidaiatzeko grinetik eta asmo abenturazaletik abiatuta.



IBARRAKO

U D A L A

Ibarran euskaraz bizi nahi dugu.
Eta zuk?

San Bartolome plaza 2 20400 IBARRA Euskara Zerbitzua: 943 67 38 27 euskara@ibarra.eus www.ibarra.eus	<ul style="list-style-type: none"> • Bulego orokorrak 943 67 11 38 • Euskara Zerbitzua 943 67 11 38 • Udaltzaingoa 943 69 73 24 • Kukumiku Haur Eskola 943 67 02 84 • Kiroldegia 943 67 15 44 • Kultur Etxea 943 67 03 99 • Gizarte Zerbitzua 943 67 11 38
--	---



**Mondragon
Unibertsitatea**



LEARNING FROM REALITY



BERRITZAILEA

Mundu osora zabaldu den hezkuntza eredu propio eta berritzailea eraiki duen unibertsitatea.



PRAKTIKOA

Enpresari, errealitateari, atxikitako unibertsitatea. Gurean, <learning by doing> ez da eslogana, geure DNAn txertatu dugu, eta ondorioz, formazio dualean liderrak gara.



HURBILA

Lankidetzan aritu, batera sortu, elkarrekin jardun eta konfiantza giroan prestatzen diren pertsonak dira unibertsitateko protagonista.





KONPROMETITUA

Herrialde-proiektuarekin konprometituriko jende ekintzailea eta langilea ardatz duen kultura.

GURASOBAKARRAK HAUTUZ

“Txarra eta ona, dena intentsitate handiagoz bizi dugu”

Familiatz, azalpenak eman beharraz, topikoez, askatasunaz, kontziliazioaz, sareaz eta komunitateaz, erru sentimenduz, ekonomiaz, traba legal eta administratiboez, haurraren eskubide urraketez... solastatu gara, hautuz gurasobakar diren Argider, Junkal, Koldo eta Maitanerekin. “Epe luzeko maratonia da, eta ezinbestekoa da norbera ondo egotea”.

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ  GARI GARAIALDE

Garbi utzi nahi dut, guk lauok gure familia eredia aurrera eramanez ahal izan dugu egoera sozioekonomiko ona dugulako; gurasobakar izatea erabakitze askatasuna izan dugu gure ahalmen ekonomiko-sozialak ahalbidetu duelako”, dio Koldo Zabalak. Izan ere, panorama orokorra sarri bestelakoa da, asko dira prekaritatean bizi diren eta arazo ekonomiko larrietan erortzeko arriskua duten guraso bakarrek familiak, datuek adierazten dutenez. Azken finean, estatistikek gurasobakarren zaku berean sartzen dituzte hala izatea erabaki dutenak eta ez dutenak (bananduak, alargu-

nak...) eta definizioarekin bueltaka erbadabilta legegariak. Koldo Zabala bera ez da ohiko profila: kasurik gehienetan, emakumeak dira bikotekiderik gabe guraso izatea erabakitzen dutenak. Zabalak txikitatik zuen argi aita izan nahi zuela, adopzio bidez, eta aitabakar izan nahi zuela ere bazekien: “Prozesu guztia nire kabuz egin nahi nuen, nire modura eta nire kontrolpean, inoren menpe egon gabe, bikotekiderik gabe”. Duela sei urte, egun batetik bestera iritsi zen irundarraren bizitzara Kaiet.

Gainerako solaskideak amabakarrak dira, estatistiken isla. Generoa ote du guraso izateko desirak? Maitane Mari-

torenak betikoa du ama izateko pentsamendua, “baina ez dakit zein punturaino den nire baitatik libreki erabakitako zerbait, eta zenbateraino den emakume naizelako gizarteak buruan sartua. Zaintza emakumeoi dago lotuta eta haurrak izatera bideratzen gaituzte txiki-txikitatik; adin batetik aurrera ‘amatasun instintuaren’ inguruan galdetzen digute (galdetzen al da aitatasun instintuaren inguruan?) eta gero, berriaz, ‘arroza pasatu’ zaigula esango digute”. Maritorea Aniz herrikoa da eta duela hiru urte izan zuen Eihartze: “Nire kasuan, prozesua di-da izan zen, Osasunbidean”.

EZKER-ESKUIN: Maitane Maritorea, Koldo Zabala Kaietekin, Junkal Lekuona Lur eta Maddirekin, eta Argider Mujika. Haurra jaiotzen delarik, beraz zaintzeko bi gurasodun familietan bikotekide biei batera dagokien egun kopurua eskatzen dute gurasobakarrek ere, baina badirudi aldarrikapen historikoari ez diola bide emango Espainiako lege berriak.



Gizonek, kasu honetan, zailago dute emakumezko bikotekiderik gabe guraso izatea. Eta atzera begira jarriz gero, adoptatzea bera ezinezko zuten duela zenbait urte. Zabalak uste du bera izan zela haurra izan zuen lehen aitabakarra Gipuzkoan. “Gizartea aurrera doa, eta legedia, atzetik, baina aurrera doa baita ere. Adopzioa planteatu nuenean, nazioartean lau estatutan baino ezin nuen prozesua hasi, eta Espainiako Estatuan ere banuen aukera, nik Espainiakoan abiatu nuen. Bertan, adoptatzerako orduan legearen aurrean berdinarak gara familia guztiak, beraz ez nuen zailago izan gizon bakar izateagatik, baina urteak itxaron behar izan nituen. Beti esaten zidaten, ‘argi izan koskortutako haur bat iritsiko zaizula’, eta hara non bi hilabete pasatxo zituen haurra egokitu zitzaidan”, kontatu du Zabalak.

ETA AITA NON DU UME HORREK?

Gurasobakarrak –batez ere amabakarrak– ikustera ohituago egongo gara gaur egun beharbada, baina oraindik ere familia tradizionala nagusi da gure iruditerian, subkontzientean eta gizartearen logiketan. “Parkean, pediatran, guraso elkarteetan... gehiengo handia amak dira, baina inork ez du pentsatzen amabakar izan daitezkeenik, aurreikusiten dute gizon bat dagoela, aita bat dagoela. Existitzen ez den figura hori beti hor dago, beti galdetzen dizute hargatik, familia tradizionalaren eskeman ez bazara sartzen beti dago galderaren bat”, dio Maritorenak. Are gehiago, haurra Maritorenaren anaiarekin dagoelarik, esaten diote “zu aita bezala”, eta bera osaba dela erantzuten die. “Jendeak familia tradizionala du ardatz: behar ditu amaren eta aitaren figura. Zeren gizartea ez zaigu esaten ari gure haurrak bi erreferente behar dituela, esaten ari zaigu andrea eta gizona behar dituela, erre-



Maitane Maritorenak:

**“Amatxi esplotatuen afera
ikaragarria da, gainera
irudi du gustuz egiten
dutela. Nik nahi dut gure
ama haurrarekin egotea
disfrutatzeke, ez zaintzeke”**

ferenteak pila bat dituelako inguruan gure haurrak”. Argider Mujikak beste adibide bat jarri du: “Niri askotan gertatu zait seme-alabekin oportetara joan eta jendeak galdetzea, ‘senarra lanean?’. Inork ez du pentsatzen agian beste emakume batekin nagoela, edo bakarrik”. Hiru seme-alabaren ama da lazkaotarra: 12 urteko Araitx eta 10 urteko Izei eta

Eñaut bikiak. Unea iritsi zitzaionean, bikotekiderik gabe zegoenez bakarrik egin zuen aurrera eta intseminazio bidez izan zituen, pribatuan. Duela urte gutxiko beste adibide bat ere eman digu: “Ikastolan familia ereduak lantzen hasi eta liburuxkan ‘aita’ eta ‘ama’ laukitxoak zituzten prest, argazkiak jartzeko. Libre utzi beharrean, norberak berea osatzeko, horrela bideratzeak zein zentzu du? Bi ama edo bi aita dituen ere kanpoan geratzen da, besteak beste”.

Hariari heldu dio Zabalak: “Familia instituzio bat da eta instituzio hori normatibizatuta dago: emakumea, gizona eta txikia(k). Hortik ateratzen den guztia anormalizat jotzen da eta galderak eragiten ditu. Galderak egitea nik ez dut gaizki bizi, baldin eta errespetuz egiten badituzte, eta aintzat hartuz denok dugula intimitaterako eskubidea: nik kontatuko dut nahi dudana arte, eta gauza batzuk gordeko ditut gure familiarentzat, gure historia baita. Egitura normatibiza-

**BERTAKOAK
BERTATIK**



ANOETAKO
UDALA

**BASERRI BIZIAK
DENDA BIZIAK
HIZKUNTZA BIZIAK
HERRI BIZIAK**

tu horretatik ateratzen garelako ez dugu zertan azalpenak eman, garrantzitsua da nabarmentzea”.

Azalpenak seme-alabentzat izan ohi dira. Umeak koskortuago ditu Mujikak, baina ez diote “aitagatik” galdetu, “natural bizi dute, jendeak aldiz askotan galdetu dit, ‘haurrek ez dizute aitagatik galdetu?’”. Koldo Zabalarai Kaietek bai galdetu zion, bi urte ingururekin, ea ama non zuen, “Bi urte baino ez zituela, bere sozializazio prozesuaren bidez jada ulertu zuen familiaren instituzioa amak eta aitak osatzen dutela. Haurreskolara joaten zen eta haurreskolara umearen bila joaten ziren gehien-gehienak amak ziren. ‘Denek dute ama, non dago nirea?’, arrotza egiten zitzaion. Kaieten lagunei ere beti sortu die jakin-mina, non du ama? ‘Ama hil al zaio Kaieti?’ da umeek sarri galdetzen dutena. Denei erantzun bera ematen diegu: Kaietek ez du amarik, emakume baten sabeletik jaio zen, baina emakume hori gaixo zegoen, ez zen Kaiet zaintzeko gauza, eta ni bere aita izateko beso zabalik nengoen, itxaroten”. Umeei normaltasunez azalduta, naturaltasun osoz hartzen dutela gehitu du Mujikak. Gainera, adinekoek agian ez, baina belaunaldi gazteek errazago ulertuko dutela aipatu du. Kontrakoa uste du Maritorenak: “Helduek aiseago ulertzen dutela iruditzen zait, amabakarrak beti izan direlako, eta hain justu adin batetik goitiko jendeak esan izan dit ‘biba zu, nik gauza bera eginen nuen’, erranez bezala ‘ez oraingo senarrarekin’. Eta aldiz, gazteen artean asko ikusten dut ametsetako etorkizuntzat dutela maitasun erromantiko heterosexualaren ideala”.



Koldo Zabala:

“Galderak egitea ez dut gaizki bizi, aintzat hartuz denok dugula intimitaterako eskubidea. Egitura normatibizatutik ateratzen garelako ez dugu zertan azalpenak eman”

BAI AUSARTA!

“Zeinen ausarta!” da Junkal Lekuonak sarri entzun duena amabakar izateagatik, “baina zenbat emakume eta ama ikusten ditudan nik haurra bakarrik hezten ari direnak, bikotekidea izanda ere. Ausarta ni ez, ausartak emakume horiek, horrela bizi nahi dutenak. Gainera, ez gara ezer egiten ari duela 50-60 urte egiten ez zutenik: gure amona eta birramonek zenbat haur hezi zituzten bakarrik? Etxe horietan gizon bat zegoen, lan egin eta dirua etxera eramaten zuena, eta beraz esaten zen gizonak ateratzen zuela etxea aurrera, baina etxea aurrera ateratzen zuena emakumea zen”. Lekuonak 32 urterekin jo zuen Osakidetza, haurdun geratu nahian, eta hiru urte geroago bukatu du prozesua, itxaronaldi luze baten ostean; “pentsa, zerrendan sartu ninduen ginekologoak esan zidan oso gaztea nintzela, eta aldiz, azken intseminazioa egin nuen pentsatuz hortik gutxira agian nire obuluak zaharrak izango zirela”. Urtebete dute Lur eta Maddi bikien ama da irundarra.

Etxeko heldu bakarra izatea askatasun handiz bizi du Lekuonak: “Erabakiak bakarrik hartzea izugarritzko askatasuna da”. Aldi berean, baina, “eskuak behar ditut eta eskuak falta zaizkit, bi haur batera izateak gaintu egin nau, besteen laguntza ezinbestekoa dut une askotan, oso mugituak direlako, eta bai fisikoki eta bai emozionalki haurrak ondo egoteko eta ni ondo egoteko babesa behar dudalako”. Pixkanaka trikimailuak ikasiko dituela esan dio Mujikak: “Zenbat arropa zabaldu ote dudan nik,



Dastatu betiko esnearen zaporea



EUSKAL HERRIA
esnea

www.euskalherriaesnea.com · arreta@euskalherriaesnea.com · 618 829 964

bikietako bat bizkarrean lotuta eta bestea hanketan nuela; lurrean ere asko uzten nituen; bi haurrak bularrean aldi berean jartzen ere ikasi nuen...". Solaskide guztiak, dena den, bat datoz: inguruan sare bat, komunitate bat izatea inportantea da.

NOLA KONTZILIATU, AMONA ESPLITATU GABE

Kontziliazioaz galdetuta, zailtasun eta oztupo betetako kontakizunak espero zituen kazetari honek, baina bestelako erantzuna eman dute solaskideek: "Gurasobakar izatea erabaki dugunok horretan guztian aurretik asko pentsatu dugu; ongi hausnarturiko erabakiaren ondorioa izanik, kontziliaziorako moduak ere aurreikusi ditugu", diote, denek jo baitute lanaldi murriztura eta eszedentzietara, aurretik diru poltsa bat eginda edota soldatari jandako diruarekin kalkuluak aterata. Argi baitiote: ez dute ume bat ekarri zortzi orduz lan egin eta beste norbaitekin edo beste nonbait uzteko. Adibiderako, Zabala-ren hitzak: "25 urte nituela hasi nituen adopzio tramiteak, adoptatzeko behar duzun gutxieneko adinarekin, eta Kaiet iritsi zen 31 urte nituenean, beraz sei urte izan nituen prestatzeko. Etxea, lana... dena oso egituratua nuen, momentua ailegatzen zenean adopziokoek atzera bota ez ziezadaten. Dena ondo lotua nuen eta ideiak garbi, ni egongo nintzela hor Kaiet zaintzeko. Soldataren parte handi bati uko egiten diot, murriztua dudalako eta udan adibidez eszedentzia hartzen dudalako, baina oso pozik bizi naiz egunero txikia eskolan utzi eta jasotzen, eta asteburuak eta oporrak elkarrekin pasaz". Gainera, sare



Junkal Lekuona:

“Zenbat emakume eta ama ikusten ditudan nik haurra bakarrik hezten ari direnak, bikotekidea izanda ere. Ausarta ni ez, ausartak emakume horiek”

familiar txikia duela dio, eta duen sarea ulertzen duela Kaieten aberastasunerako, ez hainbeste zaintzari begira. "Kaieten amonak badaki berarekin egon nahi duenean esatea besterik ez duela eta elkarrekin egon daitezkeela, baina ez duela egunero 16:30ean eskolako atera joan behar umea hartzera".

Hain justu, kontziliatzeko aiton-amonak baliatzeaz gurasobakarrei soilik ez,

bikoteei galdetu behar zaiela nabarmendu du Maritorenak: "Amatxi esplotatuen afera ikaragarria da, eta gainera irudi du gustuz egiten duten zerbait dela, 'haurrarekin egon nahi dute', baina ez, obligazioz egiten dute. Koldok bezala, nik ere nahi dut gure ama haurrarekin egotea disfrutatzeko, ez zaintzeko. Eta solasaldi honetara etortzeko edo beste zerbaitetarako haurra norbaitekin utzi behar dudalarik, jendeak galdetzen dit, 'Ze, haurra amatxirekin?', bada, ez, zergatik utzi behar dut amatxirekin? Nik bertze gisan eraiki dut sarea inguruan, anai-arrebek eta lagun taldeak aspaldi izan zituzten umeak, beti egon naiz hurrez inguratuta, eta orain gure hurrez bertze haur eta helduak arduratzen dira

baita ere. Herri txiki batean bizitzearen abantaila da, herriko komunitatea eta sarea ditugu oinarrian".

Garai batean sareak zuen garrantzia azpimarratu du Mujikak: "Belaunaldi ezberdinak bizi ziren etxe bakarrean, eta baserrietan esaterako, ume asko izaten zirenean, ez zegoen emakume bakarren figura, inguruko emakume mordoxka zegoen haren bueltan". Diskurtsoa eraiki dugu, baina praktikan lehen zaintza eta komunitate sarea orain baino aise handiagoa zela uste du Maritorenak: "Parkeetan, gurasoa eta bere seme-alabak, hori da ikusten dena, eta beste ume batek zerbait egin badu nik ez diot ezer esango, harenak dira-eta... Heziketa oso indibidualizatua ikusten dut".

NORBERAREN DESKANTSUA

Junkal Lekuonak bai du amarengana jartzeko joera, aita duela gutxi hil zitzaion eta bi txikiak denon bizipoza direla dio.



Inguruan laguntzeko prest dagoen jende ugari du gainera. Halere, bikiak izanik bi ume batera utzi behar izateak kontzientzia karga eta erruduntasun sentimendua sortzen diola aipatu du: "Hain txikiak izanik, amarekin ezin ditut biak utzi, bi pertsona deitu behar izaten ditut, eta kosta egiten zait uztea, gauza asko egiteari utzi diot horrexegatik, tartean ezinbesteko nituen bi: kirola eta loa". Norberak lo egitea eta deskantsatzeko aukera izatea zeinen inportanteak diren azpimarratu du Mujikak: "Hau epe luzeko maratoni bat da, pixkanaka eta egunero egin beharrekoa, eta ezinbestekoa da norbera ondo egotea". Berari ere asko kostatu zaio norbere aisialdirako edo bestelakoetarako umeak uztea, hiru seme-alaba uztea ez delako erraza.

Gurasotasuna gogorra baita, eta ederra. "Bakarrik egoteak egiten du dena intentsitate handiagoz bizitzea, ona eta txarra -kontatu du Zabalak-. Banekien umea etortzerako ez nuela nire buruarekin gazte garaiko zorrik nahi, aurrez egin beharrekoak egingo nituela, gero txikia etortzean *impasse* bat izango nuela Koldo bezala, eta gaur egun edo txikiarekin edo lanean ematen dut denbora, kirol pixka bat egiteko tartea ere ateratzen dut, baina haurrarekin egoteak, denbora horretan inbertitzeak, bueltan gehiago ematen dit, lehengo bizimodura bueltatzeak baino. Nik erabaki dut horrela egitea eta pozik nago horrela nahi dudalako, ongi bizi dut. Gainera, txikiak



Argider Mujika:

"Sareak lehen garrantzi handia zuen. Ume asko izaten zirenean, ez zegoen emakume bakarraren figura, inguruko emakume mordoxka zegoen haren bueltan"

koskortuko dira, eta beste fase batean sartuko gara".

Maritorenak ere utzi dio hainbat gauza egiteari, baina kultur taldean, literatur taldean eta bestelakoetan dituen konpromisoei eusten saiatzen da, orain bilerak (ordutegia, lekua) moldatuta. "Inportantea iruditzen zait norbere buruarentzat

denbora hartzea, eta umearekin egunero nago, baina larunbatean sagardotegira noa eta haurra koinatarekin utziko dut inongo erru sentimendurik gabe".

LEGEA, BUROKRAZIA ETA ESKUBIDE URRAKETAK

Zaintzarako lanari kentzen dizkioten orduak orekatzeko dirulaguntzarik ez dute gurasobakarrek. "Gurasobakarrek izateagatik ez dugu dirulaguntza berezirik, denek dituztenak ditugu, baina batzuetan, gurasobakar izateagatik, ratio handiagoak ditugu", dio Zabalak. Adibidez, bi gurasodun familietan umeak 3 urte eta erdi bete arte hilero 200 euro kobratu ditzakete EAEn, eta gurasoba-

karrek haurrak 12 urte bete arte, "baina orokorrean, ordain ekonomikoa ez da handia". Nafarroan dirulaguntza hori ez dutela gehitu du Maritorenak. Hainbat tasa eta abarretan beherapenak dituzte, hori bai, eta udal batzuek deskontuak eskaintzen dituzte gurasobakarrentzat, udal zerbitzuetan.

Eska delo argi dute. Gainera, administrazioarekiko harremana ez da ona, hainbaten kasuan. Errenta aitortpena kari, esaterako, telefonoz deitu zioten Maritorenari, eta bizpahirutan errepikatutako behar izan zuen umearen aitari ez zela existitzen, langileari ez baizitzaion buruan sartzen amabakarra zenik, bannandua zegoela ulertzen zuen.

Espainiako Gobernuak aurreko lege-gintzaldian egosi eta honakoan aurrera atera dezakeen Familien Legeak gurasobakarren egoera zerbait hobetuko



Etorkizuneko etxea Jasangarria da, Orkli da



www.orkli.com



**EGUZKI
IRTENBIDEAK**



**ZORU
IRRADIATZAILE/
FRESKAGARRIA**



AIREZTAPENA



**BERO-PONPA +
AIREZTAPENA
Pkom⁴**




du agian, baina esanguratsua da, Hego nahiz Ipar Euskal Herriko amabakar eta aitabakarren aldarrikapen historikoa ez du jasoko legeak, printzipioz: haurra jaiotzen delarik, amatasunari dagokion baimena ematen zaie gurasobakarrei, baina bi gurasodun familietan bikotekide bie batera dagokien egun kopurua eskatzen dute gurasobakarrek. Seme-alabak 8 urte bete arteko zaintza baimen berrietan ere, berdin gertatzen da. Azken finean, gure solaskideek ulertzen dute baimen hori jaioberriarengan pentsatutako baimena dela, eta haren esku-bidea dela guraso bat ala bi izan, hilabete kopuru berean zaindua izatekoa ama edo aitarengandik. Hain justu, justiziara jo duten gurasobakar ugariri arrazoia eman die epaileak, bestela haurrak tratatu diskriminatzailea jasotzen duelako. Eta zer argudiatu du PSOEek, aldarrikapen horri bide ez emateko? Bada, amabakarren kalterako litzatekeela, gurasotasun baimen luzea aurreikusiz hainbat enpresak ez litzateketelako kontratatuko. “Hori tranpa da –dio Maritorenak–. Haurra baldin badago erdigunean, argi dago berdintasunaren izenean ez dutela egin. Eta planteamendu horren arabera, emakume izatea bera da kalterako, hamasei aste ez, bederatziz hilabete baxa ere izan dezakezulako haurdunaldian”. Bikotekidea zaintzeko baimenak ere badirela eta gurasobakarrek ez dituztela horiek baliatzen, hori ez du kontuan hartu PSOEek, nonbait. Amorrua aipatu digu Lekuonak, bi haur batera izan eta zaintzarako bi gurasodun familiek baino epe gutxiago izan duela gogoratzen duenean. Are gehiago, haurreskolara lehenago joateko aukera bermatuko die lege berriak gurasobakarrren umeei, baina ozen diote: eskatzen dutena ez da haurreskolara bidaltzeko abantaila, etxean gainerakoen epe berean zaintzeko aukera izatea baizik.



Ageriko beste diskriminazio bat, hori bai, ezabatuko du lege berriak, itxuraz: bi guraso eta bi umek osaturiko familia, familia ugaria da legez; guraso alargun bat eta bi umek osatutakoa baita ere; baina gurasobakarra eta bi umek osaturiko familia ez da familia ugarizat hartzen. “Esaten dute legeak onartuko gaituela familia ugari gisa, ikusteko dago”, dio Lekuonak, eta administrazioetik harago, erakunde pribatuetan ere jarri du fokua: “Jolas-parke batera joan eta nire aurrekoei deskontua egin zieten, familia ugaria zirelako; esan nien bi umedun amabakarra naizela eta familia ugaria garela gu ere, baina aitzakiak jarri zizkidaten bata bestearen atzetik; erabakia, ordea, beren esku dago”.

Gurasobakarrak eskubidetan eta dirulaguntzetan ez diskriminatzen neurriak hartu behar direla dio Familien Legeak, baina eskubide horiek bermatzeko mekanismo zehatzak falta direla kritikatu du Hautuz Amabakarren Federazioak (bertako kide da Junkal Lekuona). Bes-

teak beste, aldarrikatu dute bi gurasoak lanean aritzeagatik familiek dituzten eskubide berak izatea guraso bakarrek familiek, desgaitasunen bat duen seme-alaba eta guraso bakarrek familiek familia ugarizat hartzea (legez hala egiten delako desgaitasuna duen seme-alaba bakarra eta bi gurasodun familien kasuan), eta errenta aitortpenaren aldaketak egitea, “gurasobakar izateagatik arlo ugaritan zigortzen gaituelako”.

“Zuk erabaki duzu amabakar izatea” ere entzun behar izan du baten batek –“hor konpon” tonuan, alegia–, eta erantzuna prest dute solaskideek: hala hautatu izanak ez du esan nahi eskubiderik ez dutenik, familia ugaria izatea erabaki duenak eskubide aitortuak dituen gisan. Azken finean, zer esanik ez bizi ditugun krisi demografiko garaiotan, neurri estrukturalak eskatu dituzte, haurrak ekartzea, zaintzea eta haztea erraztuko dutenak, jaiotzen diren familia ereduari jaiotzen direla. ●

ararteko

HERRIAREN
DEFENDATZAILEA



arartekoa@ararteko.eus
www.ararteko.eus

ARABA

Prado, 9
01005 VITORIA-GASTEIZ
☎ 945 13 51 18 - Fax: 945 13 51 02

BIZKAIA

Albia Eraikina
San Vicente, 8-8. solairua
48001 BILBAO
☎ 94 423 44 09 - Fax: 94 424 18 44

GIPUZKOA

Arrasate, 19-1
20005 DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN
☎ 943 42 08 88 - Telefax: 943 42 72 97



BERTAKO -rekin, BAI!

Euskara da gure territorio
libre bakarra

bertako

igogailuak | ascensores

ARABA 945 712 822 **NAFARROA** 848 870 917

GIPUZKOA 943 903 450 BIZKAIA 946 523 935

WWW.BERTAKO.EUS



2019. Munduko Emakumeak-Babel kulturarteko elkartearen batzarra Bilbon. Astelehenero bezala, aurkezpen errondan taldekideek euren izena, jaioterrria, dakartzaten sentipen eta ezinegonak aipatu dituzte. "Ana. Medellin, Kolonbia". Ile kizkurra, *septuma* eta pastazko betaurrekoak ditu neska gazteak. Barruak oso mugituta dator jaioterrira egindako bisita baten ondoren, eta proposamena bota du: migrazio-doluan elkar laguntzeko talde bat sortzea.

2024. Ana Caonak bere etxean hartu gaitu bere historia kontatzeko: sozio-logoa Euskal Herrira iritsi zen master

bat egitera, beka batekin, bisarekin eta Kolonbiara itzultzeko asmoz, han indarkeriaren behatoki batean egiten baitzuen lan. Baina aitaren heriotza eta nebaren erasoak pairatu ondoren, Bilbon geratu zen doktoregoa abiatzeko xedez.

Arazoa izan zen familia-gatazken-gatik migratu eta doluak antsietatea eragin ziola eta, ondorioz, doktoresia aurrera ateratzea eragotzi ziola. Geroztik, lan prekarioak kateatu ditu: ostalaritzan, kirol megadenda ezagun batean eta, gaur egun, laguntza humanitarioko gobernu kanpoko erakunde baterako bazkideak erakartzen. Ahidu-

ra, segurtasun falta eta zaurgarritasun sentsazioa ditu: "Hemen ezer ez dudala sentitzen dut. Zer egingo dut etxerik gabe geratzen banaiz? Kolonbian beti izul nintekeen familiaren etxera, baina jada ez daukat aukera hori".

Caonak gustuko du migrazio-doluaz aritzea, kontzeptua bera –pertsonek migratu askok ezagutzen ez dutena– tresna baliagarria iruditzen baitzaio sentipen horiek izendatzeko. Munduko Emakumeak bezalako talde-espazioek bere minak partekatze balioko izan diote, baina baita "erlatibizatze ere, zilegitasuna kendu gabe", beste istorio batzuk entzuteari esker.



MIGRAZIO-DOLUA

HERRIMINA TRAUMA BIHURTZEN DA

Herrialde berri batera moldatzeak dakarren astindu identitarioaz gain, migrazio-bidaietan eta bertan aurre egin behar dieten indarkeriek oztopatzen dituzte etorkinen bizipenak. Psikoterapia da ondoeza sendatzeko bide bat, baina ez bakarra.

 JUNE FERNANDEZ  SUSANNA MARTIN

"LEHEN NINTZEN HORI JADA EZ DA EXISTITZEN"

Javiera Olfos Emuna Aüka Donostiako psikoterapia-kabineteko kidea da. Ikuspegi psikosozial, humanista eta transfeministatik egiten du lan, pertsona migratuei laguntzen espezializatuta dago, eta indarkeria politikoko egoeren zein hondamendien ondoriozko errefuxiatuak aratzeko prestakuntza egiten dabil, baita *gestalt* arteterapia ere. Txiletarra jatorriz, bera ere ikasle etorri zen eta bere herrialdera itzuli ondoren, Gipuzkoan bizitzea erabaki zuen. "Ez nintzen migratzaile gisa identifikatu burokraziarekin etengabe topo egiten hasi nintzen arte".

Olfosek honela definitzen du migrazio-dolua: "Zure nortasunaren berezko zatiei uko egiten diezu eta hartzen zaituen kulturako elementuez jabetzen zara; baina, era berean, aldatu nahi ez duzuna definitzen duzu, zure identitatea lausotu ez dadin". Saioetan, "pertsonak dituen baliabideak identifikatzen" laguntzen du, eta "autoerregulazio-tresnak" ematen dizkio. "Galerak eta kontserbatzen duena identifikatzen ditugu. Dolua bere bizitzan integratzeko zer neurri har ditzakeen doitzen dugu -adibidez, amak egiten zidan jantzia prestatzea- eta gure kontrolpean ez dagoenaren aurreko mina nola adierazi ikusten dugu", jarraitu du.

Nathalie Bejarano Castro psikoterapeutak gestalt feminista eta antiarrazista jorratzen du, psikogorputzaren lanketan eta migrazio-doluan espezializatuta dago, eta horrek balio izan dio berea lantzeko, Ekuadorko migratu gisa: "Migrazio-prozesuak desegituratu egiten zaitu, eta, aldi berean, gehien egituratu nauena izan da. Landare bat lekuz aldatzen duzunean bezala, bidaiaren mina ulertzeak lur berri hau elikatzeke aukera eman dit".

Kontsultako lanaz gain, gai horri buruzko tailerrak dinamizatzen ditu. Banakako saioetan migrazio-dolua landu duenean pertsonak ez ziren, oro har, eskari

esplizitu horrekin heldu: "Gorputzaren seinaleak edo ondoez zehatzak adierazten dituzte, zeinak arindu nahi dituzten, eta orduan azaleratzen da sorterritik urrun egoteak nola eragiten dien".

"Doluminean zaudenean, zerk ematen dizu min?", galdetuko die psikologoak. Eta bere bizipena partekatuko du: "Lehenik eta behin, neure nortasunaz dolutzen naiz; migratzen dudanean barne-doikuntza bat dago, zentzu guztietan eraldatzen nauena. Lehen nintzen pertsona hori jada ez da existitzen".

Taldeetan, haien pertsona maiteen hutsunea nabaritzen dutela adierazten dute bereziki parte-hartzaileek, baina baita "gizartean errekonozituta sentitzea, leku batean ibiltzea eta parte direla sentitzea" ere, azaldu du. Hizkuntza aipatzen dute: ez menderatzeak eragiten duen segurtasunik eza, eta Abya Yalatik datozenen kasuan, azentua, lexikoa, jargoia eta umorea galtzea. Halaber, sorterriko paisaiak, ohiturak, bizimoduak eta espiritualtasuna bizitzeko hutsunea nabaritzen dute. "Galera piloa da bat-batean, eta etengabe eguneratzen den dolua da gainera", ondorioztatu du.

Olfosek dolua eguneratu ohi duten bi gertakari nabarmendu ditu: alde batetik, hurbileko pertsonen heriotzak jatorrizko herrialdeetan, are gehiago ez badago aukerarik horiek agurtzera bidaiatzeko, egoera irregularrean daudelako, dirurik ez dutelako, edo lanean baimena eskatzeko eskubidea dutela ez dakitelako. Bestalde, beren lurraldera bisitan joan daitezkeenek "inguruarekiko nostalgia" sentitzen dute askotan: "Ni aldatu naiz eta hor denak berdin jarraitzen du. Orain europarra naizela azpimarratzen didate. Jada ez naiz ez hemengoa ez hangoa", txiletarrak azaldu duenez.

Bejaranok estatus sozialaren galera

Elkarrizketatu guztiak bat datoz esatean migrazio-dolua azaleratzen dela pertsonak egonkortzen direnean: "Fokua biziraupenean jarrita duzun bitartean, ondoez emozionala estaltzen saiatzen zara"

gehitu du, "jatorrian ondutako lanbideak hemen baliorik ez duen sentsazioa". Oso ondo ezagutzen du hori Caonak: "Unibertsitateko espazio batetik kalean lan egitera pasatu naiz, jende askorentzat baliorik ez duen zerbaitetan. Lotsa handia ematen zidan jende ezagunarekin topo egiteak". Bere beldurra bete zen: "Feminista zuri batek *pringada* deitu zidan literalki. Izoztuta geratu nintzen. Hain bortitza egin zitzaidan...".

Frustrazio horretaz gain, Olfosek ikasketen homologazio-prozesuen aurreko ziurgabetasuna gehitu du: "Ahalegin energetiko, emozional eta ekonomiko bikoitza egin behar izan nuen Txilen gauditutako irakasgaiak baliozkotzeko. Herrialdeen arteko hitzarmenen arabera, homologazioek hiru urte iraun dezakete, eta horietan beste plan batzuk asmatu behar dituzu bizirauteko, zure helburuetatik eta motibazioetatik urrun".

Soziologiako titulua homologatu bitartean, Munduko Emakumeak-Babel erakundeko kideak GKE-ko lana eta Gizarteratze ikasketak uztartzen ditu. "Gi-

zarte honetan, lanbideak baliozkotzen zaitu. Nahastu egiten da zer egiten duzun eta nor zaren", azaldu du.

Edonola ere, beren pribilegioak airtortzen dituzte Caonak eta Olfosek: migrazio-proiektua hasteko erabaki librea hartu zuten, paperak dituzte, goi-mailako ikasketak, gaztelania hiztunak dira, azala argi dute, ez dute haurrik... Kontziente dira migrazio esperientzia orori datzekion dolua gogortu egiten dela arraza-traumak gehitzen zaizkionean.

"BELTZ BAT NAIZ"

Marra Junior militante panafrikarra eta Munduko Medikuek erakundeko langilea da. Bejaranoren tailerren erreferentzia eman zigun. Lan finkoa, afektusarea eta nolabaiteko errekonozimendu soziala duenetik, ez ditu hasierako indarkeria berberak bizi, "baina bai horietako asko".

Arrazakeria-esperientziei buruz hitz egiten duenean, ez da ulertua sentitzen: jende zuriak indarkeria horiek minimizatzen ditu, Senegalen dauden senideek ez diote kexatzeko eskubiderik ematen, eta Bizkaian dituen herrikideek uste dute diskriminaziorik gabe bizi dela. "Lankide *mantero* bati kontatzen badiot niri ere kosta egiten zaidala etxebizitza bat alokatzea, ez du sinestuko".

Juniorri gertatu zaio poliziak bulego atean arbitrarioki miatzea, eta bidegabea bazen ere, berak sentitza lotsa, lankideek ikusi eta zerbait egin duela pentsatuko duten beldur, gainera. Anbulatorkia joan denean Munduko Medikuek-eko langile gisa analitika batzuk jasotzera, artatu duenak elkartera deitu du mesfidati, haren identitatea egiaztatzeko: "Beltz bat etorri da zuen partetik".

Esperientzia etengabe horiek estres kronikoa ezartzen diete gorputz arrazia-

BISITA GIDATU BERRIAK USURBILEN



IZEN-EMATEA
6504usurbizibizi.eus



SALBATORE ELIZAREN ONDAREA



MUSEO IREKIA



ZAINITZA



ZERO ZABOR



lizatuei, Bejaranok azpimarratu duenez: "Jarrera eta diskurtso sozial arrazisten erruz, mediatikoak barne, nire autokontzeptua gutxietsiko dut, eta horrek autoestimuan azterna sakona utziko du".

Berez hermetikoa den gizarte batek mesfidantzaz begiratuko die desberdin edo are mehatxagarritzat jotzen dituei, generoaren eta jatorrizko eskualdearen arabera ñabardurak badira ere: "Iruditeria arrazistan, gizon arrazializatuak lotzen dira arriskugarritasunarekin, jokabide antisozialekin eta delinkuentziarekin. Emakumeak otzantzat hartzen dira, proiektu propiorik gabekoak. Fetitxizazioa ere badago, exotizazioa. Azkenik, pertsona etorkin ez binarioak ikusezinak dira", laburbildu du psikologoak.

Arrazakeria sozialari instituzionala gehitzen zaio: "Migratutako pertsonen harremanetan dauden hainbat agentek indarkeria erreproduzitu dezakete: osasun-arloko profesionalak, segurtasun-indarrak, atzerritartasun-bulegoetako funtzionarioak... Nor bere buruari galdetzen diogu: "Zenbat urte igaro behar dira nik leku honetan bizitzeko eta lan egiteko zilegitasuna izan dezadan?"".

Zenbait kasutan, arraza-traumari migrazio-proiektuari dagozkionak gehitu behar zaizkio. Ez da gauza bera hegazkinez edo pateraz etortzea, maitasunak edo ikasketek eraginda, behar ekonomikoak bultzatuta, hondamendi naturalek, gerrek, diktadurek edo indarkeria matxistako egoera batek behartuta. Juniorren esanetan, abiapuntu horrek zehazten du doluak izango duen intentsitatea eta konplexutasuna: "Zailenak beren herrialdea uztera behartuta sentitu diren pertsonenak izaten dira: beldurraren pertzepzio subjektiboa dute edo badakite kontua dela irtetea edo hiltzea". Txa-



lupan etorri zen aktibista panafrikarra orain dela hamazazpi urte, eta aitortu du oso kide gutxi direla bidaia horiei buruz hitz egiteko gai.

Olfosek gaineratu du errefuxiatuen egoera bereziki mingarria dela: asilo-estatusak galarazi egiten du jatorrizko herrialdera itzuli ahal izatea, hortaz, pertsonak ezin izango dute familia bisitatu, ez bada aldameneko herrialdeetan elkartzeko estrategiak asmatuta.

Migratzaileen estresak ez du soilik eragiten maila psikologikoan -depresioa izateko aukera handiagoa, hiperjagole egoteko antsietatea, insomnia...-, baita fisikoan ere, nabarmendu du Bejaranok: "Hormonak etengabe askatzeak,

kortisola edo adrenalina kasu, somatizazioak ekar ditzake: ondoez kronikoak, gastrikoak, larruazalekoak...".

Psikologo honek azpimarratu du halako somatizazioak areagotzen direla pertsonak bizi dituen esperientziak gorde behar dituela sentitzen duenean; hortaz, premiazkoa da bizipenak partekatzekeko gune seguruak identifikatzea.

AKTIBISMOAREN POTENZIAL TERAPEUTIKOA

Osasun mentalaren arreta pribilegio bat da gure gizartean; terapia psikologikoa ez da baliabide eskuragarria herritar guztientzat. Alde batetik, premia horren aurretik oinarrizkoak lehenetsiko dituz-

ZAINDU ERRESPETATU MAITATU

Egunero irekita
Urtaila - Abuztua
10:00h - 20:00h

www.aqvarivm.com

AQVARIVM



te: etxebizitza, elikadura, zaintza-ardurak... Elkarrizketatu guztiak bat datoz esatean migrazio-dolua azaleratzen dela pertsonak egonkortzen direnean: "Fokua biziraupenean jarrita duzun bitartean, ondoez emozionala estaltzen saiatzen zara", azaldu du Bejaranok. Aitzitik, "espazio seguru batean zaudenean eta zure nerbio-sistema lasaitzen denean agertzen dira minak", gehitu du Olfosek.

Beste muturrean, zaugarritasun bereziko egoeran dauden pertsonen errefuxiatuak, kale egoeran daudenak, salerosketaren biktimak...- laguntza psikologikoa eskaintzen diete zenbait programa instituzionalek. Psikologo txiletarrak Istanbulgo Protokoloaren bidez idatzi zuen kasu bat du gogoan:

"Poliziak sexualki torturatu zuen mutil bat zen, terapiara joaten ari zen asiloa eskatzearen ondorioz". Kasu latz horietan, psikologoak aisialdirako espazioak erraztearen garrantzia azpimarratu du, entretenimendu osasuntsua eta sarea indartu ahal izateko.

Banakako saioak ordaintzea gastu handia da migratutako pertsona gehientzat. Ana Caonak darabilen estrategia da Kolonbiako psikologo batekin online egitea. Tarifa murrizteaz gain, kultural-nortasuna partekatzea lagungarria izan daiteke. Juniorrek euskal psikologo batekin terapia utzi, eta orain terapeuta afrofrantses batek artatzen du online.

Diruaz gain, beste oztopo bat da psikoterapiaren inguruko estigma: "Lagun

askok oraindik terapia gaixotasun mentalarekin edo eromenarekin lotzen dute eta saihesten dute", aitortu du Bejaranok. Beste bide batzuei balioa ematen die, hala nola espazio erlijioso eta espiritualei. "Protesta sozialak terapia ordezkatzeko ez badu ere, batzuetan amorruari eta antzeko emozioei irtenbidea emateko balio du", gaineratu du.

Junior bide horren aldekoa da: "Aktibismoan ulertzen duzu arazoa ez zarela zu, baizik eta horrela sentitzea eragin dizuten faktoreen multzoa". Horregatik, funtsezkoa iruditzen zaio irakurketa politiko eta estrukturala egiten den guztiaren parte hartzea: "Ahalduntzeko aukera ematen digute, galdutako autoestimua berreskuratzeko aukera".



ARTAZA UREDERRA

Nafarroaren bihotzean
esperientzia berri bat
ezagutzeko aukera

Artaza Urederra kanpina
www.campingartazaurederra.com
646 957 225




*Ihes betea zilegi balitz,
nonbait balego bakea...*



Bejaranok dinamizatzen dituen saioetan, "taldea erresonantzia-kaxa bihurtzen da, eta harrera egiten dizu", nabarmendu du. Honelako esaldiak errepikatzen dira: "Hori gertatzen zitzaien bakarria nintzela uste nuen" edo "zama bakardadean eraman dut, nire ingurua ez kezkatzeagatik". Terapeutaren gomendioa da oraina artatzea eta norberaren barne-jakituria entzutea: "Sinpleena eraginkorra izan daiteke. Adibidez, naturara hurbiltzeak autozainketarekin eta nire alor espiritualarekin konektatzen nau. Saioetan lagun bakoitzak ongi sentitzen duena partekatzen du, eta gainerakoak aberastu egiten dira".

Edonola ere, nabarmendu du pertsona etorkinek kezka gehiago dituztela

“Landare bat lekuz aldatzen duzunean bezala, bidaiaren mina ulertzeak lur berri hau elikatzeke aukera eman dit”

Nathalie Bejarano


Psikoterapeuta

migrazioari lotutakoez gain. Hala, desirez, erotikaz edota biografiaz aritzeko garrantzia aldarrikatu du. Adibidez, jarri du inoren kargura ez dauden

mutil magrebtarren bizipena: "Haien arazo bakarria ez dira paperak. Nera-bezaroa indibidualtasuna berresteko prozesua da, eta horrek talka egiten du jendartearen begirada deshumanizatzailearekin. Adin horretan bereziki gogorra da inork zu ez begiratzea, arbuatua sentitzea".

Ez da kasualitatea erreportaje honetan elkarrizketatutako gehienak Abya Yalatic migratutako emakumeak izatea. Kultura terapeutiko handiagoari herri-hezkuntzaren eragina gehitzen zaio, irekitasun emozional horretara gonbidatzen baitu. Aitzitik, Juniorrek adierazi du aktibismo panafrikarrek espazioetan gutxitan heltzen zaiola migrazio-doluari, errebindikazio-dis-





kurtso gogorra gailentzen delako, "oso maskulinizatua, Malcom X bezalako erreferenteek eragindakoa".



Generoari dagokionez, elkarrizketatuak bat datoz: emakumeek, oro har, jarrera handiagoa dute lan introspektiboa egiteko, emozioak entzuteko eta adierazteko. Gizonen kasuan, berriz, indartsuak izateko aginduak –familia-hornitzaileen rolari lotuta maiz– oztopatzen du prozesu edo jarrera terapeutikoetara heltzea.

Juniorrek maskulinitate hegemonikoaren eredia deseraikitzeke lana egin du, erreferente antipatriarkalak lagun, akademikoak –bell hooks, Audre Lorde, James Baldwin...– zein egunerokoak. Hala eta guztiz ere, aitortzen du gehiago kostatzen zaiola bere emozioak eremu mistoetan biluztea, dinamizatzen dituen gizon arrazializatuen taldeetan baino. Kultura-desberdintasunei dagokienez, honako hau adierazi du: "Zaugarritasunetik hitz egiten duten gizon gutxi horiek latinoak izaten dira, eta ez dira guztiak".

Marra Junior militante panafrikarrak dio jende zuriak arrazakeria-indarkeriak minimizatzen dituela, Senegalen dauden senideek ez diotela kexatzeko eskubiderik ematen, eta Bizkaian dituen herrikideek uste dutela diskriminaziorik gabe bizi dela

Ana Caonak lengoaia bat aurkitu du "migrazio-doluaren zigilupean jarduera batera hurbilduko ez litzatekeen jendearekin konekatzeko" aukera eman diona: Abya Yalako musika erritmoak zabaltzeko eta aldarrikatzeko proiektu bat sortu du. Bere saioetan erritmo tropikal "historiko eta sustraidunak" jartzen ditu, espazio zuri zein latinoetan nagusitzen diren saltsa eta bachata komertzialetik haratago doazenak. "Gustuko dudan musika dantzatzeko premiatik sortu zen, baina proiektua berrantolatu dut instintiboki apustu politiko gisa: gozamenerako eskubidea eta gure nortasunak duintzeko". Saioetan solasaldiak dinamizatzen ditu, eta bertaraten diren etorkinei galdetzen die zein paper duen kunbiak haien jatorrizko herrialdeetan –Kolonbia, Mexiko, Argentina, Peru, Guatemala...–. "Dantzaldiaren ondoren, esaten didate: 'Eskerrik asko, behar nuen eta gozatu egin dut'. Benetan pozgarria eta sendagarria da niretzat". ●

Zumaia euskaraz bizitzeko da.





Hemengoak
izatea ona da

Bertako ekoizleekin konpromisoa

Hemengoak gara eta bertako produktuen
kontsumoa sustatzen dugu



EROSKI

zurekin



RUPER ORDORIKA

“Musikak erroreari zor dio ondo emandako notari bezainbat”

Aspaldidanik Saran bizi den arren, goiza Bidasoaren ibarrean pasa behar zuenez gero, Hondarribiko parte zaharrean zitatu gaitu Ruper Ordorikak (Oñati, 1958). Goiz eguzkitsuan, puntual eta irribarretsu agertu da maldan gora, konsistorioaren parera, turista gazte kuadrilla baten artetik igarota.

Hamarrak pasatxo, t’erdiak izatetik gertu: kafea hartzeko ordua. Muntatu berri duten terrazan hartu dugu eserleku, banatzaileen furgonetaz inguratutako plazan. Maiatzaren hondarreko txorien kantu leunen konpainian ekin diogu solasari, noizbehinka pasatzen diren hegazkin zaratatsuen azpian.

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Ruper bera hasi da galdeketan: “Eta zuek, nondik nora?”. Argazkilaria eta kazetaria, biak Gipuzkoako kostaldetik, turismoak dezente hartutako udalerrietatik; erantzuna. “Bai, bai”, buruarekin gora eta behera eginez berak, azukre poltsa astindu bitartean. “Hau ere bai”, dio, Hondarribiatik. “Eta beste aldean ere... Pf... Ikaragarria da”. Saran ere horrela al den, galdera. “Heltzen ari da”. Paristarrak, belgikarrak... Bere irudiko, ingeles hiztunak oro har kostaldean ari dira finkatzen –Hendaia aldera luzatu du besoa–, eta barrualderago frantsesak. “Gehienbat horrek aldatzen du bizimodua; *klaro*, jendea horretarako jartzen da lanean, sasoika, udan”. Horrelakoxea dela bizitza dio... “zuek badakizue ondo!”.

Esaten da, aspalditik, euskaldun jen-

dea joaten dela Ipar Euskal Herritik Parisera, Bordelera lanera, eta beste profil bat ailegatzeko dela.

Xiberoa osoan bizi den kopurua adina etortzen da urtero, zenbakiak badaude eginak. Eta ez dira etortzen ilargitik; etortzen dira Frantziatik, euren balore eta euren hizkuntzarekin, Euskal Herriko batera ezaguerarik gabe.

Daniel Landartek aipatzen zigun ARGIAN, garai batean Baxe Nafarroan dena euskaraz egiten zela, eta orain frantsesa gailendu dela. Laborantza kasik bazterrean geratzen hasia dela...

Oso gai zentrala da laborantzaarena, ze-

ren hizkuntzari estuki lotua den mundua baita. Orduan, mundu hori desagertzen denean, hizkuntza berarekin darama. Xiberoko gazteekin egoten zara eta esaten duzu: “Hizkuntza oso inportantea da, bai, baina ez du lanik Xiberoan”. Parisera joan behar du. Hori horrela, hizkuntza bigarrenengo planoan geratzen da.



“Gu bezalako euskal gaixook badugu gure ideia turistiko propioa. Iruditzen zaigu hau Axularren lurra dela eta bestea Etxahunena”

... eta etxaldeak milioi bat euroan salduak. Sud Ouest, hori da Frantziako Malaga bat, gure parametrotan. Horrek ez du atzerabiderik, ez du izango, demografikoki aldatetan da kostalde guztia. Han bizi diren etatik zenbat jende ez den hemen sortua...

Izen zaharrak abestian, Joseba Sarrionandiaren letran, aipatzen da merkatari aberatsek lurrak erosten dituztela.


Ez nuen nik kantu hori kantatzen Iparraldean. Iruditzen zait gu bezalako euskal gaixook badugula gure ideia turistiko propioa. Ez daukagu paristarren edo belgikarren ideia *côte Basque*-ri buruz, baina badugu hizkuntzaz. Iruditzen zaigu Bidasoaren alde hau Axularren lurra dela eta hura Etxahunena. Gure ideia turistiko kulturala eramaten dugu gurekin, eta ez dugu aintzat hartzen hango jendeak nola bizi duen bestelakotze hau. Batzuek minez, besteek ez dakit nola, mila modutan. Askotan jartzen dut adibidea: gure belaunaldiak horixe egin zuen erlijioarekin, guztiz bazter utzi. Gure aurrekoek ez zuten hori ulertzen. Orain idatzi du Pruden Gartzia liburu, nahi dut irakurri... Ba esandako modu berean: fedeak ja ez zion balio belaunaldi horri, hizkuntzak akaso orain ja ez die balio, eta abandonatuta dago. Aitaxi-amatxik egiten dute euskaraz Axularrek bezala, eta ilobek ez dakite deus.

Kantu hori bazter utzia zenuen, baina berreskuratu duzu disko berrian.

Hori kantatzea iruditzen zitzaidan beharbada kanpotik ari nintzela ikusten, eta gertatu zaidana da Iparraldeko jendeak eskatu didala kantatzea. Ohartu naiz nonbaiten ukitu egiten duela, sentitzen duela jendeak galera, sentsazio handiz gainera.

Bidasoa ibaia daukagu hemen. Muga administratiboa. Zenbat du muga mentaletik?

Beti horrela izan da, beti sentitu gara herri batekoak, berekoak, nahiz diferentzia horiekin. Txirritak kantatzen zuen "frantses euskaldun bat etorri zait ipintzeko



bertsuak", eta nik, mutikotan, Baxe Nafarroan nengoela, nire etxeko nagusien lagunek esaten zidaten "euskaldun espainola". Baina beti sentitu dute bi aldekoek herri berekoak garela.

Baina indartu ala ahuldu dela uste duzu? Nola bizi duzu?

Elkarri bizkar emanda bizi gara. Beste telebista bat ikusten dugu, beste musika

bat entzun, beste lanbide bat... Lehen, mugaz bi aldeetako jendea ari zen abeltzaintzan, arrantzan, baserri munduan, elizan. Oso multzo bertsua zen Xiberoan zein Erronkarin. Orain, batek egiten du lan asurantz ez dakit norako, eta besteak ikusten du Telecinco. Erreferenteak aldatuz doaz, eta kulturalki batzuk Espainiara begira gaude eta besteak Frantziara. Baina pausuak ematen dira



Bada modu bat, herria egiteko

etengabe eta horri eutsi beharra dago. Ni 17 urterekin Baxe Nafarroara joan nintzenean, erdaraz ari ginen Oñatin, eta han ez zen existitzen erdara. Orain alderantziz da.

Euskararen ezagutza, oro har, igo da. Irakaskuntzak-eta badu indar handia, baina ikusten ari gara gain batera helduak garela...

Erabilera beste faktore batzuen araberakoa delako. Iñaki Lurrebasoren tesiak ere horra jotzen du, eta nola espero zen ere 40 urteren bueltaz azpiko guztiek euskara ikastea “aski” izan ahal zuela “euskara salbatzeko”. Bazen salbamendu uztai bat botatzea itsaso zabalera...

Euskaldungoa birgogoeta hori egiteko desiratzen dago. Etengabe ikusten dituz gauzak han eta hemen, beharbada ez zelako aintzat hartu egiazko egoera politikoa, administratiboa, baita ere arerio bat dagoela, ez zertan zentzu belikoan. Baina ez da euskarari soilik dagokiona, hizkuntza gutxitu guztiak oso sa-soi ezbaikoan bizi dira. Are gehiago orain, informazioa heltzen dela beste hizkuntzetan, mundu gutxitik, eta horretan oso zaila da esanahi edo eduki bakanak gailentzea belaunaldiz belaunaldi. Segur aski hori ez zen behar bezala kontsideratu. Baina beno, honetaz ere duela 200 urte eztabaidatzen zuten euskaltzaleek, eta bazioten bost urtetan gure hizkuntza desagertuko zela... Begira non gauden.

“5.700 kultura desagertu dira munduan”. Hori diozu *Egin kontu* kan-



“Erreferenteak aldatzen doaz, eta kulturalki batzuk gaude Espainiara begira eta besteak Frantziara”

Segitzen duzu jotzen, 30 urte pasatuta ere. Eta disko berrien ere sartu duzu. Gauzak asko aldatu dira, baina.

Erabat. Gauza guztiak askotariko iturrietatik eta batera datoz. Hasi informazioetik, jendeak ja ez du periodiko bakar bat ere irakurtzen, edo irrati bat entzuten, edo telebista bat ikusten. Serie bat, bestea, hangoa... Erreferenteak erabat sakabanatu dira, eta dagoeneko ez zait iruditzen lehen bezalako mul-

tuan. 1995ekoa da.

[Barre egin du] Izango dira gehiago dagoeneko, bai. Modu erdi zinikoan planteatzen dut kantuan, nola abantzamendua dirudien biologikoki, eta oinarritzen den elkar-janean.

tzo homogeneous topatzen ahal direnik inongo alorretan. Eta bai, joerak daude, eta zorionez, modari atxikita-edo, orain esaten den *tendentziei*, lehen zen bezalaxe. Baina lehenengoz iruditzen zait, azken urte arraro horien ostean, gauzatu dela Euskal Herrian beste zirkuitu bat, nik horrela sentitzen dut. Urtero-urtero ateratzen dira talde arrakastatsuak, eta ikusten dut oso multzo handi bat, ez direnak diskoetxeetan oinarritzen, badituztenak beren zirkuituak, beren komunikazio bideak, beren salmenta... Eta hori, nire ustez, ez zen ondo gertatua gure munduan. Gutxi gorabehera lehenagoko zirkuituari tiraka segitu nahi zen, nahiz berezitasunak aldi oro eduki, baina orain bai aldaketa handi bat dagoela iruditzen zait.

Hizkuntzarekiko jarrera ere aldatu da, ala?

**HERRITIK
HERRIARENTZAT**

NATURA
ONDAREA
AUZOLANA
EUSKARA
KIROLA



LEITZA



WWW.LEITZA.EUS

Munta handiko ezaugarria da hizkuntzarena, gogoetatzeko ematen duena, nola euskaldungoak neurri handi batean onartu duen beste hizkuntzetan ere aritzea.

Nola bizi duzu zuk?

Ez dakit. Beti gertatu izan da, beti egon dira euskaldunak beste hizkuntzetan kantatu dutenak. Hemen beti egon dira kantari espainolak. Haiak haien zirkuituak eduki dituzte, edo asko gureetan ere aritu dira nahiz erdaraz kantatu. Baina orain, euskaraz eta erdaraz, batera, argumentu horrekin, iruditzen zait interesgarria eztabaidatzeko. Uste dut gauzak berez datozela gure egoeragatik. Segurki, ni kantuan hasi nintzenean, euskaraz egiteko hautuak beste ondorio asko zekartzan, eta orain ez. Esku-eskura dago euskara ikastea, eta hizkuntzak beste esanahi bat du orain. Esaten denean aberastasuna dela hizkuntza batean baino gehiagotan kantatzea... Ez dakit. Pentsatzen dut libertate guztia eskas dela, gehiago behar dela beti, eta hor ere sartzen da hori.

Ez da soilik musikan gertatzen.

Literaturan, euskaraz publikatzen den gehiena, ia-ia sasoi berean erdaraz ateratzen da herri honetan. Eta euskaldun jendea, jatorriz euskaraz idatzitako liburua erdaraz irakurtzen. Askok gertatzen da. Zerbait esan nahiko du horrek, segurki gauza larriak.

Joera izango ote?

Jende askorentzako, idazle sentitzeko, behar duzu liburua erdara batean argitaratua izan, zeren eta hemengo oihartzuna ez zaizu ailegatzeko, ez zaitu asetzen. Kantuan ber gauza: behar duzu konektatu zure ustez afin hurbileko dituzun beste jende batekin, eta orduan erdaraz eginez gero iruditzen zaizu sartzen zarela beste multzo batean.

Orain, sormen aldetik, niretako, ene biziko aberastasun handiena izan da euskara hautatzea. Nire sentimena da etengabeko ikasbide batean ari naizela. Ikusten dut nire burua, Lapurdi aldean, Larrungo izpiritu santuaren paskinak biltzen, hango dendetan, lapurtera zaharreen dagoen itzulpen izigarriko politagatik. Frantsesez idatzita gehiengo, eta gero badago Biblia, lapurtera klasikoan. Zer pentsatuko ote dute denda horietan, "girstino irredentista bat" naizela... [Barre egin du] Horrelakoetan gabiltza, frikiak bezala, maite ditugulako dagoeneko artxiboetan dauden gauzak. Nire-

tako ikaragarriko aberastasuna da. Baudut sentimendua halako bi ibilaldi egin beharko nituzkeela, edo hiru, ailegatzeko prosa horrek duen oihartzuna biltzen duen jakinduriara... Gure kultura, ezta?

Kantu zaharren zalea zara.

Guk badugu zorte hori, eduki ditugu aurretik idazle, pentsalari, zizelkari, margolari... hemengo edertasunarekin bat egin nahi izan dutenak. Eta besterik ezean, ziur asko, kantu zaharrek edo ahoz ailegatu zen horrekin aritu zirenak. Nik hori modu guztiz naturalean uztartu nahi izan dut nire sasoi jendearekin, eta nik maite dudana musikarekin, batez ere anglosaxoia.

Gero, denborarekin ohartunaiz zer gauza arraroa den, ez baitu jende guztiak zaletasun hori garatu. Ni, mutikotan, Creedence-n kantuak jo nahian genbiltzala Oñatiko garaje batean, hasi nintzen ikusten euskaraz bazela mundu

bat. Oñatin ikusi nuen Benito [Lertxundi], bera bakarrik gitarrarekin. Ez Dok Amairu ikusteko aukerarik ez nuen izan, zoritxarrez, baina Mikel [Laboa] etorri zen, Xabier Lete ere bai... Mundu bat zen hori. Ikusten nuen egiten ahal zirela gauzak euskaraz. Zortekoak izan garelako uste dut, eduki dugulako hori, belaunaldi bat. Beharbada ezinbestean eduki dugu, ez dugulako aurretik izan kultura kano-



“Esaten denean aberastasuna dela hizkuntza batean baino gehiagotan kantatzea... Ez dakit”

noniko bat, herri kulturarekin asko arduratu diren horiek bezala, duintasun handiz. Eta hori ez da ohikoa, ez da gertatu beste hizkuntza askotan.

Belaunaldi kide izan dituzu Bernardo Atxaga, Joseba Sarrionandia, Joxe Mari Iturralde... Pott Banda.

Horrek markatuko zintuen.

Ez zen musikaren ezer, baina babes handi bat zen niretzat. Pertsonalki babestua sentitzen nintzen. Oso garrantzitsua da zenbait figura alboan izatea, entzungo eta kritikatu zaituztena.



Hainbeste urteren ondoren, itzuli da Sarrionandia. Sentsazioa dut aro baten akabera-edo markatzen duela, sinbolizatzen duela. Laguna duzue eta, zer diozu?

Niretako gauza handienetako bat izan da, aro bat ixten baitu niretzat. Oso gauza pertsonala da berez, baina uste dut berak pertsonifikatzen duela garai bat. Agian jendea dagoeneko beste nonbait zegoen, sentsazioa dut baietz, baina niretzat mugarri handia izan da bere itzulera.

Atxagak ere nobelak idazteari utzi dio...

Hori dio berak, baina ikusiko da, ageriko! [Barre egin du]. Idazteari ez dio utzi, ez pentsatzeari, eta nire sasoi hartako lagun denak ikusten ditut oso emanak, oso emankor, eta asko pozten nau.

Zure kantuen letra asko beraienak dira, edo beste idazleenak. Literatura horri aterabidea bilatzeko beharraz eraman dituzu kantura?

Ez, premiarik ez. Zaletasunetik beti. Batzuetan irakurtzen dut poema bat papelean eta esaten dut: "Hau kantatu behar dut". Ez dakit zergatik, ikusten ote du dan gako bat hor, hitzak munta handia du, badu soinu bat niretako, esanahi bat. Baina poema on batek ez du kantu on bat egiten. Kantua genero bat da bere horretan, nire ustez, eta batzuetan kantuak maite ditu poemak, eta besteetan gauza sinpleagoak. Denok dauzkagu go-goan batere poetikoak ez diren kantuak eta hunkitzen gaituztenak. Gizaki guztiek mendetan zehar egin dute kantu, baditu milaka aurpegi, baina ez du ezagutzen arau bat. John Lennonek egiten omen zuen periodikotik esaldi bat hartu eta inprobisatzen hasi. Musikak ez du araurik, kantuak ere ez. Ez dago formu-



larik. Niretako kantuak askotan maite du poesia, baina ez beti.

Melodia eta kantu pegadizo bila joate hori ez al da gailentzen ari, ordea?

Doinu *pegadizo*-en bila Beatles-ak ere ibili ziren, eta lehenago ere bai, asko. Pasatzen dena da orain teknologiak zabaldu duela bidea. Ja ez dakizu entzuten duzun hiperproduktzio horren atzean zer dagoen. Frank Zappak partiturak idazten zituen, eskuz, jakizu zenbat konpasetan aldatzen zuen erritmoa, eta erotu egiten zituen berarekin jo behar zuten orkestrak. Baina gaur egun hori da *tik* bat [mahaia kolpatu du]. Kantuak egiten dira orain hamar gamarekin, naturalki ia errepikatu ezin diren piezekin, eta horrek gustu bat sortu du. Hor dator aldaketa, jendea gustatzen zaiola. Jendea emozionatu egiten da ahots *pitufatu*-ekin.

Hain da zaila, gaur egun, disko inperfektu bat entzutea, non arazoa den noraino ez ote den galtzen ari garai batean *musikaltasuna* deitzen zitzaiena. Zeren eta musikak erreareari zor dio ondo emandako notari bezainbat. Hor sortzen da atrakzio hori, inperfekzioak dakarrena. Baina hastapenean baizik ez gaude, nahiz orokortzen hasia den. Badira hainbat *plugin*, sartzen duzu gitarra lineatik, eta gero doitzen diozu nahi duzun aplikadorea, esaterako Jimi Hendrixek erabiltzen zuen Marshall Orange-a. Parodiakoa da. Baina jendearekin konektatzen du, eta hor dago gakoa.

Tresneria berriak...

Eta talentu handia dago tresneriari eta marketinari lotuta. Izar handiak daude mundu osoan. Betidanik gertatu da, jendeak abilezia eduki duela garaian egote-



ko, eta gainera ez dago araurik. Baina lehen esaten nizuna: mundu guztiak uste du asmatuko duela jendeak entzun nahi duena egiten, eta oso gutxik lortzen dute. Kantua genero konplexua da.

Marketinean abil dabilta talde zahar asko, itzuli eta sold out egin. Nostalgia indarra du?

Ez dut oso ongi konprenitzen gertatzen ari dena. Eta pozten nau. Gogoan dut *Azukre koxkorak* diskoa atera nuenean, kazetaritza ikasketak bukatu berri-edo zituen gazte bat etorri zitzaidala, eta ez zuela Errobi ezagutzen. Horrek eman zidan zer pentsa. Gureta-ko Errobi ikustea esperientzia handia zen. Orain, berriz, itzultzea... Ez dakit zer gertatzen ari den. Zalantza dut ez ote duen gure ahulezia erakusten, ez ote ari garen ahulezia seinatzen, gure kemena baino gehiago. Kasu honetan ere, aurrekoan bezala, uste dut badela jende bat hori eskatzen ari dena, eta bistan da, sarrerak saltzen dituztelako. Delirium Tremens, Hertzainak, Errobi... Bada jende bat berreskuratu nahi dituen sentazio batzuk.

Zer ahulezi motaz ari zara?

Etorkizunera begirakoa. Oso zaila da proiektatzea heldu dena; dauzkagun baremoekin, oso zaila da. Kezka ikusten dut Iparraldean, hizkuntza-aren egoeraz. Hegoaldean, berriz, leku askotan izugarritzko garapena eduki du, baina tarteka doa, eta ez dakit inor gauza den proiektzio bat egiteko horretaz. Iraganak nonbaitera eramaten du. Iraganean aurkitzen duzu inspirazio bat. [Jorge] Oteiza-eta halako jende argitsuen aburuarekin badago jauzi interesgarri bat eman zena, eta orain berrasmatu behar da horretan. Batzuetan ikusten duzun joera hori beti hor dago; beti eutsi behar zaio nonbait eta noizbait eduki dugunari.

Azkenaldian atzera begira zabiltzala dirudi zure estudioko lanetan, iraganeko kantuak berrartzen eta egokitzen, eta bakarka. Azken hiru lanetatik bi horrela egin dituzu, zuzeneko bi grabazio lan salbuetsita, eta musikari kubatarrekin egindako diskoa. Kantu zaharrak berreskuratzeak zenbat du sortzetik?

Jendeak segurki ez du horrela ikusten, eta ez du horrela ikusi behar ere, baina niretzat bai, kantuak berraldatzea da.



Kantu batzuk hartzen dute beraien bi-dea, bere giroa, eta aldiz, bakarka beste norabait eramaten ahal dituzu. Bakarka aritzea ere oso diferentea da.

Gorputzak eraman zaitu bakarka aritzera?

Beti eman izan ditut kontzertuak bakarka, nahiz taldearekin ere ibili. Pasatzen dena da duela hamar urte erabaki nuela zerbait ganoraz antolatzea. Bada-kizu, bakarka jo al dituzu kantuak gutxi gorabehera, sortzen ahal diren bezala. Erabaki nuen gehiago esperimentatzea eta beste alor batzuetara eramatea. Gainera, estudioarekin harreman berezia izan dut, ez ditut denak batera grabatu, baizik eta noizean behin, eta horrek ere laguntzen du zentratzen.

Anaiak grabatu dizkizu -aurreko udan zendu zen-. Zer moduz daramazu dolua?

Asko gailentzen zait emanaldietan. Urte-tako harremana da. Begira, Iruñean, Baluarteko kontzertuan, bakarrik nintzen kamerinoan eta, gogoan dut, ohartu nintzela kantua ez niola bidali Angel Kataraini, kontzertuarekin berotzeko. Hori anaiak egiten zuen lehen, nirekin etortzen zenez...

Kantu bera jartzen duzu beti, emanaldi aurretik eta atzetik.

Talde afrikar batena da: Orchesta Baobab. Errituala da niretzat. Musikari kubatarrekin eginiko diskoan sartu nahi nuen kantuaren bertsioa, eta landu nuen musika, baina ez nuen letra itzuliko zidan inor atzeman, letra hori, antza,

hizkuntza batzuen nahasketa delako. Hemen, Hondarribian, arrantzaletzen mutiko beltz bat ikusi nuen, eta jarri egin nion. Berak eman zidan inoiz kantu horrez eman didaten esplikaziorik handiena, baina ez zuen guztia ulertzen. Eta nik ez nuen nahi beste letra bat asmatu. Baztertu nuen azkenean.

Publikoarekin gertuago sentitzen zara bakarlarituta?

Uste dut formatu horrek gehienbat publikoari eskatzen diola, norberari baino gehiago. Ez dakit handiagoa den-edo. Agian bai, baina bestelakoa da. Ez dakit neurtzen ahal den. Joaten bazara Anoetara Bruce Springstini ikustera, han ez dago distantziarik, nahiz 200.000 lagun egon eta bera han erdian. Badago halako beste liturgia bat, eta badira horretarako prestatutako *show*-ak. Zorionez, musikak ez du horrelako oztoporik ezagutzen.

Oholtzak bertigorik ematen dizu?

Bai, bai. Beti.

Hainbeste urte pasatuta ere bai?

Bakarrik egonda gehiago. Taldearekin, azken orduko txisteez asko laguntzen dute.

Jende askok aipatzen du, adinean aurrera egin ahala, jendaurrean agertzerakoan, zahartzeak bertigo handiagoa eragiten duela.

Espero dut niri ez handiagotzea... [Barre egin du]. Niri musikak asko erakartzen nau; bestela ezin daiteke ulertu ni ohol-tzara jotzea. Ez dut berezko dohairik

horretarako. Badira interpreteak eszenariora igo eta bi aldiz handiago bilakatzeko direnak.

Handi sentiaraziko zaitu urtero-urtero Bilboko Kafe Antzokian jotzeak, ireki zutenetik.

Errazagoa zait hori, bai. Ez niretako bakarrik, taldean ere horrela da. Olatu ona hartzearen sentsazioa; hartu duzu Belharra, gainean zoaz.

Aurten ere han izango zarete.

Bai, aurreko urtetik ematen didate data. Ondo gordeta dugu. Baina aurten urrian badut emanaldi bat Arriagan, eta uste dut horregatik beranduago iragarriko dela. Mexikora ere bagoaz abenduan, kubatarrekin. Kazetari batek bidali zuen disko bat hara, eta hartuko gaituzte bi astez-edo.

Iaz, Antzokian, bigarrenez ohol-tzatik sartu-irtena egin eta gero, kontzertua amaitzeko azken aurreko kantua *Aspaldian izan zen*. Urte mordoak dituen kantua, ez hain ohikoa horrelako momentu epiko batean...

Amamari buruzko kantua zen, eta amak asko-asko maite zuen, jakina, bere ama zelako... Nire ama hil zen kontzertu hura baino hamar egun lehenago, 95 urterekin. Egin diot kantua bai bere amari eta bai bere aitari -*Eliassen etxea*-. Igual jende askok ez zuen ulertu kantu hori une horretan jotzea, nire gauzak.

Antzokirako sorpresarik gordeko duzu? Zerbait darabilkizu esku artean?

Gauza berriekin ari naiz, kantu berriak idazten... Ari naiz. Beharko dut tartea. Datorren urtean atera nahiko nuke, baina ez dakit noiz. Ez nuke prebisorik egin nahi. ●



[Talde zaharren itzuleraz]

“Zalantza dut ez ote duen gure ahulezia erakusten, gure kemena baino gehiago”



Israel, Iran eta bi elefanteak

Hamasen erasoaren ezohiko muntak, eta Israelgo gerra-kabineteak hari emandako erantzunaren desmasiak zerikusi zuzena dute ondorio geopolitikoaren sakonerarekin. Ekialde Ertainean eta nazioarteko aliantzetan aldaketak eragin ditu genozidioak: Israelek zer irabazi eta galdu du? Irani onura ekarri dio probokazioetan ez erortzeak?

 MIKEL ARAMENDI



Israelek Iranen Siriako kontsulatua bonbardatu ostean protesta handiak egin zituzten Teheran-en.

PICTURE ALLIANCE / MIDDLE EAST IMAGES / HOSSEIN BERIS

Joe Biden presidentearen Segur-tasun Nazionaleko aholkulari-karguak AEBetako inteligentzia zerbitzu guzti-guztien ezagueren jakitun izateko eskubide ia muga-gabea ematen duela suposatzen da. Beraz, munduko pertsona in-formatuena litzateke Jake Sullivan, AEBetako Segur-tasun Nazionaleko aholkularia. Ordea, 2023ko irailaren 29an, bizi artean ez ezik historia-liburuetan ere aipamena egiten zaionean gogoraraziko dioten huts horietako bat egin zuen. “Ekialde Hurbila azken bi hamarkadatan baino lasaiago dago egun”, esan zien bere entzuleei *The Atlantic Festival*-en.

Ez zen ahobero baten ateraldia: urtero AEBetako demokraten ingurumarietako izen ospetsuenak bildu ohi dituen ekitaldi entzutetsua da topaketa hori. Eta baieztapenak zuzeneko entzuleria iaioa eta dezenteko arreta mediatikoa izan bazituen ere, ez zuen jaso inoren ihardespunik. Astebetez. Gero etorriko ziren irria eta iseka, baina une hartan inork ez zuen ikusten elefantea, agidanez. Beti hor egon dena eta inork zuzenbidera ekarri ez duena. Palestinako elefantea.

Urriaren 7an, egutegi gregorianoan Yom Kippur edo Ramadan Gerraren 50. urtea bete zen egunean, Hamasen atal militarrek, Izz ad-Din al-Qassam Brigadek, ustekabeko eraso bortitza egin zuten Gaza inguruko kaserna, asentamendu eta herriguneen aurka, eta ehunka zibil eta soldadu israeldar erail eta dozenaka atxilo hartu zituzten. Harez geroztik, mundua ikusten ari da batek baino gehiagok “48az geroztiko gertakariarik latzena” deritzona, zortzi hilabete betetakoan akaburik ikusten ez zaion sarraski ikaragarria.

Hiru dozena mila gazatar hil ditu Israelgo Armadak, biztanleriaren %2 ia, zibilak gehien-gehienak, eta haur eta nerabeak heren bat. Bahituak askatzea dute goiburua, baina Zerrenda osoa suntsitu eta bertako bi milioi palestinarrek kanporatu nahia da benetako egitatea. Gizakiak mende honetan deliberratu ki sorrarazi dituen gosete eta osasun-emergentzia latzena dela medio, jendartean ez ezik Hagako epaitegian ere entzun ahal izan da *genozidio* hitza. Elefante bat bederen badago aretoaren erdian. Odol putzu batean.

Gizaldeko soslai zirrargarriaz harago –baina, nola ez, harekin uztartuta–, ondorio politiko eta estrategiko nabariak ereiten ari da Gazako sarraskia,

Kontakizunaren eta irudien lehia galdu egin du Israel, herrialde arabiar eta musulmanetan ez ezik, Hego Globalean ere, eta potentzia berrien artean eta Mendebaldeko iritzi publiko arruntaren aurrean ere bai

luzatu ahala. Mendebaldeko elite politikoetan, bederen, lehen unean nahiko ahobatezkoa zen “Israeliek bere burua defendatzeko eskubidea du” leloa itzali egin da, indarraren arrazoia alde batetik eta arrazoiaren indarra bestetik dabil-tzala gero eta argiago geratzen ari den heinean.

INDARTSUA GALTZAILE

Kontakizunaren eta irudien lehia galdu egin du Israeliek, betidanik arerio izan dituen herrialde arabiar eta musulmanetan ez ezik, Hegoalde Globala deitu ohi den guztian ere. Eta, beharbada garrantzitsuagoa dena, potentzia berrien artean eta Mendebaldeko iritzi publiko arruntaren aurrean ere bai. Galera hori ezingo du ordeztu, epe luzera, Nazio Batuetako Segur-tasun Kontseiluan beto eskubidea erabili behar izan duten AEBetako eta haren aliatu estuenetako *establishment*-aren onspen baldintza gabeak. Ezta Nazioarteko Justizia Auzitegiko epaileak zerrenda beltzetara eramanda ere.

Badira, haatik, Israelentzat galera berehalakoagoak. Askotarikoak izan litezkeen zioengatik, ez zuen aurrera egin hasiera bateko ahaleginak, hau da, Hamasen erasoaren erantzukizuna Irani egotzi eta AEBek haren aurka zuzenean jo zezaten saiatzeak. Eta gutxienezko izango zen, seguruenera, Iran-Hezbollah-Hamas lankidetzaren aztarnarik ez zela ageri inondik. Baina Ukrainako gerran

ari zela, zeharka bada ere bete-betean, bigarren bat abian jartzea burugabeke-ria larregitxoa zen Bidenen administrazioarentzat hauteskunde-urte batean; eta lehendik ere elkarrekikotasun dezente erakusten ari zirenak aurkari zirela jakinda. Itsaso Gorrian Yemengo huthiek merkataritza-ontzien aurka egindako erasoen ondoriozko kalte ekonomiko potoloek ere ez dituzte AEBak erakarri Iranen aurka zuzenean inplikatzera –Iran-Hezbollah-Hamasen aliatuak dira huthiak–.

Geroztik, gerra eskualde osora zabal-tzeko ahaleginak izan dira, mozorrorik gabe, Israeliek irandar operatibo eta interesen aurka zuzenean egindako erasoak, batik bat Libanon eta Sirian. Iranen kontraerasoa sutu arazi dute, baina ez dute lortu, ezta Damaskoko egoitza diplomatiko irandarra suntsituta ere. Haren erantzunak (baita Hezbolaren jardura neurtuak ere) argi erakutsi du Teherango agintariak orain gerran sartzeari uko egiten diotela biribilki. Eta hortik ageri da beste elefante baten tronpa.

Gazako gerraren ekuazioan Iran sarrazteko Netanyahu egindako ahaleginaren porrot estrategiko horren benetako garrantzia ulertzeko, Sullivanen iraileko optimismoaren sustraira jo behar da. Bidenen Segur-tasun-aholkulariak zerabilen kalkulua ez baitzen nolana hiko, ezta uste hutsa ere, gerora esne-saltzailearen kantina bezala geratu den arren. Irail horretan bertan, haren zoritxarreko hitzak baino hamabost egun lehenago, sinatu baitzen New Delhin “India-Ekialde Ertaina-Europa Korridore Ekonomikoaren” egitasmoa. Txinaren BRLaren [Belt and Road Initiative, Zetaren bide berria ere deitua] kontrapisu moduko zerbait zen, Asia hego-mendebalderako eta Ekialde Ertainerako. Adiskideak saritu eta etsaiak muskildu behar zituen.

Korridorea zera zen: diplomazia txinatarraren bitartekaritza saiatuak Saudi Arabiaren (eta Arabiar Emirerri Batuen) eta Iranen artean lortutako bake-giroaren ifrentzu moduko proiektu erraldoia. AEBek Arabiar Penintsulako erregai-ekoizle handiak haien merkatu nagusietako birekin lotu behar zizuten, Trumpen agintaldian landutako “Abrahamen Akordioek” irekitako jarraibideari eutsita: ekialdetik, India, munduko hirugarren petrolio-merkatua; eta mendebaldetik, Europa, errusiar erregaien gabezia larrutik nozitzen

ari dena. Azpiegitura-sorta horrek (oliobidea, gasbidea, errepidea eta trenbidea izango baitziren), Iran, Irak, Siria eta Turkia –eta haien aliatua-edo litzatekeen Qatar– kanpo ezarri behar zituen... Eta haren mendebaldeko terminala Israelen eskuetan jarri behar zuen, Haifako portuan.

Egitasmo horren irabazle estrategiko argi eta garbia Israel izango zen, Korridorea bere lurraldetik igarotzearen truke haren giltza bere eskuetan edukiko zukeelako, eta, hartara, Saudi Arabia kate motzean lotuta. Galtzailea, aldiz, Iran, Arabiarekin adiskidetzeak ez liokeelako ia ezertarako balioko, eta itsasoz “itota” geratzeko arriskuan egongo litzatekeelako beti. Izan ere, Indiak, erregaiei hornidura ziurtatzearen truke, gaur egun Golkon darabilen “aniztasun estrategikoa” galduko luke, eta Iranen balizko merkaturik kanpo geratuko litzateke (baita Errusiarenetik ere, behar bada). Turkiak, aldiz, Europarako igarobidea izateak gaur egun esleitzen dion garrantzi nabaria galduko luke. Potentzia nagusien ligan, hau da, Ekialde Ertainetik kanpo, AEBek irabazi, eta Txinak eta Errusiak galdu egingo lukete, nork beren aliantza eta tratuen bueltan. Jokaldi perfektua zirudien Korridore horrek.

Bazen ez bazen, asmoa pikutara joan zen urriaren 7an. Eta kostako zaio berrabiaraztea, inoiz halako ezer egin ahal bada. Ez baita erraza izango Saudi Arabia iraileko giro hartara berriro erakartzea, batez ere Netanyahu agintean jarraitzen bada eta mundu musulmanaren haserrea amatatzen ez bada. Sullivanek berak eta Antony Blinkenek Riad hiriburura egin dituzten bisitaldi ugariak harrera kopetiluna aurkitu dute han eta Emirerrietan. Camp David-2 bat ezinezkoa baita Gazako suntsipenaren ondoren.

BI ELEFANTEAK

1. Palestinako genozidioa:

- Israelek kontakizunaren eta irudiaren lehia galdu du nazioartean.
- Iranek uko egin dio orain gerran sartzeari.
- Israelek ez du lortu AEBak Iranen aurka zuzenean jotzerik.
- India-Ekialde Ertaina-Europa Korridore Ekonomikoa, zapuztuta: Irailean sinatu zuten proiektu erraldoia eraikitzeak akordioa, Israel eta AEBak onuradun nagusi izango zituena. Iran, Irak, Siria eta Turkia kanpo uzten zituen, eta Txina eta Errusia ere kaltetu.

2. Estrategia nuklearrak:

- Israel 1960ko hamarkadatik potentzia nuklearra da. Isilpekotasuna (ez du aitortu) eta eskusibotasuna (aldebakarreko disuasioa) ditu ardatz.
- Iranen estrategia nuklearra, baliabide gutxikoa, onuraduna izan da urriaren 7ko erasotik.

ASPALDIKO ELEFANTEA

Hamasen erasoaren ezohiko muntak, eta Israelgo “batasuneko” gerra-kaibineteak hari emandako erantzunaren desmasiak, noski, zerikusi zuzena dute ondorio geopolitiko horien sakonerarekin. Baina ez genuke, gero eta maizago egiten den moduan, soilik Netanyahuen berekoikeria politiko gupidagabearen juzgu egin behar, zortzi hilabetez jada ikusten ari garen sarraskiaren gako gisa. “Hutsegitea”, berea baino gehiago, beste batzuen litzatekeela esan dezake Benjamin *Bibik*, arrazoi dezenterekin.

Beste lurralde palestinar askotarikoa iheslariez gainpopulatutako Gazako Zerrenda 1967ko gerran indarrez hartu eta ia 40 urtez okupazio militarren pean egonarazi zuen Israelek. Baita Camp Davideko akordioen ondoren ere, 2005era arte. Orduan, gogeta askoren eta, itxuraz, zuhurren burutzapena zen operazio batean, Gazatik erretiratzea erabaki zuen Ariel Sharon-en gobernu eskuindarrak, alde bakarrez. Ez, haatik, aho batez: orduan oraindik Likud alderdi eskuindarraren gorenera heldu gabe zegoen *Bibi* Netanyahu gobernua utzi zuen, ados ez zegoelako.

Edonola ere, ez zen palestinarreki-ko eskuzabaltasuna, ezta gutxiagorik ere: Oslo eta Madrilgo akordioen suntsimendu-prozesuan, Sharonen zeritzon lehentasuna zela Zisjordanian asentamenduak ugaritu eta betikotzea, zendu berria zen Arafaten oinordekoen Aginte Palestinarrak kontrol gehiago zuelako han. Guztiz kontrolagaitza eta interes gutxikoa zen Gazako inurritegia ez zen lehentasuna. Hartara, guztiz hesituta eratu zen Gazan hainbatek “munduko aire libreko kartzela edo kontzentrazio zelai handiena” deituko zutena, bereha-

aek Gurekin lan egin nahi duzu?

AEKn, irakasle lan-poltsa osatu nahi dugu, ikasturteko beharrei erantzuteko. Gurean lanean hasteko asmoa baduzu, jo ezazu orrialde honetara: <https://aek.eus/eu/lan-bila>

INDIA-EKIALDE ERTAINA-EUROPA KORRIDORE EKONOMIKOA



la Aginte Palestinarraren kontrolpetik kanpo eta Hamasen esku geratuko zena. Bigarren mailako etsaia, orduan, aginte israeldararentzat. Ondorengo urteak, asko edo gutxi, gogoan izango ditu edonork: suziri-jaurtiketak, bonbardaketak, miseria...

Seguruenera 2005ean egin nahiko zuena –eta ezin izan zuena– burutu nahi izan du Netanyahu 2023ko urriaren 7koaren ondoren: Gazako Zerrenda hustu eta “israeldar lurralde” bihurtu. Baina Camp Davidedeko akordioak ere ezerezean uztea esan nahiko luke horrek. Eta larunbat hartatik bertatik utzi zuen garbi Egiptoko presidente Al-Sisik ez zuela ontzat emango halako

Itsaso Gorrian Yemengo huthiek merkataritza-ontzien aurka egindako erasoen ondoriozko kalte ekonomiko potoloek ere ez dituzte AEBak erakarri Iranen aurka zuzenean inplikatzera

ezer. Testuinguru horrek ulergarriagoa egiten laguntzen du ikusten ari garenen alderdi bat.

Bestea, Gazatik urruti dago, espazioan nahiz denboran. Gaur egun estu estu ikusten baditugu ere. Nuklearra da beste elefantea.

ELEFANTE NUKLEARRA

Duela 45 urte, 1979ko irailaren 22an, Kubako misilen krisiaren biharamunean, detektatu zen atmosferan jazo-tako eztanda nuklearren bereizgarria omen den flash bikoitza. Vela 5B satelite artifizial estatubatuar iraungiak detektatu zuen; horrek zaintzen zuen hamasei urte lehenago potentzia nu-





THOMAS COEX / AFP / GETTY IMAGES

INDIAKO GOBERNUA



Hiru agintariak Korridorearen hitzarmen egunean: MBS Saudi Arabiakoa, Modi Indiakoa eta Biden AEBetakoa.

klear nagusiek sinatua zuten PTBT-Arma nuklearren frogak atmosferan, espazioan eta urpean debekatzeko tratuaren betearazpena. Guztiz ezohikoa bazen detekzioa, are deigarriagoa zen haren kokapena: Hegoafrika eta Antartida artean, biztanle iraunkorrik ez duten Eduardo Printzearen uharteetatik gertu samar, Port Elizabeth hiritik 1.000 milia hego-ekialdera.

Detektagailuaren gorabehera teknikoek bestelako esplikabideren baterako zirrikiturik uzten bazuten ere, esplikaziorik ziurrena eta zuhurrena zen atmosferan bonba nuklear txiki bat zartarazi izana. Eta hari egin zion men, hasiera batean, zerbait gehiago jakiteko modurik ere izango zuten Carter presidente estatubatua-

**Korridorearen irabazle
estrategiko argia
Israel izango zen,
handik igarotzearen
truke haren giltza
edukiko zukeelako, eta,
hartara, Saudi Arabia
kate motzean lotuta.
Galtzailea eta baztertua,
aldiz, Iran**

rrak; gerora, etxeko nahiz kanpoko arrazoi indartsuak medio, besterik aditzera emango bazuen ere, sinesgarritasun gutxi samarrekin. Bonba lehenetsi ez ezik, hura ezandarazi zutenak ere seinatu zituen Carterrek, hasiera batean: Israel eta Hegoafrika. Lankidetzan. Esan gabe zihoan lehenak ekarriko zuela bonba eta bigarrenak jartzen zuela eztanda-gunea.

Nolanahi ere, auzia ez zen nazioarteko goi-politikaren ilunpeetatik kaleratu apenas, orduan. Eta horrek berak ulertaraz dezake nola hasiera-hasietatik nahiko gardena izan behar zuena, txosten eta kontratxostenen artean, "misterio" bihurtu den. "Misterio nuklearrik handiena" deitu du baten batek. Ez da izango haren egileen nortasunagatik behintzat.



Talaios
Koop

talaios.coop

Teknologia eta ekonomia eraldatzaileetan bidelagun

- Proiektuen eraketarako aholkularitza integrala
- Teknologia digitaletan beharren analisia eta tresnak
- Formakuntza ekonomia, kudeaketa eta komunikazio tresnetan

info@talaios.coop



Israelen Dimona zentro nuklearra
Negev desertuan dago.



Vanunu, Dimonan luzaro aritutako teknikaria, 18 urtez sartu zuten kartzelan, Israelen sekretu nuklearrak kontatzeagatik.

Gaia serio samar arakatu duten guztiek ondorio berbera atera dute: elkarlanean, Israeliek eta Hegoafrikak atmosferan burututako eztanda nuklear txiki bat izan zen. Seymour Hersh kazetari entzutetsuak gertakariaren inguruabar zehatz samarrak ere argitaratu zituen: apartheidaren erregimen hegoafrikarren laguntzarekin Israel neutroi-bonbekin egiten ari zen probetako hirugarrena omen zen, kasualitatez detektatu zuena bazter emanda zebilen –eta, iskin egiteko, leherketen egileek zaindu gabe– satelite batek. Beraz, bakoitzaren ahalmen nuklearrak baino gehiago konplizitateak jarri zituen agerian “misterioak”.

Ordurako, aspalditik baitzen Israel potentzia nuklearra. 1960ko hamarka-

Israelen nuklear-tasuna da, ezbairik gabe, Ekialde Ertainean arma nuklearrak edo/eta suntsipen handiko bestelako armak ugaritzea bultzatzen duen faktore guztiz nagusia

daren erdialdean izan zen gai, itxura guztien arabera, Dimonako zentroan [Israelgo Gobernuaren zentro nuklearra, Negev desertuan kokatua] lehen buru nuklearrak osatzeko. Bere garaian Frantziarekin egindako lankidetzaren abiapuntu zela, baina beste hainbat jatorritako ekarpenez baliatuta. Baita hartarako sektoreak egin ahal izateko ere, potentzia nuklearretako ezeinek benetan eten nahi izan ez zuen jardunbide batean.

Egitatearen zati bat bederen guztiz agerian geratu zen 1986an Mordechai Vanunu-k, Dimonan luzaro aritutako teknikari batek, zuzenean ezagutzen zuten jardueraren berri eman zuenean luze eta sinesgarri, kontzientziak akuilata. Haren adierazpenen zeharbidezko



ikastolenelkartea

Euskal Herriko Ikastolak
EUROPAR KOOPERATIBA ELKARTEA

Errotazar bidea 126 - 20018 DONOSTIA (Gipuzkoa)

tel. 943 445 108 | fax. 943 465 294

ehi@ikastola.eus

www.ikastola.eus

ondorioa zen ehun buru nuklear baino gehiago izango zituela une hartan Israelerak, eta Ekialde Ertaineko edozein puntutaraino igortzeko gai zela. Gogotik pertsegitu zuen Vanunu Mossadek, Israelgo Inteligentzia eta Operazio Berezien Institutuak; baita bahitu eta atxilo Israelera eraman eta han epaitu arazi ere, “soluziobide” gaiztoagoak ezetsi ondoren. Hemezortzi urteko kartzelaldi gogorrarekin ordaindu zuen Vanunuk bere atrebentzia, eta gaur egun ere ezin da esan pertsona libre denik. Ifrentzua da harez geroztik ezinezkoa dela ukatzea ez ezik, zalantzan jartzea ere, Israelerak arma nuklearrak badituela. Frogatu ki duela 40 urtetik hona.

ISILPEKOTASUNA ETA ESKLUSIBOTASUNA

Baina, elefante ikusgarri horri ezikusiarena egin dio “nazioartea” deituak. Frogatuta ez legokeen hipotesia edo antzeko zerbait balitz bezala. Eta itsutasun guztiz konplizea dela esan behar da, gizalegez. Jakina baino jakinagoa baita egitatea zein den. Eta, ageri-agerikoa denean, gainera, errealitate horixe dela munduan arma nuklearren bilaketa gehien akuilatu duen faktorea. Ekialde Ertaina da azken hamarkadetan arma nuklearrak lortzeko eginahala gehien egin den eremua. Nekez ulertuko lirarteke bestela iraganean Egiptok, Irakek, Libiak edo Siriak, eta gaur egun, beste maila batean eta bakoitzak bere estrategiarekin, Iranek edo Saudi Arabiak, egin, egiten eta egingo dituzten tenore horretako ahaleginak. Israelen nukleartasuna da, ez bairik gabe, Ekialde Ertainean arma nuklearrak edo/eta suntsipen handiko bestelako armak ugaritzea bultzatzen duen faktore guztiz nagusia.

Bi osagai nagusi ditu tasun horrek: isilpekotasuna eta eskusibotasuna. Baina bien arteko giltzadura da, benetan, egoera lehergarri bihurtzen duena.

Balirudike isilpekotasuna ezaugarri unibertsal dutela arma nuklearrak landu eta edukitzeko ahalegin guztiek. Baina sekretu-premia hori betiere izan ohi da aurretiazko prestamenei buruzkoa eta, behin armak edukita, haien zenbatekoari eta hedapenari buruzkoa. Kontrara, herrialde batek arma nuklearrak badituenean, haien izatea erakusgai ere bihurtu behar izaten du, halakoen disuasio-betekizuna, benetakoa nahiz us-tezkoa, baliarazteko.

Guztiz bestelakoa da, ordea, Israelen nuklear-tasuna. Hasieratik amaie-



HOUTHI MILITARY MEDIA

Huthiek debekua ezarri diete Israel, AEBak eta Erresuma Batuekin lotutako ontziei Yemen inguruko uretan ibiltzeko, eta dozenaka eraso egin dituzte.

Iranen egitasmo nuklearra, baliabide gutxirekin eginikoa, orain arte puntu kritikora iristetik oso urruti egon dena, izan daiteke urriaren 7an Hamasek abian jarri zuen jazoeraren onuradun nagusia eta berehalakoa

rainokoa du isilpekotasuna, eta ez da aitortzen haren izatea bera ere, duela hamarkadatik ezaguna den arren. Ez da bereizgarri hutsala: Arma Nuklearrak Ez Ugaltzeko Ituna sinatzeari errazago iskin egitea zilegitzen dio tasun horrek; edo, hobeto esanda, hori egin dezala ez exijitzeko aitzakia ematen die nazioartean *de facto* konplize ditueniei. Beste edozein kasutan zigorrak dantzatzen hasteko ezer gutxi behar dutenei.

Eta beste kasu horien bidez ederki dakigun moduan, kontua ez da sinadura zirtzil bat botatzea: ikuskapenak barne hartzen ditu. Eta, armak dituztenen kasuan, erabakigarriak diren konpromisoak: haiek erabiltzen lehena ez izateko konpromisoa, potentzia nuklearrak ez diren aurka ez erabiltzekoa... Noski, “grazia” guztia kenduko lioke horrek Israelen nuklear-tasunari.

Ia ezinbesteko bidelaguna da bigarren bereizgarria: eskusibotasuna. Israelen nuklear-tasuna baliagarria izan dadin, eskusiboa izan behar da, hots, bere inguruan kidekorik gabekoa. Aldebakarreko disuasioa da: berak aurkariei atzera eginarazi ahal izatea, eta aurkariak ez daitezela gai izan beste horrenbeste egiteko.

ESTRATEGIA

Aintzat hartu behar da (eta bistakoa da Israelen nuklear-tasunaren konplize diren potentziek aintzat hartzen dutela, haren “kinka existentzialaz” hitz egiten dutenean) errealitate geografikoak Israeli ez diola, apenas, beste aukerarik ematen: aldebiko gatazka nuklear batean, ia Israel osoa aurkituko litzateke supean, maila batean edo bestean; eta onik ateratzeko aukera gutxirekin. Aldiz, edozein aurkariren lurraldearen



FIRAS MAKDESI / REUTERS

Israelek Iranen Siriako kontsulatua bonbardatu zuen apirilean, baina Iran ez zen gerran sartu; probokazioa porrota izan zen.

Mordechai Vanunu-k baieztatu zuen ehun buru nuklear baino gehiago izango zituela une hartan Israelek, eta Ekialde Ertaineko edozein puntutaraino igortzeko gai zela. Hemezortzi urteko kartzelaldi gogorarekin ordaindu zuen atrebentzia

hedadurak, abantaila nabaria emango lioke aurkari horri. Kontrara, arma nuklearrik batere gabeko agertoki batean, Israelen aurkariaren ugaritasunak eta ubikuitateak, eginaraziko lioke dagoeneko egiten duen ahalegin konbentzional astuna baino are astunagoa.

Baina aldebakarreko disuasio nuklear horren ifrentzua izan behar luke nazioarteko arau eta konbentzioak aintzat hartzen (eta betetzen) dituen potentzia bat. Salbuespenezko tasun hori justifikatuko lukeen duintasunez arituko litzatekeena. Ez da historikoki

Israelen kasua: matoikeria-erakustaldi gehiegi emanak zituen aurretiaz ere, eta urriaren 7az geroztik Gazan egiten ari denak pairamen gehienak gainditu ditu. Gehiegiaren gehiegiaz, horretarako ere arma nuklearrak erabili behar liratekeela iradoki duen astapistolarik izan da, aipatu behar ez den elefanteari dei eginez. Baina "naizen bezala onartu beharko nauzue" da, funtsean, Netanyahuaren erregimenak Mendebaldeko aliatuei helarazten dien mezua, haiek alde izanez gero, gainerako guztiak bost axola diola ebatzita.

Israelen hamaikagarren hutsegite estrategikoa da, seguruenera. Iranen egitasmo nuklearra baliabide gutxirekin eginikoa da, eta beste inoren laguntzarik gabe, mozorrotuta, itzulinguruka, eta alde guztietatik zaindu eta gainbegiratu dute. Orain arte puntu kritikora iristetik (zer esanik ez Israelekin parekatzetik) oso urruti egon da, baina izan daiteke urriaren 7an Hamasek abian jarri zuen jazoeraren onuradun nagusia eta berehalakoa. Hori guztihori aurreko hamarkadetakoa ez bezalako nazioartean ari baita gertatzen. Eta iraganean potentzia nuklear deklaratuaren artean zegoen adostasuna, ez-egitez bederen, eta hartarako baliabideak, ezerezean geratzeko zorian daudela baitirudi.

Balirudike, halaber, intuizioz, Netanyahuaren lantaldea ere jabetzen dela horretaz. Baina zulo batean sartu dela ohartzeko den bakoitzean egin ohi duena ari da egiten oraingoan ere: zuloa handiagotzen. ●

Atxondoko Udala

www.atxondo.eus
☎ 94 682 1001



baserriakm0.com

YouTube Instagram Facebook baserriaKM0



Km0
baserria

Araba Aurrera doa

posible
egiten dugu

Ingurumena babestuz



PAKISTAN

Indusen ibaibideak

Muturreko lehorreak eta euriteak dira beroketa globalak Pakistanen duen inpaktuaren alde agerikoena. Ez dira hain ezagunak, ordea, hondamendiek piztu eta bizkortzen dituzten gaitz sozialak, eta zenbat eta nola oztopatzen duten azken horiek Asiako herrialdearen garapen oso eta berdinzalea. Kausa-ondoriozko katean sakondu dut erakusketa formatua duen *Indusen ibaibideak* kazetaritza-lanean, eta horren lagin bat da erreportaje hau. 236 milioi pertsona bizi dira munduko bosgarren estaturik jendetsuenean; karbono-isurketa globalen %1 baino gutxiago igortzen duten arren, krisi klimatikoak larrien erasaten dien biztanlerietako bat da.

 IGONE MARIEZKURRENA

Montzoi-sasoia hasi da eta euri zaharraren gainean ari du berria Pakistanen. 2022ko udako uholdeek 1.700dik gora hildako eragin eta bi milioi etxebizitza suntsitu zituzten, eta beste horrenbeste familia lekualdatzera behartu. Gehienentzat, aldi baterakoa behar zuen bizimodua kroniko bihurtu da desplazatu klimatikoentzako kanpalekuetan.





Landa-guneak lehen lerroan. Indus ibaiak Dadu distrituan gainezka egin eta ur-maila gerriraino iritsi zitzairenean utzi zuen etxea Rasool familiak. "Urtebeteren buruan malaria zabaldu zen kanpaleku hartan, eta ez zegoen gure seme-alabentzako eskolarik". Jatorrizko herrira itzuli

dira eta adobezko bizitokia altxatu dute behin-behinean. Baina jornalariak dira, eta lantzen zituzten lurren jabeak ez du berreraiki uholdeek suntsitu zuten ureztatze-sistema. Gobernuak ez die kalte-ordainik aitortu, eta gizonek Johi hirian lortzen dituzten aldizkako lanak beste diru-iturririk ez dute orain.



Errefuxiatuentzako eremuetan

jendea ezezagunen artean bizi da, aterik eta segurtasun-perimetrorik gabe. Horrek zigorgabetasun-giroa elikatzen du eta zaurgarrienen aurkako indarkeria areagotzen du. Bestalde, larrialdiko bizi-baldintzak kroniko bihurtzen direnean, etorkizunerako itxaropenik eta beste egitekorik gabe, jendeak maizago izaten ditu sexu-harremanak, emazteek nahi izanda ala ez, eta haurdunaldi gehiago izaten dira. Baina laguntza humanitario gehien Arabiar Emirerri Batuek eta Saudi Arabiak bidaltzen dute Pakistanera, eta herrialde horiek ez dute preserbatiborik ezta abortu-pilularik ere sartu nahi familiei ematen dizkieten erreskate-kitetan.



Udan uholdeek erasaten dieten eskualdeak Pakistango idorrenak dira. Rasooltarren etxola azpiko ura gazia da; andre eta neskatok hamabi kilometroko joan-etorria egiten dute, oinez, gertueneko putzutik ura buru gainean ekartzeko. Garbitzea, kozinatzea eta urari loturiko gainerako zereginak ere eurek kudeatzen dituzte eta, beraz, gabeziari loturiko estresak zuzenezuzenez eragiten die, baita umeen traumaosteko estresak ere, haien zaintzaile eta hezitzaile direnez gero.



Indus ibaiaren iturburua da Hindu Kush mendigunea, eta hango nekazari-familiak ere krisi klimatikoaren lehen lerroan daude. Glaziarretako izotza urtzen ari da eta 33 aintzira gainezka egiteko arriskuan daude. Altxerretan eta bestelako uzten galerak zazpi milioi pertsonaren urte osoko diru-sarrerak zapuztu ditzake. Goseak adin txikien eskola-uztea eta ezkontza hitzartuen kopurua handitzen ditu eta, ondorioz, neskatok ezkontzari truke saltzea sustatzen du. Askorentzat, turismoa eta mendi-espedizioak iturri alternatiboa dira, baina eguraldiaren desegonkortasunak sektorearen gainbehera ekarriko duen beldur dira.



ANTZUOLA eta BERGARAKO udaletan euskaraz lanean



Herriko plaza 8
20577 Antzuola
Tel.: 943 766 246
Faxa: 943 787 100
udala@antzuola.eus
www.antzuola.com

Udal barruko eta
kanpoko harremanak
euskaraz bideratzea da gure helburua

San Martin Agirre Plaza
20570 Bergara
Tel.: 943 779 100
euskara@bergara.eus
www.bergara.eus



Lan prekaritatea eta sexu-indarkeria hirietan.

Landa-eremuetatik hirietara aukera bila jotzen duten laborarien exodoa azkar hazten ari da, eta 2025. urtean biztanleen %50 baino gehiago gune urbanoetan biziko dira. Txabola-auzoak era kaotikoan zabaltzen ari dira, oinarrizko azpiegitura eta zerbitzurik gabe, eta ez dute herritarren ongizatea bermatzen. Migratzaileak (nagusiki adin ertaineko gizonak) lan-baldintza oso prekariotan aritzen dira: hamalau ordutik gorako jardunak egiten dituzte,

kamioilari nahiz rickshaw-gidari gisa, edota eraikuntzan. Eusteko, substantzia estimulatzaileak kontsumitzen dituzte eta, emakume*-taldeek salatzen dutenez, horrek zerikusi zuzena du espazio publikoetan gertatzen diren sexu-delituen gorakadarekin. Bi ordutik behin emakume bati eraso egiten diote Pakistanen, baina auzipetuen %4 baino gutxiago zigortzen ditu Justiziak. Kasu askotan, biktimek beraiek amore ematen dute bidean, prozesu judizial bereziki geldoak direlako, berbiktimizatzaileak, eta denbora, energia nahiz diru asko galdatzen dietelako.



Euskara zerbitzua
 Barrenkalea 17
 48200 Durango
 94 603 00 16
 euskara@durango.eus
 www.durango-euskaraz.eus



↑ Droga menpekotasuna.

Isildutako epidemia da: etsipenak drogen menpera eraman ditu herrialde osoko milaka pertsona. Afganistango mugatik 50 kilometro eskasera, Pakistango hiririk kontserbadorenak droga merkearen

laborategi bilakatu dira. Ongarri kimikoak eta botikak nahasten dituzte Lurralde Tribaletatik datorren opioarekin. Gramo batek 500 rupia (1,64 euro) balio du Peshawarren, 250 rupia Charsaddan. 1980ko hamarkadan, CIAk opio belarraren laborantza sustatu zuen

bertan; Karachiko portutik munduratu eta irabaziekin mujahidinek armaz hornitu zituen Afganistango Gobernuaren aurkako gerra egin zezaten. Gerora, pakistandar agintaritzak debekatu egin zuen, baina pastun familiei beste ezer ereiteko balia biderik eman gabe. Lehorteeek elikadura-segurtasun falta larritu dute aurreko urteotan, eta batzuk opio belarraren ekoizpena itzuli dira. Saba Gul psikologo klinikoak urtero ehunka lagun desintoxikatzen ditu bere zentroan. Trafikatzaileek mehatxatuta dihardu, negozioa zapuzten ari zaielako. Auzokideen ustez, gainera, egiten duena desondragarria da. Andrazkoak ere artatzen ditu, urtean bizpahiru besterik ez, indarrean diren tabuak tarteko gehienek bestelako kontsumoa egiten dute eta: Indiatik sartzen diren eta mediku-errezetarik gabe aise eskura daitezkeen analgesiko gogorak hartzen dituzte, etxean.



← **Soilik Karachin,** gutxienez 14.000 emakume aritzen dira prostituzioan. GKEek zenbatu gabekoak askoz gehiago dira. Uste dute milioi bat direla Pakistan osoan. Karachin zenbatu dituzten 9.000 trans emakumeetatik 2.100ek GiBa dute.



Gorrotzoko delituak. Indus ibaiak Arabiako Itsasoan isurtzen ditu urak. Karachiko portua eragile ekonomiko garrantzitsua da, eta, merkataritzaren hiriburua ez ezik, prostituzio-gune nabarmena ere bada hegoaldeko hau. Ezkontzaz kanpoko sexu-harremanak *haram* dira Sharia edo lege islamiarraren arabera, debekatuta daude. Herrialdeko lege-esparruak, bestalde, legez kontraktat jotzen du prostituzioa eta Zigor Kodeak kartzela-zigorak aurreikusten ditu jarduten direnentzat. Horregatik, sexu-langileak ezkutuan aritzen dira, osasun-bermerik gabe. Zerbitzu merkeena trans emakumeek eskaintzen dute, bazterkeria sistemakoak ohiko ekonomiatik kanpo uzten dituelako. Zerish Khan aktibistaren hitzetan, larrialdi klimatikoaren ondoriozko pobretzea, inflazioa eta ziurgabetasuna haztegi bikaina dira populismoentzat, eta talde islamista integristak hanpatzen ditu. Zabaltzen dituzten gorrotzoko mezuek sexu-langileen eta LGTBQ kolektiboaren aurkako oldaraldia piztu dute. Eraso fisikoak geroz eta ugariagoak dira kalean, eta Shariaren Auzitegi Federalak indargabetu egin nahi du trans pertsonen erroldan izena aldatzeko eskubidea aitortu zien legearen (2018) zenbait atal.



Erreportajerako kontsultatutako iturriak:

- Forum For Dignity Initiatives (Ekimen duinentzako foroa)
- Human Rights Commission of Pakistan (Pakistango Giza Eskubideen Batzordea)
- Women Health And Welfare Organization (Osasunerako eta Ongizaterako Emakumearen Erakundea)
- Gender Interactive Alliance (Genero Aliantza Interaktiboa)
- Civil Society Coalition For Climate Change (Klimaldaketaren aldeko gizarte zibilaren koalizioa)
- Pakistango Gobernuaren Meteorologia Departamentua

Niretzat errespetua da
**[euskara] ulertzen ez duenak
 ahalegina egitea ulertzeko.**

SAGRARIO ALEMAN



Argazkia: Sam Manns

BARATZE-OIHANA

*Bizitzaren ederra lantzen
buruaskitasunerantz*

Odei Etxeberri Bimboire, Gorka Roca Torre eta beraien seme Oihan eta Miru buruaskiak dira elikaduran. Horretarako, aztertu behar izan dute gorputzak zer elikagai eta zein kopurutan behar dituen; horiek zein janaritan dauden; urtaro bakoitzean horiek denak eskuratzeko zer landu behar duten; espezie aldaera zabala dute hazitegian, batzuek fruitua goizago eta bestiek

beranduago eman dezaten, hartara baratzeko hilabete zailetan astez aste zer jana izateko... Buruaski edo auto-sufizienteak dira baita ere elikagaiak lantzeko lan tresnetan eta prestatzeko moduetan: ez dute pestizida ez ongari kimikorik erabiltzen, ez motordun erremintarik, ez elikagaiak prozesatzeko errotarik eta kontserbarik. Bidean ikasi dutena azaldu digute.



ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA



SABINA HOURCADE / CC-BY-ND



IONE LARRAGO



Behorlegin bizi dira Odei Etxeberri Bimboire eta Gorka Roca Torre, duela 14 urtetatik, beraien seme Oihan eta Mirurekin. Ardi hazkuntza dute etxe-ko diru sarrera, eta merkatutik kanpo baratze-oihana egiten dute. ARGIAko lantaldeko lau lagun izan gara bisitan, baratze-oihana ezagutzen, eta bazkal-tzera gonbidatu gaituzte. Artoa, hainbat tuberkulu mota, azenarioak, txikoria belarra, erremolatxa, sagarra... benetan ederrak ahoratu ditugu gordinik, egosita eta baporean eginda, oliorik eta bizigarririk gabe. Haiak hazi eta hildako etxe-ko ardia labean prestatuta dastatu dugu, etxean egindako gazta ere bai eta pixkanaka ulertu dugu nola doazen eguneroko dieta eta erabaki praktikoak buruaskitasunerantz eramaten, eguneroko bizitza pixkanaka kapitalismotik askatzeko. Lehenik helburu soziala dute, beraien oinarrizko beharrak asetzeko ez beste inor zapaltzea, eta bigarrenik helburu ekologikoa dute, beraien bizitza naturaren zikloak oztopatu gabe garatzea. Baratze-oihan batetik abiatuta, hara...

ZER DA "BASO JANGARRI", "OIHAN-BARATZE", "BARATZE-OIHANA"?

Baratzezaleen artean, boladan dago "baso jangarria" (Hego Euskal Herrian) edo "oihan-baratzea" (Ipar Euskal Herrian). Torrek azaldu digu zer den: "Oihan-baratzea elikagaiak ekoizteko sistema bat da eta ekosistema natural orekatuenean inspiratzen da: oihanean. Helburua da baratze-gintza mota bat egitea, eredu gisa oihanaren ekosistema hartuta eta horretarako fruitu arbolak eta barazkiak elkarren ondoan ematen ditu". Oihana ekosistema orekatua da naturan, hau da, gai organiko eta ez organikoaren zikloa bertan ixten da, bere

kasa orekatzen da. Ekosistema emankorrena ere oihana dela azaldu du Torrek: "Eguzki energiaren erabilera emankorrena oihanak egiten du, eta elikagaiak ekoiztea funtsean horixe da, eguzkiaren energia erabiltzea, gai organikoa sortzeko. Beraz, lur eremu bat dugunean elikagaiak ekoizteko, sistema emankorrena izanen da eguzki energia gehien baliatzen duena". Zentzu horretan, monolaborantza ez da batere efizientea; Torrek mertxikondo betetako eremu bat jarri du adibide: "Mertxikondo eremu horrek fruituak ekoizteko eguzki argia urteko garai motz batean erabiliko du, loratzen denetik fruitua eman arte, eta fruitua eman ostean ere hostoetan erabiliko du eguzki energia, adarrak garatzeko. Baina ondoren, hostoak eroriko zaizkio eta lauzpabost hilabete pasatuko ditu elikagaiak ekoizteko eguzkiaren energia erabili gabe". Oihanean ez dela hori gertatzen azaldu du: "Oihan batean baditugu landareak urte osoan, bat bestearen atzetik etorriko direnak eta txandaka eguzkiaren energia erabiliko dutenak. Oihan baratzearen ideia hori da: espazio berean ukango ditugu landareak urte osoan, eguzkiaren energia erabiliko dutenak. Eta beraz, eremu baten zatitza sistema emankorrena da".

Torrek beren baratzeak erakutsi dizkigu eta praktikan azaldu digu nola antolatzen den oihan-baratzea: fruitu arbolak sartu dituzte ilaran, eguzkira orientatuta. Beren hasierako akatsa, zuhaitz gehiegi landatzea izan zen, oso ohikoa omen dena oihan baratzea egi-

ten hasten direnen artean. Zuhaitzek bere lekua behar dute eta eguzkiaren argia lur eremu horretara ahalik gehien sartu dadin, zuhaitzen arteko espazioa zaintzea garrantzitsua da. Zuhaitzen artean, altuera ezberdinetako zuhaixka, igokari, zereal, barazki eta tuberkuluak sartzen dituzte eta bakoitzak hartuko duen altuera eta espazioa kontuan hartuta, zaintzen dute eguzki argia ahalik eta gehien aprobetxatzea oihan baratze-ko lurrean.

Torrek "baratze-oihana" deitzen dio berenari: "'Oihan baratzea' behar bada beste batzuek egiten duten gauza bat izango da, hau da, baso edo oihan bate-tik abiatu eta hori eraldatzea, barnean baratze bat sartuta. Guk, aldiz, biak elkarrekin sortu ditugu: barazkiak eta fruitu arbolak, eta barazkiei lehenasuna emanda, hau da, bereziki barazki aldetik emankorra izatea bilatuta. Baratzetik abiatu garenez, 'baratze-oihana' esatea zuzenagoa iruditzen zait. Alegia, bata da baratzean arbolak sartzea eta bestea da dagoen oihanean barazkiak sartzea. Bi-

garrena konplexuagoa da, zeren oihan bat dagoeneko egin delarik, bada itzal anitz eta zaila da horren tartean barazkiak sartzea. Hainbat arbola moztu beharko lirarteke, argia sarrarazteko". Baratze-oihanetik hurbil, oihan txiki bat erakutsi digu, zuhaitz gaztez betea. Torrek azaldu du bertan ez dutela zehazki oihan baratze bat egingo, baina bai antzeko zerbait: "Oihan honen barnean landare batzuk ekoizten saiatuko gara, baita ondo batzuk ere, shiitake

“Guk egiten dugunak ez du zentzurik gure familiarentzako bakarrik bada. Guztientzat izan behar du aterabide eta merkatuaren logikatik erabat kanpoko”



Ugarte auzoa, Muxika
Tel. 94 625 27 01
muxikakoudala.eus



Hiru herri,
udalerrri bat

eta beste". Hegoaldean erabiltzen den "baso jangarri" hitza beste zerbaitekin lotzen du Torrek: "Hurbiltasuna ukan dezake guk oraindik anitz garatu ez dugun arlo batekin, baina pitinka-pitinka garatzen saiatzen ari garenekin: barazki salbaiak, basa landareak biltzea eta jatea. 'Baso jangarria' horrekin erraz lotu ahal den ideia bat da. Izan ere, basoa berez da neurri batean jangarria! Baratzea, aldiz, lantzen dugun zerbait da, gizakiaren esku-hartzea dago tartean. Horregatik, pentsatzen dut argia goa dela 'baratze-oihana' kontzeptua, 'baso jangarria' baino".

Zelaian trostan ari den astoaren kaka pertzan bildu ditu Torrek eta baratze-oihaneko landare batzuei jarri die oinean. Beste batzuei ongari berdea ematen die, bien arteko aldea frogatu nahi baitu. Lan horietan ari den bitartean azaldu dizkigu lur lanak egiteari ekin zionetik orain arte baratze-oihanaren inguruan loratu zaizkion bost oinarriak:

BEHORLEGIKO BARATZE-OIHANAREN BOST OINARRIAK

Hauek Gorka Torreren hitzak:

"1.-Baratzegintza maitasun kontu bat da. Hamabost urterekin hasi nintzen hazi bat ereiten eta hortik ateratzen den landarea garatzen ikusten, loretzen eta hortik ateratzen den fruitua biltzen eta jaten... horrela bizitzaren zikloaren magiaz liluratu nintzen eta gerotik nire pasioetako bat izan da.

Hamabost urterekin hasi nintzenean, oraindik ez nuen kontzientzia politikoa eta soziala oso garatuta. Handik urte batzuetara hasi nintzen garatzen kontzientzia kritikoa eta bigarren arrazoi oso garrantzitsu bat gehitu zitzaion lur lan horri:

Urteotako lurreko lan guzti-guztiak lan tresna hauekin egin dituzte.



2.-Nik nire baratzea egiterakoan nire burua bakarrik esplota dezaket. Mundu hau sistema kapitalistan antolatua da eta gure behar gehienak besteen lanaren esplotazioaren ondorioz asetzen ditugu. Bereziki guk, zentro inperialistan garenok, gehienetan guregandik urrun den eta ikusten ez dugun esplotazio sistema anker handi batekin asetzen ditugu gure beharrak. Nire baratzea egiterakoan nire burua esplota dezaket, ez naiz beste bat esplotatzen ari. Nire beharrak neronek, familian eta hurbileko giza taldean nahi ditut asetu.

Guhaurek ekoitzi nahi ditugu guhaurek behar ditugun elikagaiak eta horiek lantzeko behar ditugun tresnak. Eta hori garatu nahi dugu proiektu politikoa

eta ekonomiko gisa. Horrek gehitzen dio baratze-oihanari hurrengo ideia:

3.-Herri buruaskitasuna. Mundua ekologikoki xehatzen ari gara baina gainera gainbeheran da sistema osoa. Kolapsorantz aitzinatzen ari gara eta kolapsoari aurre egiteko bitarteko onena da buruaskitasuna edo autosufizientzia garatzea, kolektiboki. Izan ere, buruaskitasunak zentzua du, herri buruaskitasuna baldin bada. Hau da, ez gara individualki buruaski ezertan, soilik komunitate bat izan daiteke buruaskia. Horregatik, guretzat helburua herri buruaskitasuna da.

Guhaurek ekoitzi nahi ditugu guhaurek behar ditugun elikagaiak eta horiek lantzeko behar ditugun tresnak.

4.-Janari osasungarria denentzat. Baratze-oihanean egiten dugun lanaren helburua, funtzioa, finalitatea horixe da. Guretzat borroka ardatz oso garrantzitsua da munduko herritar orok elikagai osasungarriak eskuratzeko aukera ukaitea. Asistentzialismotik janaria ematen diote hainbati, bai, baina zaborra: saltoki handiek botatzen dutena, zaborra. Ahal ekonomikorik ez dutenei janari onena eskuratzeko bideak eman behar dizkiegu, asistentzialismoan erori gabe.

5.-Baratze situazionista. Frantziako Estatuan 1960ko hamarkadan izan zen ultra ezkerreko mugimendu bat, arte mugimendutik sortu zena. Eta haien kontzeptuetako bat da ez bereizketarik egitea, alegia, gauza guztiak lotuak direla ohartzea. Haien zioten artea gure bizitzako keinu guztiei lotua izan behar dela, artea ez dela bizitzako momentu bat izan behar, adibidez asteburuan, lanetik ateratakoan, margo bat egitea.

346.171 biztanleko lurgune euskalduna

111 udal

"Beti lurpean eta bazterretik zatozen erreka horri, zuri, itsasoa zor dizugu, justizia zor dizugu, ausardia zor dizugu, etorkizuna zor dizugu. Eta gure lo kanta berriekin amets egingo duten haur jaioberriak esnatu daitezela euskararen herrira".

Jon Maia Soria

Arnasa gara

EUSKARAZ GARA

UEMA





Kurduekin tipula ereiten.
ROCAK ETA ETXEBERRIK UTZIA

Filosofia horri jarraituta, baratze-oihana ez da bakarrik baratze bat, ez da bakarrik elikagaia ekoizteko leku bat, guk hemen egiten dugun lur lan hori zentzu ugariz betea da eta zentzu inportante bat da, adibidez, edertasuna sortzea. Ni ez noa baratza elikagaiak ekoiztera bakarrik; noan aldiro, baita ere banoa eguzkia hartzera, ezagutza transmisioa egitera, estetikoki maite dudan eremu batean egotera, elkarrizketa bat izatera lagun batekin... Horregatik, nire baratzeei baratze situazionista deitzen diet, ongi azpimarratzeko ez dugula bereizketarik egin behar eta zentzu oso bat eman behar diegula egiten ditugun gauza guztiei.

Eta hara, bosgarren ideia hau loturik da erabat lehen ideiarekin, itzuli

gara bizitzaren zikloaren edertasuna apreziatzera".

Eta kontakizunaren haritik zintzilik irauten genuen bitartean, oharkabea, Torreren atzetik iritsiak ginen bere azken baratze situazionistara. Bertan badira edertasunagatik landatutako loreak barazki artean. Eta badira kurduekin batera landatutako tipulak, Euskal Herrian zabaldu dituzten "iraultzaren haziak". Dena bat den baratze horretan, azaldu digu Torrek haien proiektuaren baldintza nagusia: "Egiten dugun guztiak ez du inolako interesik gure familiarentzat bakarrik ari bagara. Honek interesa du kapitalismoaren logikari alternatiba bat eraikitzen diolako: garatu behar dugun alternatiba horrek merkatuaren logikatik erabat kanpo

izan behar du eta oso garrantzitsua da bien arteko bereizketa oso argia egitea. Eta noski, jorratzen dugun bideak balio izango du denentzat baldin bada aterabide bat, bestenaz ez du balio". Azken ideia horiek sakonago azaldu dizkigu, haziz betetako armairua eta giza indarrez dabilzan lan tresnak gordetzen dituzten etxetxoan:

KAPITALISMOARI EREMUAK IRABAZTEN

Kapitalismoa sortu zeneko garaira jo du Torrek, egungo zapalkuntzen azalpenak bilatzeko: "Zer egin zuten Ingalaterran? *Enclosure* sistemaz lurra hesitu zituzten eta herriari kendu egin zioten lur komunalak erabiltzeko aukera, alegia, lurra kenduta beraien beharrei beraien

ANTOLATU, BORROKATU, **IRABAZI**
+100 garaipen urtean

ANTOLATU BORROKATU
IRABAZI

ELA
EUSKAL SINDIKATUA



Gorka Torre: "Ni ez noa baratzera elikagaiak ekoiztera bakarrik; noan aldiro, baita ere banoa eguzkia hartzera, ezagutza transmisioa egitera, estetikoki maite dudan eremu batean egotera, elkarrizketa bat izatera lagun batekin...".

zuzenki kolektiboki erantzuteko aukera kendu zieten. Horrekin paraleloan garatu zen industria: langileak behar zituzten, eta nola behartu jendea industriara lanera joatera? Beren baitatik bizitzeko posibilitatea kenduta. Geroztik hori bera egin du sistema kapitalistak: dependentsia sortu. Kentzen digu gure beharrak asetzeko posibilitatea eta ondorioz, gure lan indarra saltzera behar-tzen gaitu. Egungo katastrofea desjabetze horretatik dator eta birjabetze logikan sartu behar gara".

Gaur egun jendeak ez du lurrik eskura, buruaskitasuna garatu ahal izateko. Torrerenentzat hori da lehen borroka, guztiek lurra eskura izatea, "eta beraz, jabetzaren kontrako gogoeta bat egitea, eta pentsatzea nola egiten dugun

munduko herritar orok ukan ditzan bitartekoak bere beharrei kolektiboki erantzun ahal izateko".

Kapitalismoari alternatibak bilatzera, Torreren ustez ezinbestekoa da bestelako logika batzuk erabiltzea, "bestela sistema erreproduzitzen dugu funtsean". Baratze-oihanak kapitalismoaren merkatu logikaz kanpo dauka zentzua, Torreren ustez: "Baratze-oihana ez da erraza merkatu logikarekin lantzeko, zeren merkatuaren logikan lehiakortasuna bilatzen da, eta une jakin batean bildu behar dituzun barazki moten artean arbola batzuk baldin badituzu bere adarrekin eta eremu txikian aniztasun handia baldin baduzu, denbora pila bat beharko duzu zure azak edo pastenagreak biltzeko, ezingo duzu me-

kanizatu eta traktorarik sartu... merkatuaren logikan, baratze-oihanetik ateratzen duzuna ez da batere lehiakorra izango. Baratze-oihana gehiago da merkatuaren logikatik kanpo eta buruaskitasunerantz joan nahi duen jendeak garatzen duen teknika". Torrek argi du egun denok behar dugula bizitzeko gutxieneko diru kopuru bat eta horregatik, baratze-oihana egiten dutenek beraien ekonomia parte eta beste ekonomia parte bat merkatutik kanpo, adibidez, baratze-oihana eginda: "Garrantzitsua da pixkanaka gure bizitzetan merkatutik kanpoko esparrua handitzen joatea, eta merkatukoa txikitzea. Horrek gogoe-ta egitea eskatzen du: Nola egiten ahal dugu kolektiboki gure diru beharrak



euskal eskola publikoa

denona, denontzako

ehige



Gurasoen elkarte

info+ 944 169 360 / ehige@ehige.eus / ehige.eus / Ronda 27, 1ezk, 48005 Bilbo

txikitzeo eta denbora libratzeko merkatuaren logikatik kanpo diren alternatibak eraikitzeo? Indibidualki ezin da, baina kolektiboki posible da".

Galdera horiek egunero eramaten dituzte praktikara haien etxean: "Buruaskitasuna garatzen dugunean, jasotzen dugun funtsezko irakaspena da gauzen egiazko balioa: ereindako horretatik fruitua biltzen eta jaten duzunean plazer hartzen duzu, eta momentu horretan ikasten duzu neurtzen zuk kontsumitzen duzuna ekoizteak zer eskatzen duen. Elikaduran buruaskitasuna lantzen hasi ginenetik, gure etxean haragi kontsumoa gutxitu egin da. Zergatik? Zeren haragia oso ona da, baina hemen abereak guk hazi eta elikatu behar ditugu, guk ekoiztu behar dugu abereen elikagaia. Eta berehala ohartzen zara hobe dugula artoa guk jatea oiloei ematea baino: hamar kilo artorekin hainbat egunez jango dugu etxekook, eta oiloei emanda, aldiz, hamar kilo arto horiek kilo bat haragi emango digute eta kilo bat haragi egun eta erdian jango dugu etxekook. Gero eta gehiago garatzen duzularik buruaskitasuna bizitzako arlo guztietan, orduan, kapitalismoak ezkututzen zizun hori ikusten duzu. Eta horrek nahi eta nahi ez eragiten dizu sinplifikazio bat, kontsumo apaltze bat".

LAN TRESNETAN ERE BURUASKITASUNA

Hamalau urteotan Behorlegin egin duten lur lan guztia giza energia erabiltzen duten eskuzko tresnekin egin dute. Ez dago motordun lanabesik: "Guretzat, buruaskitasuna garatzeko, ezinbestekoa da ekoizteko tresnetan ere buruaskiak izatea. Bestela, merkatuan arazoak sortzen direnean petrolioa edukitzeko, paralizatuta zaude", dio Torrek. Siste-



Zapatistekin baba txikia ereiten.

ROCK ETIA ETXEBERRIK UTZIA

ma kapitalista pertsonen zapalkuntzan oinarritzen bada, tresnak ez dira salbuespen: "Ikaragarrizko esplotazioa ematen da. Petrolioia erabiltzen duzu eta zer magia den! Baina azter dezagun horren atzean mundu mailako zer esplotazio dagoen". Salatu du lurra lantzeko tresnak egiten dituen lantegirik jada ez dagoela Euskal Herrian eta alderik alde ibiltzen dira, adibidez, aizkorak edo trontzak egiten dituzten azken artisauen bila.

Planetaren kutsadura gutxitzeko gai

hau funtsezkoa dela adierazi du: "Kutsadura askoz gehiago sortzen da lan tresnak ekoizterakoan, lan tresna horiek erabiltzerakoan baino. Eskuzkoak dira gutxien kutsatzen dutenak".

Erakutsi digutenearekin eta gurekin partekatu dutenarekin eskertuta itzuli gara Behorlegitik. "Iparraldeko Txindokiren" oinean -horrela izendatzen dute Behorlegi mendia hegoaldeko mendizaleek-, familia honek atea zabalik ditu zapalkuntzarik gabeko mundu bat lantzen diharduten kolektiboentzat. ●

“Buruaskitasuna lantzen duzularik, kapitalismoak ezkututzen zizun hori ikusten duzu eta derrigor ekartzen dizu sinplifikazio bat, kontsumo apaltze bat”



Ez da jogurtari Goenaga da



www.yogurgoenaga.com

☎ 943 21 63 27

✉ goenaga@yogurgoenaga.com

📞 Whatsapp (+34) 671 10 11 80

Pokopandegi Baserria, Igara. 20018 Donostia.

ARAGOIKO ASABÓN ERREKAN
BARNA BIZIKLETAZ

Pardina eta makien arrastoan

Aragoiko Asabón errekek zeharkatzen duen lurraldeak hainbat ustekabe eder gordetzen ditu. Ez naiz historialaria, eta, hortaz, ez dut halako kronika historiko bat eginen. Bereziki mendizale gisa mintzatuko naiz, aspaldi honetan nire gogoak –nire senak– halako leku bakanduetara eraman nauelako. Bizikletaz egindako ibilbideetarik bat probestuko dut, eskualde horretan metatzen diren *pardinen* berri eman eta, halaber, 1944tik goiti inguru hartan bildu ziren makien edo gerrillari antifrankisten gaineko zenbait istorio zuenganatzeko.

  XABIER IABEN

Longás, Bailo (Bailo, Arres, Larues, Paternoy, Arbues eta Alastuey) eta Las Peñas de Riglos (Riglos, Ena, Centenero, Rasal, Salinas de Jaca, Santa María de la Peña, Triste, Yeste eta Villalangua). Herri horiek osatzen duten eskualdea orain arte “Aurrepirinioa” kontsideratu bada ere, egun, geologo aunitz bat datoz erratean “Pirinioa” dela, bertzerik gabe. Hortaz, erran dezakegu Huescako Pirinioetako hego-mendebaldean kokaturik dagoela.

Bizikletaz eginiko ibilbideak harilkatuko du kontaketa, eta izenburuan ageritzen gisan, eskuarki pardinek eta makien mugimenduek izanen dute protagonismoa. Pardina hitzaren etimologiaz denaz bezainbatean, bi hipotesi daude. Lehena RAErena da, eta zera dio: hitz aragoiarra dela, eta latineko *Parietina* hitzetik bide datorrela, eta izaten ahal dela bai “pareta hondatuak”, bai “larre-

Pardinetako eguneroko bizitzan etxea da oinarria, baina Euskal Herriko hainbertze lekutan bezala, ez soilik eraikuntza gisa, baizik eta antolaketa sozial moduan

mendi baxua”. Bigarrena Manuel Alvar hizkuntzalariarena da, eta berak zioen latineko *pratu* hitza zela etimoa: *pratu* > *paratina* > *pardina*, erran nahi baita, belaiarekin lotzen zuen.

Zernahi gisa ere, erraten ahal dugu pardina dela lursail bat non nekazaritza

eta abeltzaintza ustiatzen diren. Normalean, honako eraikinak zeuden: etxebizitza nagusia –bertan bizi ziren *pardineroak*–, eta horri atxikiak, lanerakoak zirenak –abeltegiak eta abar–. Gehiengotan, behatoki onak ziren lekuetan kokatzen ziren, eta iturria hurbil izaten zen.

Pardina batzuk garai batean herriak izanak ziren, hori dela eta, zenbaitek eliza dute. Haien antzinasuna frogarik izanik ere –1187an Huescako 238 herririk San Indaleziori botoa egin zioten eta horien artean egungo pardina batzuk zeuden– pardinaren ibilbide hau, gutxi goiti-beheiti, 1836ko Mendizabalen Desamortizaziotik 1950era arte kokatuko dugu, hamarkada horretan hustu baitziren gehienak. 1941etik aurrera, Patrimonio Forestal del Estado (PFE) izeneko erakundeak desjabetze aunitz egin ondoren, sekulako birlanaketa jarri zuen martxan; horren ondorioz, bazkalekuak ikaragarri murriztu ziren, eta, gainera,



Asabón ibaia



Corralón pardina



Chaz pardina

isun handiak jartzen ziren, abereek pinu landatu berriak janez gero. Bertzalde, XX. mendearen erdialdean hasitako industrializazioak akabaila eman zion antzinako bizimodu hari.

Pardinetako eguneroko bizitzari dagokionez, etxea da oinarria, baina Euskal Herriko hainbertze lekutan bezala, ez soilik eraikuntza gisa, baizik eta antolaketa sozial moduan. Bertan, jeneralean, hiru belaunaldi bizi ziren, eta gehienetan maizter ziren; izan ere, XIX. mendeko bi desamortizazioek, zoritxarrez, ez zuten pardinin jabetza nekazari eta abeltzainen esku jarri, baizik eta goi nobleziako zein burgesiako kideen esku. Familiarekin batera, morroiak –aragoieraz, gazteak zirenean, *repatanes* deitzen zitzaien–, jernalpekoak zein artzainak egoten aha ziren. Eta, horietaz gain, pardina askotan mutilzaharren bat gelditzen zen, aragoieraz, *los tiones*.

Etxeetako beheitiko solairuan abeltzariak, jaki-tokiak eta sukaldeak egon ohi ziren. Lehen solairuan, logelak; eta goitian, sabaia edo bihitegia. Ez zuten argindarrik, eta lastargiak zein kriselak erabiltzen ziren. Beregain samarrak zirenez, gehienek bazuten baratzea, eta zenbaitek, erlauntzak; gainera, ehizak eta arrantzak segurtatu egiten zuten eguneroko mantenua. Haatik, osasun arloan gabetia handia zuten: medikuarenera joateko, adibidez, distantzia handiak egin behar izaten zituzten. Baina ongi ezagutzen zituzten inguruko sendabelarrak, eta baziren sendalari ezagunak, adibidez, Samper Altoko pardinako maizterra.

Pardinerokoak, Teruelgo masietakoak ez bezala, arras loturik zeuden beren jatorrizko herriekin, eta ez zuten bazterkeriarik jasan. Gainera, askotan, eskolaratzea zela eta, pardineroen haur aunitz astean zehar herrietan egoten ziren, haien jendakien etxeetan.




Pardinak hiru lan-arlotan aritzen ziren: nekazaritzan –batez ere garia eta garagarra–, abeltzaintzan eta basogintzan. Abeltzaintzaren kasuan, azpimarratzekoa da bazkalekuak ez zirela soilik pardineroen aziendarako; izan ere, Huescan –Zaragozan eta Teruelen ez bezala–, abelburuen erdiak trashumanteak ziren, eta artzain aunitzek, ardidide edota *cabañerak* jarraikiz, eskualde hau erabiltzen zuten udazkeneko bazkaleku (aragoieraz, *aborral*), Aragoiko hegoaldeko lur beroagoetara joan aitzin negua ematera. Eta hori, jakina, diru-iturri inportantea zen pardineroentzako.

Orografia malkarrak hartaraturik, basogintzari erreparatuz gero, eta orografia malkarrak hartaraturik, basoen zabalera handia zen, eta kontuan hartu behar da hori hala zela arestian aipaturiko PFEk bere birlandatze-prozesua abiarazi baino aunitzez lehenago. Tenore hartan, egurra oinarri-oinarrizko lehengai zen azpiegituretarako (argizatzerako, trenbideko trabeserako...) eraikuntzarako (habeak...) zein etxerako (beheko sua elikatzeko, sukalde-rako...). Nolanahi ere, XIX. mende bukaerako eta XX. mende hasierako Goi Aragoiko egurraren ustiapena ez zen nahi bezain eraginkorra izan; 1930eko hamarkadan eman zion egiazko bulkada, trenbidean zein errepede-sarean egondako hobekuntzarengatik.

ASABÓN ERREKAREN BUELTAN

Asabón erreka Gállegoren adarretako bat da, eta sorburua Xavierreko lepoan du, Longás eta Bailo herrien arteko muga, Zaragoza eta Huescaren arteko muga ere badena. Hasiera batean, mendebalde-ekialde norabidea hartzen du, eta Javarraz eta Pequera pardinak zeharkatzen ditu puska horretan. Gero, hegoaldera egiten du garbi, eta Nueveciercos eta Chaz pardinaren ondoan iragan eta gero, Villalangua herriraino egiten du. La Peñako urtegi heldu aitzin –bertan egiten du bat Gallego ibaiarekin–, Gabas eta Paternoyko erroitzetako erre-kastoen ura hartzen du.

Hona pardina nagusiak (ikus mapa): Javarraz, Pequera, Nueveciercos, Salafuentes, Montañano, Sierra Alta, Nofuentes-Corralón, Chaz, Ferrera, Gabas, Cercito, Rompesacos, Villamuerta, Esporret, Mesón del Cajicar, Bergosal, Lagé, Visús, Samper Alto eta Samper de Asabón.



1944ko urriaren amaieran Longáseko Planasuertes sarobean bi gerrillari hil zituen polizia frankistak, eta bertan lurperatu zituzten

Ibilbide honetan gerrillarien gaineko zenbait kontu gogora litezke, zeren gezurra iduri arren, maki gehiago ibili ziren pardinak inguratzen dituzten Santo Domingo eta Carbonera mendilerroetan Pirinioetako muga baino, gerrillariak osaturiko hainbat brigadaren biltoki izan baitziren biak.

ABIAPUNTUA: LONGÁS

Abiapuntua Zaragozako Longás herri bakandua da (840 m). Jacako Puente la Reinatik abiatuz gero, Bailorako A-132 errepidea hartu beharra dago, eta handik kilometro gutxira, asfaltaturik gabeko ia 15 kilometroko pista zeharkatu. Zaragozako herria izanik ere, Longásek lotura historiko estua izan du Huescaren: Longáseko eremuan dauden Sangorrin eta Salafuentes herrixkak, adibidez, San Juan de la Peñako monasterioaren agindupean egon ziren, eta horrek zenbait gatazka administratibo ekarri zituen herriari.

1944ko urriaren bukaeran Longáseko Planasuertes izeneko sarobean bi gerrillari hil zituen polizia frankistak, eta bertan lurperatu zituzten; ez zen sekula haien identitaterik eman, eta ez zituzten erregistro zibilean sartu. Eta urte bereko azaroan, urte bereko azaroan, bi maki gazte herrian sartu ziren ogi eske,



Wikiloc-eko mapa.
Egilea: Bekiur

Longás: Asabón errekako pardinak

Distantzia
42,41 km

Desnibel positiboa
909 m

Zailtasun maila
Erraza

Desnibel negatiboa
909 m

Gehieneko garaiera
1.150 m

Gutxieneko garaiera
710 m

Denbora mugimenduan
3 ordu 32 minutu

pentzatur ez zela arriskurik izanen, baina bertako batek salatu egin zituen; guardia zibilak bertaratu eta bietako bat hil zuten. Lekukoek diote 1950eko hamarkadaren hasieran hildakoaren aita eta bertze semea Longásera itzuli zirela mendeku hartzeko asmoz, baina azkenean atxilotu eta Sos herrira eraman zituzten.

Lehen 3-4 kilometroak arestian aipatu dudan pistatik egiten dira, eta gero eskuin hartu behar da, Sangorrinerako bidetik. Lau bat kilometroren ondotik, Zaragoza eta Huescaren arteko mugan dagoen Xavierreko lepora (1050 m.) iritsiko gara. Inguru hartan sortzen da Asabón erreka, eta handik aitzina bide-lagun izanen dugu puska handi batean. Hiru kilometro jaitsi ondotik, lehen pardinara iritsiko gara.

JAVARRAZ (880 M)

Hagitz hondaturik dago, eta sasiz inguratutik, baina leku apartan dago kokatua,

behatoki ederra den gain batean. Lehen aipamena 1068 urtekoa da. 1663an, Jacako katedralari zegokion pardina zen, eta 1863an Ayerbeko markesaren esku zegoen. Bide batez, jaun hori hainbertze pardinaren jabe zen, ezen San Juan de la Peñako monasterioarekin batera eskualde hartako lurjabe nagusiak ziren.

Pardina horrek baso handiak zituen, egur asko atera zen bertatik, eta 1940ko hamarkadan bertan zegoen Uros familiak 150 bat ardi-buru zituen. Gainera, landa onak zituen, eta batez ere garia eta garagarra landatzen zituzten. Azkenean, Javarraz 1958an hustu zen, eta 1965ean PFEk erosi zuen. Gaur egun, erabilera publikoko mendia da. Bide nagusiari jarraikiz, handik bi kilometrorra, bigarren pardina dago.

PEQUERA (840 M)


1720koa da, halaxe ageri da aurrealdean. Pardina gehienak –edo bederen azken berreraikuntzak– XIX. mendearen bukaerakoak edota XX. mendearen hasierakoak dira. Etxalde luzea da, eta bi etxek osatzen dute. Badu leiho txiki bat, eta aditu batzuek diote garai batean bertan omen zegoen eliza batekoa izan litekeela, zeren eta batzuetan pardinak dauden lekuetan gerora hustutako herriak zeuden garai batean. Eta Pequera berez 1187an San Indaleziori botoa egin zioten 238 herrietarik bat zen.

Harreman handia zuten Javarrazekin eta geroxeago aipatuko dudan Nueveciercoseko pardinarekin, eta bitxikeria gisa, ba omen zuten gramola bat eta bereziki zerri-hiltzean (aragoieraz, *mataría*) eta bertzelako bestetan erabiltzen zuten. 1960an, Izuel familiak PFERi saldu zion, eta gaur egun, Javarraz bezala, erabilera publikoko mendia da, eta Bailoko udalerriri dagokio.

Handik 500 bat metrora, Asabón errekak mendebalde-ekialde norabidea utzirik, hegoaldera egiten du garbi, eta guk ere, harekin batera, eskuin hartuko dugu bidegurutzean, eta utzi egingen dugu Santa Barbarara doan pista, berez Bailo eta Longás lotzen duena. Bi kilometroko malda beheiti egin ondotik, hirugarren pardinara iritsiko gara.

NUEVECIERCOS (780 M)

Erabat hondaturik egonagatik ere, oraino bereizten ahal dira ukiulua eta etxebizitza, zeinak ogi-laberako kupu-



Bodegas Lezaun
ERRETEGIA - JATETXEA

TAXI ZERBITZUA

MAHASTI ETA ARDO
EKOLOGIKOAK.
LEZAUN / EGIARTE

BISITA ARDOEKIN 3€
ARDO DASTAKETAK 7€

MAHASTEGIRA IBILALDIA
ZALDI-GURDIZ.
10€ | 5€

DASTAKETA MENUA:
HASTEKO, GARAIKO PRODUKTU
EKOLOGIKOAK.
TXINGARRETAN ERRETAKO
HARAGI ETA ARRAINAK.
POSTRE DASTAKETA.
LEZAUNGO KAFE ETA ARDOAK.

LAKAR - A12 IRTEERA 34

LIZARRA A-12 IRUNEA

EGIARTE1, 31292 LAKAR (NAFARRDAI)
ERRETEGIA: 948 541 231
BODEGA: 948 541 339
WWW.LEZAUN.COM | INFO@LEZAUN.COM

Gaian sakontzeko...



Las pardinas del río Asabón, (Crónicas de un mundo olvidado)

Oscar Martín

Huescako Diputazioa, 2017

Garai batean San Joan de la Peñako fraideek Asabón erreka inguruko lur eta herri guztiak menperatzen zituzten. Mendeen poderioz haietako asko "pardina" bihurtu ziren, bakardadean bizi ziren jendeek landutako lurak.

Quando los maquis

Luis Pérez de Berasaluce
Autoedizioa, 2018

Gerrillari antifrankistek Mendebaldeko Pirinioetan, Aragoi, Nafarroan eta Okzitania, lan itzela egin zuten 1950eko hamarkada arte, muga zeharkatu eta armak eta propaganda banatzen. Liburu honek bereziki Santo Domingo eta Carbo nerako mendizerratan gertatutakoa kontatzen du.



Bi maki gazte Longás herrian sartu ziren ogi eske, baina bertako batek salatu egin zituen; guardia zibilak bertaratu eta bietako bat hil zuten.



la txiki bat gordetzen baitu. Nueveciercos ere 1187an San Indaleziori botoa egin zioten 238 herrietarik bat izan zen. 1800ean familia bat bizi zen bertan, eta Jakako Santo Domingoko komentua zen pardina horren jabea. 1863an, Concilioko Lopez Etxekoak ziren jabeak, eta zazpi belaunalditan mantendu zuten jabetza. Bide batez, Lopez familia hainbertze pardinaren jabe izan zen.

1959an, azken jabeak PFeri saldu zion, eta egun erabilera publikoko mendia da eta Bailoko udalerriri dago. Bide batez, familia hori Bailoko Pequera etxera joan zen bizitzera, eta harrezkero Nueveciercos Etxea deritza. Asabón errekarari jarraituko diogu, eta tarteka zeharkatu ere eginen dugu. Gero, hiru kilometroko tartea egin ondoren, malda beheiti hori ere, Chaz pardinara iritsiko gara.

CHAZ EDO JAZ (700 M)

Hau ere jatorriz aspaldiko herria zen, 1134an San Juan de la Peña monaste-

riolari eginiko dohaintza batean ageri baita. 1601ean, Pedro de Urries zen jabea, eta 1743an, goitian aipatutako lurjabe nagusietako baten esku zegoen: Ayerbeko markesgoa.

L formako eraikin-multzoa da, eta horri atxikita korta bat dago, mendebaldeko estalkia duena, partzialki itxiatuak baten inguruan. L-aren alde batean eta bertzean ukuiluak eta animalien eraikinak daude. Aipagarria da altuera handiko tximinia tronkokonikoa, aragoieraz, *chaminera*.

Pardina hau bi errekaen elkargune lau batean dagoenez, erraten zen inguruko pardinekin baino lur hobeak zituela, eta garai hartako kantu ezagun batek honela zioen: "*En Nofuentes canta el gallo; en Corralón la gallina; y en la pardina de Chaz florecen las clavelinas*".

Sanclamente familia luze bizi izan zen bertan, XIX. mendearen bukatetik 1974ra arte. Harreman handia zuten inguruko pardinekin (Corralón, Montañano eta Ferrera), eta pardina gehienetan ez bezala, Chazen argin-

Bizkaiko Batzar Nagusiak



www.jggbizkaiaeus



Makiak Pirinioetan.

darra izan zuten, eta menturaz horri esker iraun zuten bertan hain berandura arte.

Egungo jabea Coarasa familia da, eta pardina hondaturik egon ez arren, iduri du abandonatu samarra dagoela. 500 bat hektarea ditu, eta Bailoko udalerrian dago.

Makien presentziari dagokionez, bi kontu txiki. 1947ko martxoaren 14an, Santo Domingoko mendilerroan zegoen gerrillari talde bateko lau lagun Chazera

jaitsi eta hiru eskopeta, bi urdaiazpiko eta bertzelako elikagaiak hartu zituzten bertatik; eta urte bereko uztaillaren 22an, Biarno aldera itzultzen ari ziren gerrillari batzuek bidaian lagungarri eginen zitzaizkien 2.000 pezeta hartu zituzten pardinan.

Orain, eskuin hartu eta bideak emeki-emeki goiti egiten du Fontanizas errekarari jarraikita; bi kilometro eta erdi egin eta gero, Corralón pardinara helduko gara.

CORRALÓN (780 M) ETA NOFUENTES (950 M)

Berez, pardina hau erabat loturik dago Nofuentes izenekoarekin (950 m); izan ere, bi etxeek osaturiko pardina bakarra dela erraten ahal da.

Corralón, berez, bi etxetan banaturik dago, eta bakoitzak bere sarrera eta bere eskailerak ditu. Etxe honetan XX. mendearen hasmentan bizi izandako familia bat ibilia zen lehenago Mauleko espartinen fabrika batean



Lezoko Unibertsitateko Udala

Gurutze Santuaren Plaza, 1
20100 Lezo
T. 943 52 46 50 E. info@lezo.eus
www.lezo.eus

LEZO
EUSKA
RAGA
RRI

lanean, Jazetaniako hainbertze jende bezala.

1955ean, PFEk erosi zuen Nofuentesko pardina, eta, arestian erran bezala, Corralonekoa ere hari zegokionez, bertan bizi zen azken familiak utzi behar izan zuen etxea. Bitxikeria bat: Biel herriko alkatea behin eta berriz saiatu zen bere herriak Nofuentesen zuen *alera* izeneko bazka-zorra berreskuratzen. Foru-alera hori aspaldiko eskubidea zen, eta haren arabera, udalerrri bateko biztanleek beren aziendak mugakide zuten bertze udalerrri bateko bazkalekuetara eramaten ahal zituzten, baina solik egunerako (“*de sol a sol y de era a era*”, eta hortik *alera* izena).


Gaur egun, Nofuentes-Corralón pardina-multzoa Aragoiko Komunitatearena da, eta ehizarako zein bazkalekurako erabiltzen da.

Bereziki azpimarratzekoa da pardina honen protagonismoa Francoren aurkako gerrilla zela eta; hango maizter ziren Cirés familiakoak makien kolaboratzaile fermuak izan ziren. 1944ko udazketetik goiti, sekulako laguntza eskaini zien gerrillarien brigadeti hegoalderako bidean. Gogoratu beharra dago gerrillaren asmoa zela Santo Domingoko mendilerroan elkartzea mugatik zetozen 186. dibisioko hiru brigada nagusiak: lehena Erronkaritik iragan zen; bigarrena Forges d’Abeletik abiatu eta Escalé pausua erabili zuen; eta hirugarrena, Bielsa ondoko mugatik.

Familia horretako kolaboratzaile nagusia 1917an sorturiko Florencio Cirés izan zen, *El chaval de Nofuentes*. Bitxiena da 1936ko Gerran armada frankistan aritu zela, eta gerran zauritu ondotik ohore-domina eman ziotela; eta horrek, doike, lausotu egiten zituen berarenganako susmo guztiak.

Kontua da, 1945eko urrian, Santo Domingora zihoazen bost gerrillarik Leskun aldeko Portiello d’o Ristéko lepotik muga iragan eta Oza aldera egin zutela. Etoparik txarrena beti Aragoi ibaiaren zeharkaldia izaten zen, zelatari frankista-falangista aunitz baitzen inguruan. Azkenean, lortu zuten aitzina egitea, eta gordeleku ona harrapatu zuten Arbues herriko hegoaldean. Eta ondoko gau batzuk, hain zuzen, Nofuentesen eman zituzten, Florencioren abegikortasunari esker.

Gainera, gizon horrek lotura-lan aunitz egin zituen, bikain ezagutzen baitzuten zoko-moko guztiak. Eta kon-tuan izan behar da, halaber, Cirestarren



Gerrillari antifrankistak Pirinioetan. Asabón inguruak ere makien bilgune izan ziren.

Etoparik txarrena beti Aragoi ibaiaren zeharkaldia izaten zen, zelatari frankista-falangista aunitz baitzen inguruan

etxean aunitzetan guardia zibilek egiten zutela lo; hortaz, handia zen hartzen zuten arriskua.

Erraten da, adibidez, Corralonen gau batean guardia zibilak zeudela beheitiko solairuan, eta makiak, sabaian; eta zenbait lekukok erraten dute Cirestarrek azienda makiak erabilitako bidetik eramaten zutela, arrastoak ezabatzeko.

Baina, azkenean, guardia zibilek atxilotu egin zuten Florencio Zaragozan, bertara joan baitzen erresistentziari gutun bat emateko asmoz. Handik denbora batera, aske utzi zuten, baina ez zen sekula Nofuentesera itzuli, eta nolabaiteko zaintzapean egon zen

Gurrea de Gállegon. Eta gobernadore zibilak lortu zuen Cirés familia ia osoa Nofuentesetik egozte, Florencioren gurasoak izan ziren adinagatik bertan gelditu ahal izan ziren bakarrak. Baina, hondarrean, azken ondasunak saldu ondotik, Sabiñanigora joan ziren bizitzera, eta bertan hil ziren 1972an.

Ibilbide honetako azken pardina ezagutu ondotik, bideak goiti egiten du Santo Domingo aldera; gero, ezker uzten du mendilerroa eta 1.145 metro-tan dagoen lepo bateraino egiten du, Longáserako norabidea harturik, zirkularra osatzeko xedez. Ondoren, hiru kilometroko jaitsiera egin eta Santo Domingoko Paisaia Babestutik aterako gara, eta oraindik 10 kilometroko bide zabala ibili beharra dago Longásera itzultzeko.

Iragan ez hain urrunera eginiko bidaia izan da, kuttunak ditugun zenbait kontu eskaini dituen: bakardadea, isiltasuna, Instagramera zorionez sekula igoko ez den orografia ustez arrunta eta bereziki bihurria, txorien kantuak, ustekabean agertzen diren behi eta behorrak, Asabón erreka xuxurla fina, birlandaketako pinuen nagusitasuna, erkametz gutxi batzuen goranahi isila, eta gerrillari antifrankisten zein pardinero laguntzaileen lortratz eta hatsa. ●

MONDRAGON, pertsonak elkarlanean

MONDRAGONen jarduera-arloak dira Industria, Finantzak, Banaketa eta Ezagutza. Euskal Herrian sustraituta, beren kooperatibek presentzia handia daukate atzerrian.

Hainbat merkatutan marka liderrak ditu: Laboral Kutxa, Copreci, Danobatgroup, Eroski, Fagor, Maier, Orkli, LKS eta Orbea, besteak beste.

Enpresa-jardueraz gain, gestio demokratiko propioa duen sistema baten bidez garatzen da eta inguruko gizarteaz konprometituta dago.

Kultura, ohitura eta hezkuntza babestea izan du betidanik Korporazioak bere ezaugarriak aipagarriena.

www.mondragon-corporation.com



GIZATASUNA
LANEAN


MONDRAGON

Finantzak
Industria
Banaketa
Ezagutza

IKASTURTEKO AZALAK

Iraila

Urria




Azaroa

Abendua




Otsaila

Martxoia







Maiatza

Ekaina



HILABETERO PILULA MONOGRAFIKOA



Azaleko ilustrazioak:

Joseba Larratxe *Josevisky*: 286-292 eta 296-297
Shu Otero: 293-295

Kamiseta **17 €**

Poltsa **10 €**

Bidalketa gastuak **5€**.
Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.
BIZUM bidez ordaindu daiteke.

KULTUR GOMENDIOAK

LIBURUAK



Transgresioa irakasgai. Hezkuntza askatasunaren praktika gisa

Bell Hooks

Itzulpena: Amaia Apaulaza Olló
KATAKRAK, 2023 / 214 OR.

Bai ikasle gisa beltzentzako eskola batean bizi izan zituenak, bai gero irakasle zela praktikara eraman zituen pedagogia askatzaileak eta horren bueltako erresistentzia, beldur, hutsegite eta fruituak bildu zituen Bell Hooks idazle, irakasle eta militante feministak iaz euskaratutako liburu honetan. Hezkuntza ardatz hartuta, ikasgelako dinamiketan klase, arraza eta generoa deskolonizatu beharraz, ahots eta gorputz baztertuez edota hezkuntzaren indar iraultzaileaz sakon eta argi dihardu saiakera honetan.

 Mikel Garcia Idiakez



Lurraz beste

Garazi Arrula

TXALAPARTA, 2023 / 200 OR.

Laudorio ugari entzun edo irakurri dut Garazi Arrularen bigarren ipuin liburuaz: gure garai kapitalista aldakor honek sortzen dizkigun noraezak, kontraesanak zein heldulekuak bikain jasotzen dituela bere pertsonaietan, erregistroen aberastasuna ipuinez ipuin, testua ironia maltzurrez zipriztintzeko duen gaitasuna, amaiera irekiak... Arrazoi askoz ere sinpleagoa –baina batere garrantzi gutxiagokoa– dago, ordea, *Lurraz beste* irakurtzeko: goi-mailako idazkeran murgildu, korronteak eraman zaitzan utzi, eta irakurtze hutsaren plazeraz gozatzea.

 Zigor Olabarria Oleaga



Ekonomia eraldatzaileak

**Oscar García Jurado eta
Olatukoopeko hainbat kide**

OLATUKOOP, 2024 / 92 OR.

Liburu bat baino, eskuartean ibiltzeko eta amesteko manuala da honakoa. Edo “pitzadurak irekitzeko mailu bat”, sarreran dioen gisan. Lanean eta herrigintzan erabili ohi ditugun hainbat kontzeptu ekonomiko berraztertzen ditu: ekonomia kapitalista, soziala, komuna, feminista... Zer den bakoitza, eta zer ez den. Burujabetatik eta autoeraketatik proposamenak ere egiten ditu, eraldaketa eta lurraldeak oinarri. Olatukoopek 10. urteurrena ospatzeko egin digun oparia, P2P lizentzia ez-kapitalistan eskuragai denontzat.

 Urko Apaolaza Avila



Palestinaren okupazioaz eta kolonizazioaz

Perry Anderson

Itzulpena: Amaia Astobiza eta Iñigo Roque

KATAKRAK, 2024 / 172 OR.

Ezagutu nahi baduzu Palestinako XX. mendeko historia, irakurri, adibidez, *Palestina, cien años de colonialismo* (Rasihd Khalidi). Eta Israel zer den ulertzeko, *La Idea de Israel. Una historia de poder y conocimiento* (Ilan Pappé). Biak ezinbesteko liburuak Israelek palestinarren aurka daraman genozidioa ulertzeko. Baina askoz laburrago, sakontasunez eta euskarazko bazka ederra nahi baduzu, Perry Andersonena bikaina da. *New Left Review* aldizkariko 2001eko eta 2015eko bi artikulua dira, eta zapalkuntza honen historia eta gaurkotasuna ulertzeko puntu giltzarriak eskaintzen ditu.

🔗 Xabier Letona Biteri



Herriak du gehien agintzen

Raquel Varela eta Robson Vilalba

Itzulpena: Eskarne Mujika Gallastegi

TXALAPARTA, 2024 / 175 OR.

Portugalgo Krabelinen iraultzak 50 urte bete dituen honetan, Europako azken hamarkadetako iraultza sozialik sakonena ezagutzeko gonbidapena da komiki hau. Ez da, baina, historia liburu bat. Herria agintzera nola iritsi zen kontatzen da, ezkerreko mugimenduetan burubelarri ibili zen José protagonistaren bizipenen bidez –egiazko historia da–. Niretzat ezezagunena: hiru urteko herri-boterearen dimentsioa eta hori kamustea nola lortu zuen erreformismoak. Robson Vilalbarek zuri-beltzeko ilustrazioek oso modu berezian irudikatzen dute historia.

🔗 Lander Arbelaitz Mitxelena



Todo bajo el sol ("Dena eguzkipean")

Ana Penyas


SALAMANDRA GRAPHIC, 2021 / 160 OR.

Masa-turismoa, hirigintza-espekulazioa eta drama soziala. Penyasek geroz eta hiri gehiagoren arazo diren gentrifikazioa eta ekoizpen-eredua zalantzan jarriko ditu Levanteko kostak 1960. hamarkadan jasandako txikizioaren bidez. Hamarkadetan zehar, neoliberalismoaren gorakadak familia bateko kideen itxaropenak eta proiektuak nola eraldatuko dituen kontatzen du. Adreiluaren *boom*-agatik beren lekua utzi behar izan zutenei eskainitako kronika grafiko gordin bezain ederra.

🔗 Maitane Gartziandia



BAKARRIZKETAK



ANTZEZLANAK



FAMILIARRAK

TTiPiA

EKOIZPENAK MANAGEMENT



www.ttipia.eus



Arkitekten ("Arkitektoa")

Norvegia

Non ikusgai: Filmin

KERREN LUMER-KLABBERS, 2023 /
4 KAPITULU x 20 MIN.

Etorkizun distopiko ez oso urrun bat erakusten digu etxebizitzaren problematika ardatz duen telesail labor honek. Prezioek goraka eta soldatek berdin jarraitzen duten etorkizuneko Oslon, ideia bat otu zaio arkitekto bati: lurpeko aparkaleku hutsak bizileku bihurtzea –etxebizitza esatea gehitxo litzateke–. Eta paradoxikoena da proiektua diseinatzen duen arkitektoa bera ere bertan bizi dela. Errealitate gordin bat, kolore eta forma hotzekin kontatuta.

👤 Eneritz Arzallus Alustiza



Planet Earth ("Lur planeta")

Hiru denboraldi, 25 atal guztira, ordubetetik behera denak

BBC

Gutxitan egoten naiz telebistari begira ahoa irekita, "ez da posible" sentrazioak erabat kateatuta. Segundo gutxi batzuetako eszena baten atzean zenbat lan –eta pazientzia– dagoen irudikatze hutsa nahikoa da. Erratzeko beldurrik gabe, ikusi dudak gizakiz besteko "animaliei buruzko" saiorik onena da. Lur kastigatu honetan bere burua, eta bidean besteena, suntsitzeko gai den animalia bakarra izanik, inguratzen gaituenarekiko horrelako begirada ederrak sortzeko gai garena ikusteak itxaropena pizten du.

👤 Axier Lopez



El mestre que va prometre el mar ("Itsasoa hitz eman zuen irakaslea")

Herrialde Katalanak
Non ikusgai: Filmin

PATRICIA FONT, 2023 / 105 MIN.

Errepublika ezarri berritan, Euskal Herritik gertu, Burgosko herrixka batera Kataluniatik joandako Antoni Benaiges izeneko irakasle gaztearen historia kontatzen du filmak. Eta hiru belaunaldi berantago, gaur egun, bere birraitona Antoni fusilatua gorpuzkien bila dabil pertsona bat. Irakasleak herri horretan topatu zituen oztopoak eta horiei aurre nola egin zien kontatzen du filme hunkigarri honek. Espainiako Errepublika garaiko irakasleei eta beren metodo aurrerakoiei eginiko merezitako omenaldia.

👤 Lander Arbelaitz Mitxelena



Done Bikendi 2 - 48001 Bilbo
Tel: 94 423 75 91
e-mail: bulegoa@zenbatgara.eus

**Hamaika bide
hamaika aukera**



www.zenbatgara.eus














A Silence (“Isiltasun bat”)

Frantzia, Belgika, Luxemburgo
Laster plataformetan

JOACHIM LAFOSSE, 2024 / 100 MIN.

Haur pornografia eta pedofilia kasu baten inguruan hitz egiten du pelikulak. Abokatu entzutetsu bat da erasotzailea, hain justu ere pederasta mordo bat kartzelara eramanez dituenak. Bere biktimak, berriz, publikoki berak defendatu dituenak dira. Gogorra da istorioa, bai. Baina are gogorragoa enfokoa. Polemika ere sor dezake, onar dezaket, fokua bere emaztearengan ipinita baitago. Gertatzen ari denaren gehiengoak daki berak, eta isilean mantentzen du dena. Interesgarria da bere rola: presioa, urte luzez isilik egon izanaren inertzia, pisua... Hotza da, bihotza bero duen arren. Askotan esaten dute begiradek, eta biolin doinu melankoliatsuek ondo janzten dute kontakizuna.

👉 Gorka Peñagarikano Goikoetxea



Alde erantziz

Amets Jordan Arrieta eta
Egoitz Arbiol Albeniz

NAIZ IRRATIA / PODCASTA

“Saltoak. Aukera berriak ekartzen dituzten jauziak. Segurtasunez egiten direnak benetako bermerik izan gabe. Apur bat eroa egon behar omen da horrelako saltoak egitera ausartzeko, edo onartu behintzat erotzat joko zaituztela”. Eroa-rekin abiatu zuten Ametsek eta Egoitzek Taroteko kartak bidelagun dituen irratsaio hau. Tarota ez modu iragarle batean ulertuta, baizik eta hausnarketarako tresna gisa. Saio bakoitzean Arkano Nagusi baten sinbologiatik abiatuta giza-esperientziez ariko dira. Magiari uko egin gabe, irekitasunez entzunteko saioa.

👉 Maitane Gartzandia




Irratiak ordaintzen digu tren

Ion Celestino eta
Amets Aznarez

EUSKALERRIA IRRATIA / PODCASTA

Politikoki zuzenetik aldentzen den ohiko jardun umoretsu orok ongietorria behar luke gurean. Esku batez zenbatuz gero, hatz asko soberan ditugu. Gainera, gipuzkera eta gipuzkoazentristotik at sortua izanda, puxtarri gehiago. Ordubetez, bi lagun, sarri gonbidatu batek lagunduta eta gai *randomei* buruz. Bi ahots musikari izanik, kulturak, musikak eta Iruñerriko *mugide* presentzia nabaria dute, baita gonbidatuen profileen ere. Gustatuko zaizu. Bo, agian ez. Baina berdin dio. Halakoengatik Iruñeak gero eta gehiago du hiri buruzagitik, eta zorionez gero eta gutxiago *ramplona*-tik.

👉 Axier Lopez





Giza zarata

Anari

TRISTURAREN INDUSTRIA, 2024 / 38 MIN.

Anariren lan berria irensteko gose zena erabat asebeteta uzteko moduko diskoa atera du azkoitiarrak. *Troiako zaldia*-rekin hasita, ekosistema sentsorial batean sartu gaitu, eta *Giza zarata*-ren azken notak apurka isildutakoan ere atmosfera horretan harrapatuta utzi. "Garaiaren sentsazio bat" transmititu nahi izan du Anaririk, tesirik esplikatu gabe; ederki asmatu du hitz konplexu askorik gabe aro arraro hau zorrotz kontatzen. Beldurraren narrazio konpartituak eskaini dizkigu, beste behin, eta zaratatik gutxi duten eta espazio osoa betetzen duten instrumentuak bikain josi dizkio parekorik ez duen ahotsari.

Leire Artola Arin



Negu Gorri

J Martina

BALAUNKA, 2024 / 24 MIN.

Paktua abestiarekin aurkeztu zuten diskoa, eta hala esan zidan lagun batek kanta entzun zuenean: "Uf, ederki sartuko da hau udan!". Halaxe da; kizomba erritmoak eta autotunea nahastuta, infernuan deabruarekin dantzan ibiltzeko moduan. Baina *Negu Gorri* du izena diskoak, eta abesti dantzagarriak bai, baina neguko hotza bezala barrura sartzen direnak ere baditu J Martina taldearen azken lanak. Letra zorrotzak lagun, ohi duten bezala. Uda eta negu, buklean entzuteko horietakoa, zalantzarik gabe.

Eneritz Arzallus Alustiza



Ubera

TikTara

AUTOEKOIZPENA, 2021 / 28 MIN.

Gaur ere bihotzean al dun tarrata? Begiak berriz hasi zaizkin ttanttaka... Hitz horiekin hasten da diskoako lehen abestia, *Axuri preto*, eta bis dotorea koroekin gero. Letra leitzeak tristura eragin badezake ere, ez du horrelakorik talde honek... Eutsi apustuari: entzuten jartzen dena ezetz geldirik geratu. *Ze, joño*, a zer salsa datorren kostaldetik. Kantauriko kresalaren eta hego haizeak dakartzan soinuen konbinazioa omen, munduko musiken eragina ere, marimba, klarineta, saxo tenorra, charangoa... eta denetarik. Mugitu gerriak!

Gorka Peñagarikano Goikoetxea

AMURRIOKO UDALA

Juan Urrutia plaza z/g
01470 Amurrio
Tel.: 945 89 11 61
Faxa: 945 89 16 45
amurrio@amurrio.eus
www.amurrio.eus



AMURRIO UDALA  AMURRIO AYUNTAMIENTO

Egunez egun euskararekin konprometituri

IBILBIDE DEKOLONIALAK

Bilurren itzal luzea gure geografian

Iraganera bidaia bat egitea proposatuko dizugu hemen, irakurle. Iragan desoroso batera. Azken bost mendeetan euskal herritar franko ibili da munduan barrena konkista eta kolonizatzeko prozesuetan, baita esklaboen salerosketan eta esplotazioan ere. Baina hori apenas ageri zaigu liburuetan, are gutxiago gure hiri eta herrietako kaleen izen zein izanean. Esklabotzaren gaia, "ez-memoria" bat da Euskal Herriaren historian, EHUko irakasle Oscar Álvarezek idatzi duen gisan. Gure iruditerian geratu zaiguna da giza

trafikoa ez zela existitu lurralde honetan, eta herrietako jauregi, armari eta industriak eraiki zirela merkataritza trebeei esker, horregatik zor dizkiegula plakak kale-kantoietan eta eskulturak plaza nagusietan. Hori guztia biluztu gura dugu bost ibilbide hauekin: Donostia, Lapurdiko kostaldea, Gasteiz, Ibaizabal eta Nafarroako Mendialdea izan ditugu abiapuntu eta helmuga. Baina izan zitezkeen Cádiz, Sevilla, Bartzelona, Habana edo Manila... Uste baino luzeagoa baita ez-memoria horrek ezkututzen digun itzala.

 URKO APAOLAZA AVILA



Getariako Iturritxikin
itsasondoan aurkituriko letoizko
uztaiak, esklaboen salerosketarako.

BULEGOA Z/B

1 Donostia

Non gogoia, han ezpata



Senegaldarrak Monte Igeldo jolas parkean, 1926an.

Turista jende oldeez ihes egin eta Kontxako barandatik Donostia-ko kaira begiratzea lortzen baduzu, agian joango zaizu irudimena itsas merkatal hiri bizia izan zen garaira; kaioen soinu bandak lagunduko dizu horretan. Akaso eleberri barojarren batean murgilduko duzu gogoia, eta nautiko zein kapitainak zain izango dituzu auskalo zein paretetan zintzilikaturiko Antilletan. Baina ez gaitezen hain erromantiko jarri, Donostiak badituelako beste historia ilunago batzuk ahaztuta bere paretetan.

Metropolitik kolonietara eta kolonietatik metropolira, ehunka urtetako aberastasuna pilatu da indarkeriazko trafikoarekin hemen ere. Ibilbide hau hasiko duzu Uliako magalean, **Manteo kultur etxearen (1)** eraikinean. Okendotarren XVI. mendeko etxeak dotore erakusten ditu bere harlanduak eta armarraria. Miguel Okendok Felipe II.a Espainiako erregearentzako Gipuzkoako eskoadran egindako zerbitzuen saria da, sarraskituriko indiarren eta zapal dutako donostiarren umiliaziarako.

Leinu hartako seme batek Antonio Okendo espainiar enperadorearen almirante izandakoak, badu **plaza bat (2)** Urumea ertzeko tokirik hoberenean, eta haren erdian garai eta harro ageri

da bere eskultura, foru galerarekin *gure* balentriak erakutsi behararen sinbolo. Gipuzkoa Plazako **Diputazioaren eraikinean (3)** loriaturiko bost gizon handietako bat dugu Okendo ere, Urdaneta, Elkano, Legazpi eta Lezorekin batera.

Handik ez oso urrun, Alde Zaharrak ilustratuen garaiko edifiziorik ezagunena erakutsiko digu: **Koruko Andre Maria basilika (4)**. Badu halako aire bat bisitariak gehien fotografiatzen duten tenpluhark. Zerdu? Kolonialismo adario. Ez alferrik eraiki zen Caracaseko Gipuzkoar Errege Konpainiaren diruekin; kakaoarekin ez ezik, esklaboekin ere trafikatzan zuen enpresa txit goraiatuak -12.000 esklabo garraitu zituen, Hugh Thomas historialariaren arabera-. Kaiko moilan dagoen **Kontsultuaren dorretxea (5)** ere, egun Euskal Itsas Museoa, garai hartan eraiki zen fortuna antzekoen gerizpean, barruak marmolez apainduta.

XIX. mendean Donostiak harresiak eraitsi eta zabalguneekin "bidea libre" geratu zitzaion burgesiari negozioetarako, Josu Tellabide etnologoak gogoratu digun bezala. Hareatzetan jasotako etorbide berri horietan barrena abiatuko gara, XX. mendeko frankismora arte zizelkatutako izendegiari bea: errege-erreginen izenak eta espekulatzaileen



NOLA EGIN:

Gros auzotik abiatu eta Donostia erdialderantz egin daiteke goiz pasa, oinez. Alde Zaharra ezagutu eta ondoren Antigua auzorantz jotzeko.

deiturak dira jaun eta jabe.

Antiguara iritsita, **Matia kalea (6)**. Manilatik Kuba, Peru eta Panamara txinatarrak garraiatu zituen José Matia audioarraren omenez jarria, bere ondasunak utzi zituelako egun Matia Fundazioa den horretan. Eta ez oso urrun, **Brunet kalea (7)**, Amerikako esklaboekin ekoiztutako kotoiaren negozioantente familia. Hondartzaren kontratan, berriz, **Satrústegi etorbidea (8)** dugu. Patricio Satrústeguik kabotaje enpresa batekin esklaboak garraiatzen zituen Kuban XIX. mendean, Antonio López enpresari ezagunarekin eskuz esku. Besteak beste, horri esker eraiki zuen Igeldoko mazeletan oraindik zutik den **Satrústegui jauregizarra (9)**.

Bidea amaitu dezakegu "**Monte Igueldo**" (10) jolas parkean nahi badugu. Baina ezin ahaztu zoo humanoak antolatu zituztela hor ere, Europako beste hiri askotan bezala -*Irutxuloko Hitza*-n Xalba Ramirezek kontatu digunez-. 1926an senegaldar jatorriko hiru tribu "kontratatu" zituzten horretarako. Igeldoko talaiatik Donostiako kaira so, kaioen soinu banda berriz ere... Noretak ez al zaizkizu estridenteko orain? ●

2 Lapurdiko kosta Bois Caïmaneko erresonantziak

Azal beltza eta ile kizkurra gorabehera, gizaki garaiezinak izaten jarraitzen zuten, gizakien adimen eta erresuminarekin". Hala idatzi zuen esklaboengurua CRL Jamesek, Haitiko iraultza maisuki kontatzen duen *Jakobino Beltzak* liburua. Hainbeste basakeria, tortura eta mutilazio, haiek otzan mantentzeko... eta azkenean garaiezin, gizakiak izaten jarraitzen zutelako. Haitiko Bois Caïmanen budu erritual baten ondoren esklaboek jaurtitako oihua Baionako karriketara ere iritsi zen 1791n, eta gaur egun karrika berak zapaltzean suma dezakegu oihartzuna. Nantes, Arroxela eta Bordelerekin batera, esklabo trafikoan Atlantikoko portu nagusietakoa izan zen Baiona XVIII. mendean.


Bokale ingurura joan gaitezke has-teko, hiriko **portua (1)** zegoen tokira, egun industriek erabat desitxuratua. Moila horietan eraiki ziren Afrikako kostaldera eta Amerikako frantziar kolonietara abiatzen ziren itsasontzi mordoak. Jean Mettas historialariak dio XVIII. mendean gutxienez hamar espedizio irten zirela Baionatik esklabo bila: Pierre Dolhondek 1765ean gidaturiko *L'Hereuse* ontziarena dugu adibide (249 esklabo). Hemen egin zen -eta hemendik irten- 1761ean *L'Utile* ontzi ezaguna, Tromelin irla ñimiñoan 80 esklabo abandonatu zituen zorigaiztoko patuaren pean -eskifaiako kide ugari euskaldunak ziren-.

Portuan ez ezik, Baiona zaharreen ere aurkitu ditzakegu kolonialismoa eta arrazakeria darien tokiak, iragan inperial baten izendegian barrena. Mémoires et Partages elkarte anti-arrazistak bisita gidatuak egin izan ditu horiek ikustarazteko. Aturriren bestaldean, Saint Sprit auzoan, afrikar diaspora presente dago oraindik; **Didam arte espazioa (2)** "itsas gaietarako" erai-kina zen duela hiru mende, eta haren parean kontatzen dute nola abolitu zen 1848an frantziar kolonietan esklabo-

tza. Baiona Handian berriz, geldiunea egiten dute espedizio horiek finantzatu zituzten **Philibert de Gramont (3)** gobernadorearen eta **Léon de Brethous (4)** bankariaren izena daramaten kale eta hotelaren aurrean. Ez dago kartelik hori jartzen duenik.

Elkarteak, bere kontzientziario borrokaren ondorioz lortu du **Cafe Negro (5)** kafetegiak izenez aldatzea eta aha-lerin horietan ari dira Biarritzeko **La Negresse (6)** auzunearekin ere.

Zenbat nomenklatura gutxiesgarri. Ziburura jauzi eginez gero, beste bat: **Belzenia (7)**. Jauregi hartako etxolatan esklaboak giltzapetzen zituztela adierazten digu izen horrek. 1802an esklabo andana eduki zuten bertan, Michel Joseph Lerembure anti-abolizionista donibandarrak aginduta, Haitiko bere kafe soroentzako. Aberastatsun horren bidez, bere seme Paul-Salvador ezkondu eta eskuratu ahal izan zuen Donibane Lohizuneko **Lohobiage-Enea (8)** edo "Luis XIV.aren etxe" ikusgarria, egun bere oinordeko batek irribarretsu erakusten duena, Bois Caïmaneko erresonantziei entzungor. ●



"Lohobiage-Enea jauregia, aurrean Donibane Lohizuneko portua duela.

SAINT-JEAN-DE-LUZ EN PAYS BASQUE

3 Gasteiz

Azukrezko jauregiak eta historia garrantzak

Epika gizagaixo askoren bizitzen gainean eraikitzen da eta hori ezagutzeak helduago egiten du jendartea". Arrazoi du Bibiana García idazleak. *Azucra* (Pepitas de Calabaza, 2021) liburuan XIX. mendeko migratzaile galiziar esklabizatuaren tragedia kontatu digu; baina historia hori berdin zatekeen gosetik edo gerratik ihesi zihozen euskaldunena. Garai hartako prentsa lekuko. *El Anunciador Vitoriano*-k 1880an zioen Cadizen, Sevillan, Santanderren... bazirela "diruak usteldutako" pertsonak migratzaileak esplotatzeko prest, esklabo beltzekin egiten zen gisan. *El Gorbea*-n gutun hau irakurri dugu (1889ko otsaila): "*Ohol baten gainean egiten dut lo eta gaua baino tristeago jartzen da ene bihotza. Jana ezin da irentsi, bi orduko gaua eta bagoaz lanera, eta egun osoan ordubeteko atsedena besterik ez. Zakurrak bagina bezala gaude hemen*".

García dioen moduan, beti egongo baita egoera horietaz aprobetxatuko den "eskrupulurik gabeko jendea". Domingo Aldama gordexolatarrak, adibidez, euskaldunak inportatu nahi izan zituen Kubara garai hartan, bere azukre-olatan kasik esklaboen baldintzatan lan egin zezaten: *mis vizcaínos* deitzen zien.


Julián Zulueta, aldiz, osabak Kubako Matanzaseko azukre sailekin egindako dirutzari esker bidaiatu zuen **Anuntzetatik** Habanara, eroso. Arabako herri hartara hurbiltzen bagara, dotore ikusiko dugu bere sortetxea izan zen jauregia.

Zulueta XIX. mendeko trafikatzailerik handienetakoa bihurtu zen: afrikarrak, txinatarrak, maiak... zer ez zuen saldu eta erosi? Ia 100.000 esklabo garraiatu –Hugh Thomasek zioenez– eta milioika erreal metatu zituen. Esklabista honek egindakoa ezagutzeko modu on bat izan daiteke Irati Antfak sorturiko **Azukrebeltza.eus** erakusketa birtualean barrena bidaiatzea. Eta bestela, Gasteizen bueltatxo bat egitea nahikoa

da, azukrearen gozoak lohitutako bazterrez jabetzeko.

Zulueta 1878an hil ondoren, seme-alabek bere kapitalaren zati bat aberri-ratu zuten eta jauregi dotorez josi zuten hiria. **Zulueta jauregia (1)** Alfredo Zulueta eraikiarazi zuen, eta **Arabako Arte Ederren museokoa (2)** Elvira Zulueta. Azkeneko honek badu **kale bat (3)** bere izenean hortik gertu, dirua eman zuelako dohaintzan –bestek beste **Gasteizko Gotzaindegia (4)** egiteko–, esklaboen odolez lorturiko dirua eman ere. Julian Zulueta hurrak **Santa Isabeleko hilerrian (5)** daude, gainerakoengandik nabarmentzen den mausoleo erraldoian.

ContrApunto Decolonial kolektiboak ibilbide gidatuak egin izan ditu Gasteizen, ez soilik Zulueta hurrak jarraiki, baita **Manuel Iradierren eskultura (6)** aurrera ere, XIX. mendeko Afrikako "esplorazio" erromantikoen itzalean zeuden interes kolonialak agerrarazteko. Bide batez, munduko esploratzaile handienetako batek, **Henry Morton Stanleyk (7)** kale bat du bere izenean Zabalgana auzoan, Belgikako Leopold II.ari Kongon milioika lagun esklabizatzeko bidea ireki zion berak. Epikoa zinez. ●



NOLA EGIN:

Oinez edo bizikletaz egiteko modukoa, goiz edo arratsalde pasa. Tren geltokitik edo Arabako campus ingurutik hasi, Zulueta hurrak jauregiak ezagutu eta ondoren Zabalganarantz egin daiteke; Santa Isabel hilerria handik 10 minutura dago, eta Alde Zaharra itzulia amaitzeko toki aparta da.



Arabako Arte Ederren jauregia Gasteizen.



4 Ibaizabal

Tximinien giza elikagaia



El vengador ontzia esklaboz betea, Ybarratarrek Afrikara bidalitako bigarren espedizioan.

Euskal Herriko lurralde industrializatuenean gaude, Ibaizabaleko Ezkerraldean, edo Bilboko itsasadarrean, nahi bada. Hemen tximiniek agindu zuten behinola. Baina haiek elikatzeko ez zen soilik ikatza erabili, milaka langileren izerdia ere bai, eta are gehiago, milioika esklaboren odola erabili zen. Tximinia horiek jasotzeko kapitala urruneko kolonia esklabistetako dirutzarekin metatu zen, hein handi batean.

Robert Wedderburn ingeles-jamaikar abolizionista erradikalak zioenez, historiaren alde kapitalista desjabetzarekin lotzen den gisan, proletarioena erresistentziarekin lotu behar da. Peter Linebaugh eta Marcus Redikerren *La hidra de la revolución* (Hidraren iraultza, Traficantes de Sueños, 2022) liburuan irakurri dugu halakorik. Wedderburnek garbi zuen berandu baino lehen iritsiko zela iraultza, hala kolonietan nola lan-tegi eta meatzeetan. Baina espainiar inperioko esklabistek mende bat gehiago iraun zuten praktika inhumano horretan gotorturik, eta XIX. mende hasierako liberazio prozesu horiek apenas dute lekurik gure hirien iraganeko kontakizunean, Bilbo dugu adibide.

Espainiar gobernadore, ministro zein militarren omenezko zumardi eta etorbideak nonahi aurkituko ditugu Bilbon oraindik. Ibilbide honetan, ordea, batek eman digu arreta: **Luis Power kalea (1)**, Deustun.

Luis Power Echavarri “ausart ezezaguna” eta “heroia” izan zela irakurriko dugu zenbait hedabidetan, 1808ko frantsesen kontrako Bilboko altxamenduan jokatu zuen paperagatik. Baina ezin ahaztu bere karrera eta fortuna, aitzak Puerto Ricon Compañía del Asiento de Negroseko agente bezala egindako lanari zor ziola. Martín Rodrigo Alharilla ikerlariak berriki plazaratu duen *España Esclavista* webgunearan mapan ageri da informazio hori. Powertarrek, jatorriz irlandarrak izan arren, aitona Bordelekoa zuten, eta barku-kortsarioen jabe ziren, esaterako *Perla Vizcaína* izenekoa.

Geroago, XIX. mendean, Bilboko **Areatzako (2)** moiletatik espedizioak irten ziren esklaboak salerostera, Juan José Zangroniz trafikatzailerak etxebarrirak aginduta. Adibidez, 1816an *Flora* izeneko ontzia itsasoratu zen Afrikarantz. Baina hori ez da inongo kale eta plakan irakurriko.



NOLA EGIN:

Garraio publikoa erabilia aisa iritsi gaitzke toki guztietara. Bilbotik hasi eta Portugalete zein Santurtziraino.

España Esclavista-ko mapari jarraiki itsasadarrean behera Portugaletera joan gaitzke, Manuel Calvo esklabista handiaren ondasunak bisitatzerantz –200 esklaboko *Portugalete* azukre-ola zuen Kuban–. **Gran Hotel Puente de Portugalete (3)** bere antzinako jauregia, **hilerrian (4)** duen panteoi erraldoia, **Manuel Calvo kalea (5)**... itzal luzea utzi du Calvok herri horretan.

Aurrerago joanez gero, Santurtzira iristen bagara, **Cristobal Murrietaren (6)** omenezko eskultura ikusiko dugu, Matía y Menchacatorre Cía konpainiarekin Perura txinatar kolonoak inportatzen zeregin garrantzitsua izan zuen finantzaria, eta Santurtziko **Itsas Eskola (7)** zein beste hainbat azpiegitura eraikiarazi zituen, antza, bere burua garbitzeko.

Santurtzik itsasontzi esklabista bati izena ere jarri zion: *Cazador Santurtziano*. 1833an, esklabo trafikoa jadanik ilegala zela, 681 afrikar edo *bulto* garraiatu zituzten bertan Kubaraino, Angel Elorriaga santurtziarra kapitain zuela. Zein zegoen operazio horren atzean? Besteak beste Jose Antonio Ybarra, halako inbertsioak egin zalea eta historiaren alde kapitalistan nabarmendu den familia ezaguneko kidea. ●

5 Nafar mendialdea *Armarrien kapitalak*

Meharbaita etxea Sunbillan, armarrri eta guzti.



GOOGLE MAPS

Nafarroako Mendialdetik milaka lagunek hartu zuten Amerikarako norabidea XIX. mendean, artzaintzan edo beste zereginetan bizibidea ateratzeko. Raquel Idoate historialariak haietako 4.000 ingururen historia berreskuratu du bere tesian: bidaia nola egin zuten, zertan inbertitu zuten, herentziari buruzko paperak, norekin ezkondu... Baina alderdi ezezagunago bat ere deskubritu du Idoatek, migratzaile horiek esklabotzarekin zuten lotura erakusten duten frogak: "Idazki oso interesgarriak dira, zenbait nafarrek Kuban izan zituzten kafe eta azukre negozioen barruan esklabo salmentaren testuinguruan egingakoak", dio.


Abiapuntu horretatik, Bortzirietan barrena Iruñeraino eramango gaituen ibilbidea egin dezakegu, herriz herri, esklaboak han, esklabistak hemen. Lan horri esker badakigu, adibidez, 1866an Jacobo Ordoqui **lesakarrak (1)** "Kubako mulato bat" libre uzteko agindu zuela, jabea zelako noski. Edo garai beretsuan **Berako (2)** Felipe Elzaurdiak *Vera* izeneko azukre-ola handia saldu zuela Kubako Cárdenas probintzian, bertan lan egiten zuten 40 esklabore-

kin: 22 urteko Timeo, 37ko Leandra, soilik bi urte zituen Bartolo... kreoleak, lucumíak, yangak, macuak eta asiarrak "kolonoak" zituen jabetzan beratarrak.

Ezagunagoa dugu Martín Belarraren kasua, **Igantzikoa (3)** jaiotzez, nafar diputatu izana, giza trafikokoan jardun zuen eta 1833an 700 esklabo garraiatu zituen Antilletara, *Cazador Santurzano* itsasontzi ezagunaren espedizioan. **Etxalarren (4)** eta **Arantzán (5)** ere baditugu kasuak. Azkeneko honetakoa zen Martín Arostegui, Cádizeko Beltzen Konpainiako trafikatzaile izandakoa.

Bidasoan gora segitzen badugu, **Sunbillan (6)**, Meharbaita jauregi ederra aurkituko dugu armarrri eta guzti, oteizatarrek Amerikako diruz eraikia. Francisco Jorajuriak erosi zuen XIX. mendean, Kuban Julián Zulueta esklabistaren *Alava* azukre-ola kudeatzen aberastu ondoren. Kolonialista dirudunei ikasitako luxuzko bizitzari segi, argindarra, komunak eta txorrotako ura zituen Sunbillako etxe hark.

Malerreka utziz gero, mendebalderago, **Leitza (7)** dugu zain. Baleztena abizena ezaguna da han. Familia horretako José Joaquín Kubara joan zen 1820an, eta esklaboek -"arrak eta



NOLA EGIN:

Autoz egiteko itzulia, edo bizikletan, sasoiaren egonez gero. Egun oso beharko da, lehenik Bortzirriak, Malerreka, Leitzaldea eta azkenik Iruñera iristeko.




emeak"- landutako bi kafe-sorotatik lorturiko sosak poltsikoan zituela itzuli zen, aberats. Gero, Nafarroa osoko korralizetan inbertitu zuen, Leitzako elizari altxorrek eman zizkion, eta **Iruñean (8)** jauregi handi bat erosi Diputazioaren eraikinaren ondoan. Gainera, oinordetza ziurtatzeko, María Cruz Muñagorriekin ezkontzea negoziatu zuen, bere ondasunekin tratuan aritzen zen modu beretsuan.

Ezkontzaren sexu erabilera erreproduktibo hutsa ez zen salbuespena noski. Gauza bera egin nahiko zuen Cristobal Arleguik, baina ezin... Filipinetan zein Kuban Matía, Zulueta eta Aguirre esklabo trafikatzailleekin negozioak egin ondoren, oso goiz hil zen. Bere anaietako bat, ordea, Iruñea alboko **Arlegi (9)** sorterrira itzuli zen ezkontzera, eta Góngorako markesari hango jauregia eta zendeako lurrak erosi zizkion. Gaur, dorre luze ilun baten itzala baino ez da iragan are ilunago hori, Iruñerriko zerumugan. ●

IPUINA

HUTSUNEAREN SOINUAK BERBA EGIN ZUENEKOA

AINHOA URIEN TELLETXE SHU OTERO



Hasi aurreko oharra: Hemen kontatzen den istorio hau errealitatean oinarritutakoa da. Sormen prozesu baten ondorioz fikzionatuta daude zati batzuk. Dena dela, memoria historikoaren alde, ageri diren izen-abizenak eta bestelako datuak egiazkoak dira.

Azala izerdiz blai du erditzear den emakumeak. Indarka ari da: minari eusten, umeari eusten, biziari eusten. Julia Amesti da. 1937ko martxoaren 31ko goiza. Ermuko Orbe Kardinala izeneko plazan dagoen etxe batean. Lehenengo solairu batean dago etxea, denetarik saltzen duten denda baten gainean. Gerora, eta orduan jakingo ez bazuten ere, hasi berri zen gerra latz hura besteko gerraoste latzean errazionamendu-liburuxkarekin joango ziren hara bertara. Txokolata ere ematen zutela gogoan du bateron batek.

Bederatzi bat hilabeteko egotaldiaren ondoren mundua arnastu gura du Juliaren sabel barruan den Agurtzane Salaberria Amestik. Nahi baino, behar du. Nahitasuna kontzientziari lotuegia baita oraindik bere buruari aurpegirik jartzen ez dion izaki bati

atzikitzeko. Izenak izana berez emango badio ere, urteen poderioz egingo du izena izanaren parte. Beste guztion antzera, esan gabe doa. Instintu hutsez jokatu du denbora batez, sabelera iristen zitzaizkion elikagaiak hartuz. Behin munduratuta, izenak izana eman artean edo, are, izana izenari atxiki baino lehen denik ere ez dakiena izango da. Harean-harean hizkuntza, pentsamendua eta borondatea garatuko ditu. Beste guztion antzera, esan gabe doa. Pentsatzen hasiz gero, bizi-zikloak hain ezberdinak ere ez dira gu guztiongan. Ziklo horietan gertatzen diren esperientzia eta moldaera guztiek egiten gaituzte garen hori. Agurtzane, beste kontu askoren artean, jaio zen egunak egin du. Jaio zen egunaren gainean gordetzen duen akorduak, kontatu diotenak, kontatzen duenak. Gorpuzten duen bizipen horrek.

Agurtzanek berak kontua kontatu zuenetik hura burutik kendu ezinik dabil Ines. Denera jarraitzen dio, beharrera, entrenamendura, parrandara. Garrantzia edo buruhauste handiegirik eman ez arren presentzia egundo galtzen ez duten kontuen antzera. Hortxe daude, uste ez ditugunean ere. Inesek jakin badaki egundo entzun duen konturik hunkigarriena dela. Munduak baditu bizipen emoziozante pila bat, bihotz altxagarri diren istorioak eta desesperantzara abailtzen gaituztenak. Baina berari huraxe gelditu zaio. Irakurzalea da, Agurtzaneren beraren antzera. Zaletasun horren aitzakian ezagutuko dute elkar Inesek eta Agurtzanek. Afizio horrek elkartu izanak ahalbidetuko du historiaren transmisioa. Afektua garatuko da, beste ezeren gainetik. Elkarrenganako miresmen eta hunkidura. Horrexek jarraituko dio Inesi, testu hau idaztera eraman duen historia txikiak bezala.

Igerilekuan murgildu da Ines. Hamaika kezka ditu buruan. Haien artean, baina, presentziarik galdu ezin duen kontu hori du nonbait atxikia, gorputzean oihartzuna eragiten dio. Kokots pareraino hondoratu dago. Begiak itxi eta burua igerilekuan murgilduko du, eta artean mundurik arnastu gabea zen sasoiatorrako zaio gogora. Sumatu egingo du, oso ondo zer den jakingo ez duen zera bat. Uretan burua sartu, begiak itxi eta hutsaren soinua entzuten du. Bai, hutsak badu soinua, eta ez da isiltasuna. Hutsaren soinua

hegazkinetako komunetan egoten da, kobazuloetan eta igogailuko hutsuneetan. Hutsaren soinua urpean ere igartzen da.

Pentsamenduak ihesi doaz, norabait. Ezin ditu harrrapatu, ezta nahi ere. Horrexetara etortzen da igerilekura: ihes egiteko bere modua da. Ihes egin lanaren estresetik, hari batetik dingilizka dagoen harremantetik, autonomo-kuotatik, lagunaren mezutik, txakurraren kaka egin beharretik, hiriko zurrunbilotik eta kortako sahatz usainetik, ordaindu gabeko isunetik, institutuko kide ohiekin egin beharreko bazkaritik, joan nahi ez arren joan behar duen despedida txatxu horietako batetik, etxe-jabeari komuna hondatu dela esan beharretik, osteguneko pintxopotetik eta igandeko derrigorrezko biharamunetik, gasolinaren garestiztetik eta soldataren jaitsieratik. Ihes egin nahi kontu guztietatik ezer galdu nahi barik. Zerbaitetikiko konpromisoa hartzeko ezintasuna eta joaten uztearen beldurra. Zurekin ez, zu gabe are gutxiago. Ihes egin norbere buruarengandik. Ihes egin norbere gorputzarengandik. STOP!

Birikak hasi dira aire eskean, eta azken oxigeno hondarrak kanporatzearekin batera gorputza hondoratu da hanka puntarekin igerilekuko baldosa prosaikoa ikutzeraino. Nahita ere ezin ihes egin gorputzetik. Tupustean atera du burua, eta bizitza berriro arnasteak edozein izakiri dakarkion lasaitasuna ekarri dio. Bizidunak bizi egin behar baitu, beste ezeren gaine-





tik. Igerilekuko ertzean bermatu ditu ukondoak. Hantxe dago, ezerezari begira, lelo-bueltak ematen dituen lau orratzeko erlojuari begira. Ulertzen ez duen ziklo bat, adierazten duena batere erabilgarri ez zaiona. Erloju klasiko erraldoi bat du ondoan, uretan egon arren, beste dimentsio batera pasa arren, igerilariak ez dezaten ahaztu hor kanpoan mundu baten denbora ezarriek estutuko dietela lepoa, emango diotela zentzua beraien bizierei. Erlojuak erloju, uraren lasaitasuna behar du berak. Itsasokoa udan, kloro usainez betetakoa neguan. Sekula pentsatuko ez bazuen ere beharrezko behar bat bihurtu zaio etortzen hasi zenetik. Zenbat eta gehiago etorri, orduan eta gogo handiagoa. “Batzuk terapiara joaten dira, ba nik urari bere bidea egiten uzten diot” pentsatzen du halako nagusitasun moral kutsu bat gaintetik kendu ezinda. Uretan hondoratuta dagoela, 1937ko martxoaren 31ko kontakizunera joan zaio burua berriro. Joan zaio edo pentsamendua etorri da, azaleratu da, itsaspean egon eta inork ikusten ez dituen arren, mareak behean jotzen duenean agerian geratzen diren alga horien antzera. Bizidun guztien bizitzak alga horiengandik hainbesteko distantzia ontologikorik ere ez du, azken batean. Agurtzanek kontatu zionak hartu berri dio gorputza Inesi, eta egun hartantxe bertan, Ermuko plaza hartako lehenengo solairuan, amaren sabeletik bultzaka ari zela Agurtzanek sentitu bide zuen hutsaren pareko zerbait usnatu duela sinistu gura du.

Gorputza airez bete eta berriz murgildu da Ines. Eta orduantxe sumatu du. Egundo esaten asmatuko ez lukeen zera hori. Bere egoerarik primitiboenera itzuli da, bere errorik errokoenera. Antzeman ahal izan dio, agian eta soilik agian, horrelako zerbait izango dela jaio aurretik sabel baten barruan ego-

tea. Hutsa entzuten, uraren antzeko masa mugikor batean egonean egoten. Bihozkada bat izan da. Ez du beharrik burua uretatik atera eta hura hitzetan jartzeko. Goxo dago, eroso, benetan ihes egin balu bezala. Ihes gauza guztietatik eta ihes norbere buruaren kontzientzietatik. Ihes norbere gorputzean egotetik, beste baten gorputzean egoteko. Batean bi izan. Batean bi izan erdibitu arte.

* * *

Izertitutako azala trapu umelez igurzten dio ondoan duen emakumeak. Viviana da, Juliaren ama, Agurtzaneren amama. Vivianak laguntzen dio Juliari Agurtzane munduratzen. Hiru belaunaldi, etxe xume batean, historian odol gorritz markatuko den egun batean. Goizeko lehen izpiek zidartzen diote azala Juliari; beroa eta argia eman gura dizkio jaiotzearen den egun berriak munduratzearen den umeari. Bat-batean, ordea, itzalpean geratu da etxea eta zarata ikaragarri bat gero eta hurrago entzuten da. Oztopo bat, objektu opako bat, eguzkiaren eta jaiotzearen arteko hartu-emana eten gura duena, maitale jeloskor batek maitatuaren askatasunaz egin ohi duen bezala. Bonba-hegazkinak bistaratzen dira zeruan, bata bestearen atzetik. Agurtzanek, urte batzuk geroago kontatuko zien Ines eta beste, uste zuela hirunaka etorri zirela hegazkinak, bederatzi izango zirela. Ez dakiela ziur dio, agian ez dela horrela izango. Beste batzuek idatziko dute zehaztasunez betetako historia, baina Agurtzanek kontatzen du sekula oroitu ezingo duen momentu hura. Oroitu ez, baina bizi izan zuen. Bere ama Juliak kontatu zion berari, eta berak kontatu zion Inesi, eta Inesek kontatzen dizu zuri.

Sirena-hotsak, jendea herio batean korrika, oihuak, negarrak, noraeza. Umea sabeletik bultzaka, azala blai, lasaitzea ia ezinezko den bihotz baten gainean esku bi. Besterik gabe pasa daitezke metalezko txori erraldoiak. Besterik gabe suntsitu dezakete parean harrapatzen duten guztia ere. Umea jaiotzear, emakumea erditzear, hegazkinak pasatzear.

Dena gertatzear baina gertatzeke.

* * *

Patxadan atera du burua Inesek igerileku txikiko ur-pelelatatik. Bihozkada oraindik barruan joka. Ez daki zerk, baina zerbaitek hunkitu du. Akordatzear ezinezkoa den akordu batek. Gorputzak memoria du. Gorputzean kodifikatu zaio bederatzi hilabetez sumatu izan zuena: hementxe, urte mordo bat geroago, harreman frakasatu bat baino gehiago bizkarrean, zorrak bankuan, poz txiki-handiak sarritan eta ha maika kontratu prekarioren zama gainean duela, pribilegioen zerrenda beste batzuen aurrean luzatzen zaiola, hementxe sentitu du zenik ere ez zekien aro baten bihozkada. Mistikoegiak dira terapiara doazen lagunak; erromantikoegiak eguneroko borroketan militatzen ez dutenak. Bera ez da, inolaz ere, jende klase hori. Baina lagunei egindako kritikak eztanda egin dio aurpegian, eta inoizko mistizismorik handienarekin sentitu du konexio espiritualala. Inoizko erromantizismo handienaz zuzendu ditu pentsamenduak bere jaio aurreko hutsune hartara. Eta berriz oroitu da Agurtzaneren historiak. Nola esaten zuen batzuk jaiotzen ari zirela hil zituztela beste batzuk.

* * *

1937ko martxoaren 31. Herri oso baten zauriak badu data zehatza, Agurtzaneren jaiotzak ere bai. Dena gertatzeke zen une hartantxe, Julia izerditan zegoenean, Viviana ondoan trapu batekin. Agurtzaneren aita izango zen Modesto Salaberria behean, medikuaren zain. Modestok berak desagertu egin beharko zuen gero urte batzuetarako. Izana ematen zion izenak pisu handiegia hartu izan balu bezala. Donostian egon ei zen hasieran, Frantzia aldean gero. Ba omen daude Juliaren eta Modestoren arteko harreman epistolarraren testigu material batzuk. Maitasunak, batzuetan, badaki isilpean bidea egiten ere.

Ermuko plazan zain zegoen aita izango zen Modesto. Agurtzane alaba munduratsen lagunduko zuen medikuaren zain. Medikua iritsi orduko jaio zen umea, baina. Juliak, hegazkinak sumatu orduko, bere ama Vivianari sekula entzun litekeen agindurik zorrotz, hunkigarri eta indartsuena eman zion:

– “Agudo! Ireki etxeko txorrota guztiak, umeak entzuten duen lehenengo soinua ezin da bonben hotsa izan!”.

Laurogeita zazpi urtean zentzurik galdu ez eta are indartsuagoa bilakatu den mezu bat.

Hegazkinen gortzeko moduko zarata, bonben txistu sarkorra, bolbora usaina eta asfaltoa odoletan.

Erditu du emakumeak, arnastu du mundu miserablea umeak. Salbu dira denak. Kilometro gutxi batzuetara salbatzetik urrun geratu dira hainbat. Bonba-hegazkinak txikitu dute Elorrio lehenengo eta Durango gero. Agurtzanek ezin dio errepikatzeari utzi, “batzuk jaiotzen eta beste batzuk hiltzen”. Badira oroitu ezin ditugun arren sekula ahazten ez diren oroitzapen batzuk. Gorputzean iltzatzen direlako, betikotzen direlako.

Juliak jarri zizkion berbak Agurtzaneren jaiotzari. Jakiteko eskubidea zuen, zer gutxiago. Halako maitasun ekintza iraultzailerik. Agurtzanek Ines eta lagunei kontatzen die bere bizipena, eta Inesek zuri, irakurle, geure baitagokigu entzungo, ez egitea. Existitu dadin, iraun dezan, hunkitu gaitzen.

* * *

Bakean atera da Ines gaur ere igerilekutik. Gorputzeko tentsioak arinduta, burua zolituta, birrikak arnasberrituta. Bakean, atzera ere abaila batean etorritako bizitza hiperestimulatu, hiperproduktibo eta hiperzoriontsu batek irentsi dezan utzi arte. Barruek gainezka egitean berriz etorriko da kiroldegira, eta berriz kontu berdina. Norberak zorabiatzeraino gurrpil zoroa bera ere.

Ez daki nori eman beharko lizkiokoen eskerrak halako bizipenik gorpuztu ez duelako. Bonben hotsak tapatzea maitasun ekintza izugarria da, baina ezin dugu ahaztu bonba-hegazkinak gainetik pasa izana suposatzen duela horrek, bazterrak txikiziora kondenuatu zirela eta jendea hil egin zela. Umeak, mojak, gurasoak, kortako behia, agureak, neska gazteak, identifikatu ezinak.

Beste garai batean jaio da Ines, eta memoria historikoaren lanari esker daki gertatutakoaren berri. Agurtzaneren kontakizunari esker daki letra larriz idatzitako historiaren baitan badaudela kontu txiki asko, bizipen berezi eta hunkigarri mordo galanta.

Agian, bonba-hotsik sekula entzun behar izan ez duelako gai da igerilekuan murgildu eta hutsaren soinua entzuteko.

* * *

Udaberriko goizak iratzarri du Durango. Martxoko azken eguna da eta neguko eguzki zuria ahaztu du honezkero. Leihoko gortina artetik eguzkiak lekua egin nahi du, bizidunei, gauzei eta haietan pilotutako hautsari argia eman guran. Poza ere eman ohi du eguzkiak, eta alegantziak begiratzen die Agurtzanek leihoko geranioei. Kurutziaगतik Andra Marira bidean ziren ehiza-hegazkinekin oroitu da, ia nahigabe, ahaztu nahi ez baino ahaztu behar ez den sasoiara joan zaio burua. Batetik besterako marran konturatu orduko hasiko ziren bonbak beheranzko erorketa suntsitzailan. Bera orduan Ermuan zegoen, amaren alutik ateratzear. Batzuk jaio eta beste batzuk erail. Durangon bizi da orain Agurtzane, bera jaio zen egunean hainbat eta hainbat lagun hil zituzten herrian. Patuaren jolasa



dirudi. Izan, baina, errealitatearen zili-purdi bat da. Familiak lurretara ekarri zuen zeukan tailerra, eta horregatik bizi da Agurtzane egun Durangon.

Zoli du burua, eta ez du ez ahazteko bere jaiotzaren egunean amak amari eginarazi ziona, gero amak berak berari kontatua. Ez du ahazteko eta ez du isiltzeko. Ez dezagun ba guk ere isiltzen utzi. Mareak behea jotzen duenean algak azaltzen dira. Hala ere, batzuetan, alga horietako batzuk deserrotu egiten dira. Egoten dira hondarri helduta, erroak hareatzan sartuta, kanpoan geratzen zaien zatia urak noraezean bezala darabilen bitartean. Batzuetan baina, jakin gabe oso ondo zergatik, deserrotzen dira, askatzen zaizkie zuztarrak eta itsasoan galtzen dira. Jakin gabe oso ondo non eta noiz arte irauten duten.

Guk ere, belarriak zorrozten ditugunean, esperientzia hunkigarrien konplize izan gaitzke, entzuteko gertu bagaude behintzat. Itsaspeko algen antzera azaleratzen dira. Baina, alga horien beraien antzera galdu ere egiten dira, halaxe baita bizitzaren legea. Eta, bat-batean, esperientzia hunkigarriren bat edo beste bizi duenak jaiotze data eta heriotza data bat dauzka, bizitza hasi bezala amaitzen delako. Bi daten arteko marratxo bat nahikoa al da bizitza oso bat kontatzeko? Marratxo hori zenbateraino sakondu, luzatu eta mimatu, horixe da kontua. Konplize izatera gonbidatu gaituzteenez gero, marratxoari amaiera ipini aurretik izan gaitzen konplize baino apur bat gehiago. Izan gaitzen ekin-tzaile, algak itsasoan galdu orduko ekarri ditzagun urertzera, eta begiratu diezaiegun, entzun ditzagun, kontu ditzagun.

Hutsunearen soinuak berba egina-razten digu batzuetan. Halakoetan, hobe izaten da bulkadari kasu egitea eta, adibidez, igerilekuko urpean sentitutako hutsunea entzutea. Orduan presente zegoen kontakizun hura hitzetan jartzea. ●

POST DATA: Agurtzane Salaberria Amestiri behar den bezala eskertu ezinik egongo naiz. Beti gertu kontatzeko beste entzuteko. Haren ama zenari ere eskerrik asko, halako bizipen hunkigarrri bat ahalbidetzearren.



EMOZIOZ EMOZIO

Etenik ez Kulturan

Donostia Kulturak mugarik gabe babesten ditu herritarrak, talentua eta sortzaileak, eurak baitira bere estrategiaren muina.

Ikastaroak
6.000 parte hartzaile

Sortzaileentzat
7.700.000 euro

Donostia Kultura
bazkideak
140.000 pertsona



WWW.DONOSTIAKULTURA.EUS



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



donostia
kultura

Mundua, bagoaz.

BANOOOA GO!

Irentsi mundua LABORAL Kutxaren GO! txartelarekin.

EZ du komisiorik Estatu osoko 10.000 kutzazain baino gehiagotan*.

EZ du komisiorik, LABORAL Kutxaren aldetik, atzerriko kutzazainetan**.

EZ du komisiorik dibisa aldatzeagatik.

EZ DU KOMISIORIK, EZ HEMEN*, EZ ATZERRIAN**

*Zure probintzian dirua komisiorik gabe ateratzeko, LABORAL Kutxaren kutzazain-sarea duzu; zure probintziatik kanpo, berriz, entitate hauetako kutzazainak erabili ditzakezu: Caja Rural, Cajamar, Bankinter, Caja de Ingenieros, Cashzone, Deutsche Bank, Arquia Banca, Euro Automatic Cash eta Euronet WorldWide.
**LABORAL Kutxak ez du komisiorik kobratuko atzerriko kutzazainetan. Kutzazainaren jabeak komisio bat ezar lezake kutzazaina erabiltzeagatik (LABORAL Kutxak ez).

Abantaila horietaz baliatzeko, LABORAL Kutxaren bezero izan behar duzu, 14 eta 29 urte bitartekoa (biak barne). Horrez gain, 18 urtetik aurrera nahitaezkoa izango da entitate honetan Bizum aktibatuta izatea.



LABORAL
kutxa